
GRADU AMAIERAKO LANA.

Kriminologiako gradua.
Zuzenbideko fakultatea.

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HEZKUNTZA SISTEMAREN GABEZIAK ETA
HORIEN ERAGINA KRIMINALITATEAN**

2021/2022 ikasturtea.

Egilea:
Olatz Genova Zubia
Tutorea:
Iban Ayesta

AURKIBIDEA

SARRERA	4
HEZKUNTZA SISTEMA JOKABIDE KRIMINALAREN INHIBITZAILE GISA	6
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA SISTEMAREN LEGEDIA	10
HEZKUNTZA ARLOKO ESKUMENA ETA GERNIKAKO ESTATUTUA	10
ARAUTEGI OROKORRA.....	11
HAUR HEZKUNTZAKO ARAUTEGIA	14
LEHEN HEZKUNTZAKO ARAUTEGIA	17
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ARAUTEGIA	20
HEZKUNTZA BEREZIKO ARAUTEGIA	23
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA SISTEMAREN EZAUGARRIAK	27
EZAUGARRI OROKORRAK	27
PRINTZIPIO OROKORRAK	27
ESKOLATZEAREN ETAPAK	28
IZAERA EKONOMIKOA ETA BEKAK	30
HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK	30
EGUTEGIA.....	32
ORDUTEGIA.....	32
BESTELAKO ZERBITZUAK	32
HAUR HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK	32
LEHEN HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK.....	34
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK.....	36
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZIKETA SISTEMA ETA FINLANDIAKO HEZKUNTZA SISTEMA	39
FINLANDIAKO eta EAeko HEZKUNTZA SISTEMEN EZBERDINTASUNAK.....	39
HAUR HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK	39
LEHEN HEZKUNTZA.....	40
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA.....	43
PISA TXOSTENA.....	46
FINLANDIAREN EMAITZAK PISA TXOSTENEAN	48
KONPARAKETA EUSKADIK ESKURATUTAKO EMAITZEKIN.....	50
PISA TXOSTENARI KRITIKA.....	51
TIMSS TXOSTENA.....	54
FINLANDIAKO HEZKUNTZA SISTEMARI KRITIKA.....	55
EGUNGO HEZKUNTZA SISTEMAREN GABEZIAK ETA HORIEI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK	59
ELKARRIZKETEN INGURUAN.....	61
IKASGAI ESKAINTZA.....	63
METODOLOGIA.....	75

IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZA SISTEMAKO PARTE HARTZAILEAK.....	80
GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK.....	84
ONDORIOAK	89
BIBLIOGRAFIA.....	93
ERANSKINAK.....	96

SARRERA

Hezkuntza sistema bat bera ere ez da perfektua, hots, guztiak hobetu daitezke. Ikuspuntu kriminologikotik, hezkuntzak kriminalitate tasak inhibitzeko edo murrizteko gai izan beharko luke. Baina egungo hezkuntzek dituzten gabeziak nahiz akatsak direla eta, ez da helburu hori betetzen ari.

Proiektu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hezkuntza sistema aztertuko dut, ezinezkoa baitzait munduko hezkuntza guztiak aztertzea. Konkretuki, gizarte gisa aurre egin behar diegun heziketako hutsune horiek nabarmentzeaz gain, hainbat proposamen egingo ditut horiei aurre egiteko.

Azaldu berri dudan guztia jorratu ahal izateko, lehenik, ezinbestekoa da euskal gazteek jasotzen duten heziketa nolakoa den ulertzea. Horregatik, gai hori arautzen duten legeria aurkezten hasiko naiz, eta ostean, lege horien aplikaziotik eratortzen diren hezkuntzaren ezaugarriak zeintzuk diren azalduko ditut.

Behin funtzionamendua ulertuta, herrialde nordikoek aplikatzen duten hezkuntza eredia deskribatuko dut, bereziki, Finlandiakoa. Bada, Europako herrialdeentzat jarraitu beharreko eredia da honakoa heziketaren alorrean. Hala ere, haren funtzionamenduaren inguruko goraipamenak benetan merezitakoak ez direla erakutsiko dut. Zehazki, gure hezkuntza ereduarengandik oso bestelakoa ez dela frogatuz.

Finlandiako hezkuntzaren benetako irudia erakutsitakoan, gure hezkuntza sistemaren akats eta gabeziez hitz egiten hasiko naiz. Halere, hori egin ahal izateko, 3 pertsoneri elkarrizketak burutu dizkiet. Elkarrizketetan zehar, subjektuek lanean garatzen ari naizen gaiarekin duten harremana landu da. Era berean, beren iritziaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko heziketaren kritika errealista bat burutuko dut.

Aztertuko ditudan hezkuntza esparruak 4 izango dira: Ikasleek duten irakasgai eskaintza, ikastetxeetan erabiltzen den irakasteko metodologia, hezkuntzari modu batera edo bestera eragiten dioten helduak (irakasleei arreta berezia eskainiz) eta azkenik, giza baliabideak nahiz baliabide materialak.

Arlo horien analisisian, kritikak egiteaz gain, hezkuntza sistemako akatsek kriminalitatean izan dezaken eragina deskribatzeaz ere arduratuko naiz. Gutxi balitz, identifikatuko ditudan oztopo horien desagertzea, irtenbide edo gutxienez hobetze

posible bat dela aldarrikatuko dut. Horien desagertzearekin, efektu inhibitzailea bermatzea espero delarik.

Gradu amaierako lanari amaiera emateko, proiektu honetako zati garrantzitsuenak azpimarratuko ditut ondorioen bitartez.

HEZKUNTZA SISTEMA JOKABIDE KRIMINALAREN INHIBITZAILE GISA

Eskolatzearen eta delitu-tasaren artean korrelazio estua dagoela adierazten dute datu estatistikoek. Zehazki, hezkuntza-defizitak (ikasketak albo batera uzteak nahiz hasieratik sistema horren parte ez izateak), delitu-jardueraren areagotzea dakarrela adierazten dute zifrek. Hala ere, kausalitatea ez da norantza bakarrekoa, hots, alderantziz ere interpreta daiteke. Hau da, delituak egiteko joera handiagoa duen pertsona batek eskolan jarraitzeko probabilitate txikiagoa du delitu horiek egiteko joera ez duen pertsona batekin alderatuta.

Burutu berri dudan baieztapena frogatzeko, aurrez aipatu ditudan datu estatistiko batzuk aurkezteari ekingo diot.

Lehenik eta behin, begiratu bat eman nahi nioke José Joaquín Brunner txiletar politikariak, *Herritarren Bakea Fundazioaren*¹ eskutik argitaratutako “*Educación y actividad delictiva: evidencia internacional*” artikuluari. Bertan, aurkezten diren datuak bitan banatuta daude; alde batetik, nazioarteko ikerketetatik eratortzen diren emaitzak azaltzen ditu Brunnerrek, eta, bestetik, eskusiboki Txilekoak diren datuez mintzo da.

Nazioarteko ikuspegitik aztertuz gero, Italian, adibidez, kondenatutako pertsonen % 75ek baino gehiagok bigarren mailako ikasketak (DBH) amaitu ez zituztela bermatzen du (Brunner, J. J., 2005).

Aurrekoaz gain, Estatu Batuetako All4Ed² erakundeari ere aipamena egiten dio. Azken honek, 2003.urteko lan batean, zenbait ikerketen emaitza laburbildu zituen ondorengo esanez: «Irakaskuntza ertaineko³ desertoreek 3,5 aldiz aukera handiagoa dute beren bizitzan zehar atxilotuak izateko».

Beste herrialde batzuetako datuak aztertu ondoren, Brunnerrek bere jaioterrian jartzen du arreta, hau da, Txileko egoera aztertzen du. Zehazki, herrialdearen egoera gainerakoenaren antzekoa dela adierazten du politikariak. Bada, Herritarren Bakea Fundazioak eta Adimarkek⁴ elkarlanean, eskolatzearen eta delitugileen arteko erlazioaren inguruko inkesta bat egin zuten. Eskuratutako emaitzek erakutsi zuten Txileko hiriburuan, hots, Santiagon kartzelara kondenatutako pertsonen

¹ *Fundación Paz Ciudadana* da izen ofiziala.

² *Fact Sheet de la Alliance for Excellent Education*

³ DBH ren baliokidea

⁴ GfK (Growth from Knowledge) izenez ere ezaguna. Datu nahiz analisisien hornitzailea da. Zehazki, kontsumo-ondasunen sektoreko datu eta analisisena.

hezkuntza-maila erabat baxua zela. Are gehiago, ondorengoak dira lortutako datu zehatzak: kondenatuen % 74ak, soilik oinarrizko hezkuntza burutu zuen edota analfabetoak ziren.

Txiletarraren ikerlana albo batera utziz, Espainia mailan burututako ikerketak ere aztertu nahi ditut. Zehazki, Estatuan argitaratutako txosten batekin hasiko naiz, "*Espainiako 1983-1993 urteetako egoera sozialari buruzko V. Txosten Soziologikoa*"⁵ izenekoa. Honela dio testuak (1996:286/////294/558): «Adingabeen delinkuentzia eta gazteen delinkuentzia oso lotuta daude eskola-porrotarekin: atxilotuen erdiak lehen mailako ikasketak baino ez zituzten, eta hamalau urte bete ondoren eskolatu gabe geratu ziren».

Aurrekoaz gain, Palmira González Caballero⁶ burututako eta VIU⁷ko orri ofizialean argitaratutako lanari ere erreparatu nahi diot. Izan ere, bertan, eskola-porrota delitugintzarako elementu azkartzailea dela baieztatzen da.

Bere lanerako, Palmirak, adingabe arau-hausleen egoerari buruzko azterlan bat burutu zuen, zehazki, 410 espediente ikertuz. Bertatik eskuratutako ondorioetako bat izan zelarik hurrengoak: arau hausleak ziren gazte horien artean, % 87ak eskola-trebetasunen maila baxua zeukan. Halaz, bertatik ondorioztatu zuen, bi elementuen artean nolabaiteko erlazio bat existitzen zela.

Datuak ez ezik, gizarte zientzien alorran argitaratutako hainbat lanek ere baieztatzen dute eskola-porrotaren eta gazte-delinkuentziaren arteko lotura. Dialnet⁸ orrian adibidez, Concepcion Nieto Morales autorearen eskutik argitaratutako "*Fracaso escolar y conflicto con la ley*" lanarekin egin dezakegu topo. Bertan honela dio: «Eskola-porrota eta delitu- edo arrisku-ekintza batzuetara desbideratzeko joera, elkar elikatzen diren bi egoera dira».

Datu guzti horiek aztertu ostean, argi esan daiteke hezkuntza prozesuaren eta portaera kriminalaren artean badagoela erlazio bat. Baina nola azaldu daiteke bi faktore horien arteko harremana? Zer dela eta ematen da? Eta nolakoa da?

Lotura hori azaltzeko asmoz hainbat teoria garatu dituzte autore ezberdinek. Horien artean gehien nabarmentzen dena, edo gutxienez pisu gehien duena da, **Teoria Ekonomikoa**. Hori hobeto azaltzeko asmoz, Steve Bradley eta Colin Green

⁵ V Informe Sociológico sobre la situación social en España de los años 1983-1993

⁶ Eskolako Jokabide Arazoen Prebentzioa Masterreko ikasleak

⁷ Nazioarteko Balentzia Unibertsitatea

⁸ **Dialnet**, Espainiako ekoizpen zientifikoa zabaltzeko baliabide bat da, eta 2001ean hasi zen lanean, giza eta gizarte-zientzietan espezializatuta.

ekonomialariek argitaratutako “*The Economics of Education: A Comprehensive Overview*” liburuko ideia nagusietara joko dut.

Bi gizon horiek esandakoari jarraiki, hezkuntzak, legezko lanak izateko aukerak handitzen ditu. Eta hein berean, soldata handiagoak izateko aukerak handitzen ditu. Halaz, bi gertakari horiek delitu-jarduereen finantza-erakargarritasuna murrizten dute. Hau da, hezkuntza maila handiagoa izateak lanpostu hobeagoak eskuratzeko atak zabaltzen ditu, zehazki, soldata handiagoa eskaintzen duten postu horietara aurkezteko aukera suposatzen duelako.

Hala ere, ikuspuntu ekonomikora jotzea ez da nahikoa erlazio hori azaltzeko. Urteotan aurkeztutako hipotesiekin aurrera egin ahala, **Frustrazioaren edo Tentsioaren Teoriarekin** topatuko ginateke. Ondoerngoia da ideia orokorra:

Eskola-porrotaren eta delinkuentziaren arteko harremana gertatzen da norbanakoa ezarritako helburuak lortzeko gai ez denean edo lortzen duena espero dena ez denean, edo bidezkoa iruditzen ez zaionean edo, besterik gabe, asebetetzen ez duenean. Beste era batera esanda, subjektuak uste duenean ezer lortu ez duela edo, besterik gabe, lortutako emaitza ez dela nahikoa edo ez datorrela bat egin behar izan duen ahaleginarekin. Beraz, gizabanakoak delitura joko luke nahi duena lortzeko modu eraginkorrago gisa, edo, besterik gabe, desiratutakoa ez lortzeagatik mendekatzeko modu gisa.

Helduen gizartean, teoria hori batez ere diru edo estatus motako helburuei lotuta legoke. Hala ere, adingabeen kasuan, beste helburu mota batzuk har daitezke kontuan (egoera ekonomikoa eta/edo estatusa ez baitaude haien mende). Ikasleen kasuan, adibidez, nota onak eskuratzea izan liteke ezarritako helburua.

Amaitzeko, ezinbestean aipatu behar dut J. David Hawkins eta Joseph H. Weisen **Garapen Sozialaren Teoria** (1985). Autore horien baitan, gizakiaren garapenerako unitate garrantzitsuenak familia, eskola eta komunitatea dira. Beraz, haurrak zenbat eta konpromiso handiagoa izan haiekin, orduan eta probabilitate handiagoa egongo da gazteen delinkuentziaren agerpena prebenitzeko.

Laburbilduz, argi dago erlazio bat existitzen dela bi faktoreen artean. Eta hein berean, lotura horren zergatia ez ezik, nolakotasuna azalduko duen hainbat teoria daude, guztiak elkarren artean osagarriak izan daitezkeelarik. Aztertu berri ditugun ideiak gutxi batzuk baino ez dira, hau da, fenomenoari buruzko azalpen gehiago daude. Hala ere,

azaldu ditudanak, guztien artean teoria garrantzitsuenak direla esatera ausartuko nintzateke, edo gutxienez, pisu gehien dutenak.

Baina hori guztia albo batera utzita, uste dut badela beste gertaera bat orain arte egindako ikerketa-lan guztiek kontuan hartu ez dutena. Ideia honako hau da: bai eskolak bai eskolatze-prozesuak aztertu dugunaren kontrako efektua eragin dezakete kriminalitatearen eremuan. Hau da, eskolari lotuta egoteak kriminalitate tasa handiagoak sor ditzake, baita tasa horiek indartu ere.

Hau da, hezkuntza-erakundeko kide izatearen ondorioz, adingabeen karrera kriminala areagotu egiten da. Zehatzagoak izateko, ez da lotura horren izate hutsak eragindako efektua. Baizik eta gaur egungo hezkuntza sistemaren gabezien edo akatsen ondorio larria izango litzateke efektu hau. Edo gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko⁹ hezkuntzaren kasua litzateke honakoa.

Hein berean, gazteak delitugile bilakatzeko probabilitatea ez ezik, biktima bihurtzeko aukerak ere areagotzen direla deritzot. Hots, euskal hezkuntza sistemako akatsek orokorrean, kriminalitatearen arloan eragiten dutela. Eta horixe da, hain zuzen ere, lan honetan landu nahi dudana ardatz nagusia.

⁹ EAE laburdura ere erabiliko dut hemendik aurrera.

HEZKUNTZA ARLOKO ESKUMENA ETA GERNIKAKO ESTATUTUA

1978ko Espainiako Konstituzioan dago xedatuta gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa. Bada, Konstituzioaren 149.1.artikuluaren Estatuaren eskumen eskusiboko gaiak ezartzen dira. Eta 148.artikuluaren berriz, autonomiei eskusiboki dagozkienak.

Baina proiektu honetan ez zait interesatzen hezkuntza arloan oro har eskuduntza nork duen jakitea. Aitzitik, unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloko eskumena nori dagokion jakin nahi dut zehazki. Konkretuki, lehenengo hiru etapen (HH, LH eta DBH) inguruko ardura nortzuk hartzen duten jakitea interesatzen zait. Printzipioz, Espainian, aginpidea erakunde hauen artean banatauta dago:

Alde batetik, Estatuako Administrazio Orokorrari dagokio eskuduntza. Eskumen hori Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren¹⁰ bitartez egikarituko duelarik. Bestetik, Autonomia-Erkidegoek ere eskuduntza edukiko dute esparru horretan. Hauen kasuan berriz, hezkuntza-saila izango da ardura hartuko duena. Salbuespen gisa Ceuta eta Melilla hiriak daude, non, MEFPek hartzen baititu bere gain. Bestalde, toki-administrazioei dagokie eskumena. Eta azkenik, ikastetxeei.

Aipatu berri dudan eskumen-banaketa gorabehera, EAEn¹¹ kasua pixka bat desberdina da beste autonomia-erkidego batzuenarekin alderatuta. Zehazki, beste lurralde batzuetan ez bezalako egoeran topatzen da, Gernikako Estatutua¹² dela eta. Arreta berezia eskaini behar zaio erkidegoko legeriari; izan ere, estatutuak berak aitortzen dio EAEn hezkuntzaren arloko eskumen eskusiboa, eskubide historikoa¹³ aplikatuz. Hau da, eremu hori arautuko duten bere legeak sortzeko ahalmena esleitzen zaio (betiere, gaineratik dauden legeen aurka ez badao).

¹⁰ MEFP

¹¹ Euskal Autonomia Erkidegoa

¹² Euskal Autonomia Erkidegoak, bere nazionalitatea adieraziz, bere autogobernua eskuratzeko erabili zuen arau instituzionala da. Honen bidez, Espainiako Estatuak, zenbait eskumen ematen dizkio EAEn.

¹³ Eskuduntza materialeko tituluak dira, 148. eta 149. artikuluetan ezarritako eskumen-banaketaren esparru orokorretik kanpo dauden foru-lurraldeentzat. Zehazki, haien eskumena zabaltzeko balio dute.

Esan berri dudan bezala, EAeri dagokion hezkuntza-eskumena Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan dago ezarrita, ondorengo dioelarik:

«Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, modalitate eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren 27. artikuluari eta hura garatzen duten lege organikoek, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenek eta hori betetzeko eta bermatzeko behar den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».

ARAUTEGI OROKORRA

Gernikako Estatutuaren bidez EAeri esleitutako eskumena egikaritzeaz Eusko Jaurlaritzak arduratu da urteetan zehar, zehazki, arlo hori arautuko duten legeak prestatuz. Hori kontuan hartuta eta EAEn indarrean dagoen hezkuntzaren funtzionamendua ulertzeko, ezinbestekoa da lurralde horretan indarrean dauden legeak identifikatu eta gainetik azaltzea.

Izan ere, ezin da kritikarik hasi gaia ulertu gabe. Hori dela eta, atal honetan, hezkuntza-maila eta adin guztiei eragiten dieten legeak azalduko ditut lehenik. Hau da, eskola-maila desberdinei dagozkien legeetan jarriko dut arreta.

10/1982 Oinarrizko LEGEA, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzekoa.

Lege honen hitzaurreak argi azaltzen duen bezala, testu juridiko honen bidez, hezkuntzaren eremuan euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartu nahi dira.

10/1982 Oinarrizko Legearen zergatia hobeto ulertzeko, euskarak Euskal Herrian duen estatusa hartu behar da kontuan. Bada, hori, gaztelaniarekin batera, erabilera ofizialeko hizkuntzak dira Autonomia Erkidegoko lurraldean. Hau da, gaztelaniarekin batera, euskarak izaera ofiziala du eta beraz, Euskal Herriaren berezko hizkuntza gisa ulertu daiteke honakoa.

Horregatik, bai Konstituzioak bai Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek ematen dieten euskararen erabilera garatu eta normalizatzeko neurriak hartzeko betebeharra. Normalizazio horren parte izanik, euskararen ezagutza eta erabilera.

Erabaki horien bidez, euskal herritarrek hizkuntzaren arloan duten eskubidea bermatu nahi da. Zehazki, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan hitz egiteko eskubidea eta euskararen defentsaren bermea.

Hala ere, euskararen babesak eta erabilerak ez die kalterik egin behar euskara hainbat arrazoiengatik erabili ezin duten herritarren eskubideei. Horrenbestez, debekatu egiten da hizkuntzagatiko diskriminazioa (bai gaztelaniaz hitz egiteagatik, bai euskaraz hitz egiteagatik).

Lan honen garapenerako, Oinarrizko Lege honen Bigarren Kapituluan jasotakoa aztertzea interesatzen zait bereziki. Bada, irakaskuntzan euskararen erabilera arautzen da bertan.

Horrela, ikasle orok irakaskuntza euskaraz jasotzeko duen eskubidea jasotzen da bertan, eta hein berean, hautatu gabeko hizkuntza ofiziala irakasteko betebeharra arautzen da. Azken hori, lotuta dago bi hizkuntza ofizialak behar bezala ezagutzeko neurriak hartzearekin.

Ikasleen formakuntzaz gain, irakasleen prestakuntzari buruz ere mintzo dira bertan. Atal horretan, ikasketa-planak egokitzea aurreikusten da, euskaraz eta gaztelaniaz erabat gaitu ahal izateko. Euskararen irakaskuntzaren salbuespen posibleak ere aurreikusten direlarik.

1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.

1/1993 Legearen bidez, eskola publikoaren eredia zehazten nahiz definitzen duen araudi bat sortzen da.

Hitzaurrean laburki azaltzen den bezala, legearen I. tituluan eskola publiko horien printzipio orokorrak eta helburuak jasotzen dira. Zehazki, honako ezaugarriak eduki behar dituzte eskola horiek: plurala, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizartean eta kulturaren ingurunean errotua, parte-hartzailea, desberdintasunen konpentsatzailea eta aniztasunaren integratzailea.

II. titulua berriz, euskal eskola publikoan hezkuntzarako eskubidearen erabilera arautzen da. Eskubide hori bermatzeko, doakoa (hiru urtetik aurrera) eta desberdintasunen zuzentzailea (bereziki jatorri sozioekonomikokoa), izango den kalitatezko irakaskuntza sustatzen delarik. Halaz, oztopoak gainditzeko lagunduko duten neurriak ezarri.

III. tituluak lotura estua dauka aurrez aztertu dugun Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin. Izan ere, honako titulua arduratzen da, euskal eskola publikoko euskararen erabilera arautzeaz.

IV. titulua, euskal eskola publikoaren antolakuntzaren ingurukoa da. Konkreteki, eskola-bilguneen araberako lurralde-banaketan oinarritutako antolakuntzaren ingurukoa. Gainera, *Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoari eta Zerbitzuen Ikuskaritza Administratiboari* esleitutako ikuskaritza-eginkizuna arautzeaz ere arduratzen da. Bai eta *Hezkuntzari Laguntzeko Zerbitzuak* diseinatzen ditu.

Azkenik, legearen V. tituluak ikastetxeen autonomia arautzen du.

1/1993 Legearen azalpenari amaiera emateko, bertan barnebiltzen diren xedapenak aipatzea ezinbestekoa dela deritzot. Nagusiki, zerrendatuta azaltzen den zazpigarren xedapen gehigarriari aipamen berezia egin nahi diot. Bada, honakoa eskusiboki ikastolei¹⁴ eskainitako atala da.

1/2013 LEGEA, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa.

Araudi orokorrarekin amaitzen joateko, 1/2013 Legea ikuskatzea beharrezkoa da. Baina legearen zergatia ongi ulertu ahal izateko, Bizialdi Osoko Ikaskuntza kontzeptuaren esanahia zer den definitzea beharrezkoa da. Lege horrek bizitza osoko ikaskuntza aipatzen duenean, Haur Hezkuntzan hasten den eta erretiroa hartu arte luzatzen den hezkuntzaz mintzo da. Horrela, herritar guztiak inplikaturik gelditzen dira bertan.

Lege honi esker, pertsona guztien integrazioa, parte-hartzea, ekimena eta sormena sustatuko duen sistema ahalbidetuko da. Are gehiago, bizialdi osoko ikaskuntzako euskal sistema bat, instituzioek onartutako ikastetxeetara (ikastetxeak, lanbide-heziketako zentroak eta unibertsitateak) mugatzen zuen ohiko ideia gainditzen duena. Era berean, erakunde publikoen arteko beharrezko lankidetzak dakar, bai eta erakunde horien eta eragile pribatuen arteko lankidetzak ere.

Laburbilduz, lege honen zioen azalpena ideia honetan laburbiltzen da: bizitzaren etapa guztietan ikasten da, eta ez soilik ekintza formalizatuen bidez.

¹⁴ Legearen hitzaurreak deskribatzen duenarekin bat eginez, Ikastolak, Konstituzioaren aurreko aldirian sortuak izan ziren. Nagusiki, euskaraz irakasteko helburuarekin. 1978tik hedatu egin dira.

Hala eta guztiz ere, lege honen existentzia aipatzea nahikoa dela deritzot. Hots, haren xehetasunak zeintzuk diren aztertzeak zentzurik ez daukala esango nuke. Izan ere, lan honetan zehar hezkuntzak duen eragina aztertzeaz arduratuko banaiz ere, eragin hori kolektibo jakin batengana bideratuko dut. Hau da, hezkuntzak gazteengan duen eragina aztertzeaz arduratuko naiz, arreta bereziki adingabeengan jarriz. Eta aipatu berri dudan bezala, lege honek hezkuntza eskubidearen esparrua zabaltzeko balio du, hots, horrek ez dio eragiten aztertu nahi dudan taldeari.

HAUR HEZKUNTZAKO ARAUTEGIA

Behin, euskal hezkuntza sistema osoari eragiten dioten legeak aztertuta, lan honetan zehar ikertu nahi ditudan gazteei (adingabeak gehienak) berariaz eragiten dieten legedietan jarriko dut arreta. Nagusiki, hiru taldetan banatuko direlarik gazte horiek: haurrak (Haur Hezkuntza burutzen ari direnak), umeak¹⁵ (Lehen Hezkuntzan daudenak) eta nerabeak¹⁶ (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza burutzen ari diren gazteak).

Atal honetako izenburuak argi adierazten duen bezala, lehenik, Euskal Herriko haur hezkuntza arautzen duten legedia aztertzeari ekingo diot:

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum¹⁷ ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

237/2015 Dekretua da Haur Hezkuntza arautzeaz arduratzen dena. Hau da, Haur Hezkuntza zer litzatekeen definitzen duena, eta, era berean, Haur Hezkuntzako hezkuntza-ereduaren marko bat aurkezten diguna. Aurrekoaz gain, ikasleen ezaugarriak, horien ebaluazioa eta irakaskuntza-jardunaren ebaluazioa jasotzen dira bertan. Alabaina, esan berri dudan guztia, Dekretuaren laburpena bat besterik ez litzateke. Hots, azaldutakoaz gain, ondorengo alorrak ere arautzen eta definitzen ditu:

I. Kapituluan xedapen orokorrak jasotzen dira, hau da, «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua» zehazten da. Zehazki, Haur Hezkuntza (HH) derrigorrezko Lehen Hezkuntzaren (LH) aurreko etapa gisa definitzen du. Hau da, haurrek

¹⁵ Honako hauei aipamena egiteko "mutiko" nahiz "neskato" kontzeptuak ere erabiliko ditut.

¹⁶ Honako hauei aipamena egiteko "gazte" nahiz "gazte-jendea" kontzeptuak ere erabiliko ditut.

¹⁷ Irakasleek, oro har, duten baliabide pedagogikoa da, bertan sartzen baitira ikasleei prestakuntza akademiko integrala emateko ikasketa-planak, irizpideak, oinarriak, metodologia eta programak. Gaztelerazko "currículo" hitzaren itzulpena.

eskuratuko duten hezkuntzaren lehen etapa da (Euskal Herrian bi urtetik 6 urtera bitartean iraun dezakeena).

Hein berean, haren helburu nagusi gisa finkatzen du pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzea adin goiztiarrenetik, eta, beraz, aukera-berdintasunaren bermea da, inolako diskriminaziorik gabekoa. Hots, Administrazioak, hezkuntza-arduradunek, profesionalek eta hezkuntza-komunitateko kide guztiek inklusioaren printzipioari jarraitu behar diote, eta, horretarako, hezkuntza ulergarria eta pertsonalizatua sustatu behar dute, ikasle guztiak baldintza onenetan egon daitezzen lehen hezkuntzari hasiera eman bitartean.

Dekretuko atal horretan, gainera, haurren garapen integrala bermatzeko unean, familiekiko lankidetzaren garrantzia azpimarratzen da. Izan ere, adin tarte horretan, haurrak autonomia eta ekimen pertsonala garatzeko oinarriak ezartzen joaten dira. Eta eraikuntza hori pertsona guztiekiko harremanen, bizitako esperientzien eta egindako ikaskuntzen ondorioa dela ulertzen da.

II. kapituluak oinarrizko eskumenak definitu, arautu, bereizi eta erlazionatzen ditu. Nagusiki, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilerarekin zerikusia duten alderdi guztien plangintza egiten da bertan. Horrela, garrantzi handia ematen zaio hizkuntza-esperientziari, zehazki familia-hizkeratik hasi eta bi hizkuntza ofizialen eta, hala badagokio, atzerriko lehen hizkuntzaren ezagutzaraino doanari.

III. kapitulua curriculumaren antolamenduari buruzkoa da. Aipatu dudan bezala, haurrek Lehen Hezkuntzan sartzeko oinarrizko gaitasunak lor/barneratu ditzaten saiatzera bideratuta dago honako dekretua. Beste behin ere, neskato eta mutikoen, irakasleen eta baita familien lankidetzaren garrantziaz hitz egiten delarik bertan, haien inplikazioa ezinbestekotzat jotzen baita hezkuntza-aurrerapen¹⁸ egokiaren berme gisa.

IV. kapitulua ikastetxeek duten autonomiari eta proiektu instituzionalei buruzkoa da. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntza irakasten duten ikastetxe guztientzat, hezkuntza-eredu pedagogiko komun bat ezartzen da bertan. Eta bestetik, erregulazio eta gobernantza horren barruan, ikastetxeen autonomia ere arautzen da. Izan ere, eredu pedagogiko horren barrenean, ulertzen da ikastetxe bakoitzak nolabaiteko autonomia badutela, hots, erabakimenerako aukera ematen zaie.

Aipatu berri dudan autonomiari jarraiki, ikastetxe bakoitzak beren testuingurura eta baimendutako heziketa-ziklo eta -etapetara egokitutako proiektuak burutuko dituztela

¹⁸ Kasu honetan, "aurrerapen" kontzeptuak erderazko "progreso" hitzaren esanahi bera partekatzen du.

bermatzen du dekretuak. Hala, bada, kapitulu honetan ikastetxe bakoitzaren proiektu instituzionalak egiteko jarraibideak ezartzen dira, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin.

V. kapitulua berriz, honela laburbiltzen da: tutoretza, hezkuntza-orientazioa hezkuntza sisteman eta ikasleen aniztasunarekiko arreta.

Inklusibotasunaren printzipioa¹⁹ jorratzen du kapitulu honetan. Beraz, ikastetxeak eskola inklusibo gisa definitzearen ondorioz, haur guztiek hezkuntzarako sarbidea izatea bermatu behar dutela ulertzen da. Alabaina, ez da nahikoa edozein hezkuntza eskaintzearekin, baizik eta kalitatezko hezkuntza, aukera-berdintasunezkoa, eta bidezkoa dena bermatu behar da.

Inklusibotasunaren testuinguru horretan, hezkuntza haurretara egokitu behar da. Hau da, bermatu egin behar da desberdintasunak aintzat hartuko direla eta talde edo pertsona ahulenek behar dituzten laguntza espezifikoak bermatuko direla.

Amaitzeko, ikasleen ebaluazioa eta horien maila iguera **VI. kapituluan** arautzen dira.

ERABAKIA, 1998ko uztailaren 28koa, Hezkuntza sailburuordearena, EAEko Haur Hezkuntzako 2. ziklorako eta Lehen Hezkuntzako etaparako Hezkuntza Jarduera Antolatua (HJE) arautzen duena. (EHAA 98/8/28)

1998ko uztailaren 28ko Erabakiaren zergatia/arrazoia ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da haren aurrekariak aztertzea. Zehazki, 1995. urterako iada indarrean zeuden *Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak* eta *abenduaren 16ko 243871994 Errege Dekretuak* xedatutakoa aztertu behar dira.

Bi testu juridiko horien ondorioz, Euskal Herriko ikastetxeek ikasketako jarduera alternatiboak antolatu behar dituzte erlijioiko irakaskuntzak ez egitea aukeratu duten ikasleentzat. Kontuan izanik noski, haurren kasuan, erabaki hori burutzeaz arduratzen direnak beren tutoreak direla.

Jarduera alternatibo horiek, ekintza osagarri gisa antolatuak izango dira eta beraz, ez dira ebaluatuko, ezta ikasleen ikasketa espedientean jaso. Zehazki, Erlijioaren irakaskuntzaren ordutegi berean gauzatuko dira honakoak. Hau da, erlijioiko ikasketak

¹⁹ Hezkuntza inklusiboak ikasgeletako aniztasunaren alderdi guztiak hartzen ditu kontuan edo, gutxienez, kontuan hartu beharko lituzke: hizkuntza-aniztasuna, kultura-aniztasuna, gaitasunak, sexu-orientazioa, genero-orientazioa eta baliabide sozioekonomikoak.

aukeratzen ez dituzten ikasleentzat derrigorrezkoak izango dira ekintza alternatibo horiek (beti ere ikasleen adinera egokituko direlarik).

Behin aurrekariak aztertu ostean, eta orduko testuingurua ulerturik, 1998an indarrean sartu zen Erabakia aztertzeari ekingo diot. Testuan 6 erabaki aurkezten dira:

1. Erabakiaren aplikazioko eremua. Bertan barnebilduta gelditzen direlarik hala nola, EAEko ikastetxe publiko nahiz pribatuetako HHko bigarren zikloko haurrak.
2. Jarduera alternatiboen inguruan. Erljioen irakaskuntzak eskatu ez dituzten haurren kasuetarako, behar bezalako arreta jasotzeko bermea xedatuta gelditzen da bertan, erlijioa irakasten den denbora berean.
3. HJA²⁰ren inguruan. Ikastetxeek HJAri dagozkion irakaskuntzak garatuko dituzte, zehazki, egoki planifikatuz eta Etapako Curriculum/Ikasketa Proiektuan txertatu beharko dituzte. Hein berean, jarduera alternatibo horien zentzua, xedea eta edukia haurren hezkuntzaren faboretan izango da.
4. Ikasleen ezaugarriak. kontuan hartuko dira ikasleen adina, testuingurua, etab. irakaskuntza horiek gauzatzeko unean. Eta ahalik eta baliabide egokienak erabiliko dira, haurren ezaugarrien baitan. Horrez gain, ekintza horiek garatzeko aurkezten den curriculum-proposamenaren egitura ere atal honetan xedatzen da.
5. Jarduera alternatiboen izaera eta tutoretza. Ez dira ebaluatuko ez eta ikasketa-espeditentean barnebilduko ere. Gainera, jarduera horiek irakatsiko dituen irakaslea, ahal izanez gero, irakasle tutorea izango da.
6. Hobekuntza proposamenen inguruan. Erljio hezkuntzaren ordezkoko ekintzak antolatzeke proposamenak lantzeko aukera zabalik uzten da bertan, besteak beste, irakasleak prestatzeko ekintzak antolatzeke aukera emanik.

LEHEN HEZKUNTZAKO²¹ ARAUTEGIA

Behin haurren lehenengo etapa (HH) arautzen duten testu juridikoak aztertu ostean, umeen hurrengo fasea aztertzeari ekingo diot. Hau da, derrigorrezko lehen hezkuntzaren marko juridikoa zein den azalduko dut eta gainera deskribatu.

²⁰ Hezkuntzako Jaurduera Antolatua. Bertan barnebilduta geldituko dira jarduera alternatiboak.

²¹ Lehen Hezkuntza (LH) = Oinarrizko Hezkuntza = Derrigorrezko Lehen Hezkuntza. Guztiak dira baliokideak.

236/2015 DEKRETUAren II. eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea

Dekretu honen edukia luzea eta sakona da. Ondorioz, uste dut dena aztertzea zaila dela, baita alferrikakoa ere. Hala ere, proiektuarekin aurrera jarraitzeko, testu juridiko honen izaera eta funtzioak zein diren ulertu nahiz azaldu behar ditut. Horregatik, azalpen labur bat besterik ez dut emango. Hasteko, hiru zatitan banatzen dela esango dut:

Lehenengo zatia oinarrizko hezkuntzan zentratzen da. Bertan, indarrean dagoen curriculumaren planteamendu orokorra deskribatzen eta arautzen du.

Bigarren atalean, berriz, curriculumari buruz aurkeztutako planteamendua espezifikoa da. Fokua, lehen hezkuntzan jartzen duelarik.

Hirugarren zatiak (azkenak) ere curriculumaren planteamendu espezifikoa arautzen du. Baina oraingoan, derrigorrezko bigarren hezkuntzara bideratzen da arreta.

Eta atal guztietan gauza bera arautzen ez bada ere, guztietan (edo gehienetan behintzat), irakasgai desberdinak eta horien alderdiak lantzen dira. Horrela, horietako bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak arautzen dira, besteak beste.

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Aurreko atalean aztertu dugun 237/2015 Dekretuaren baliokidea da 236/2015 Dekretua. Soilik ezberdintasun bat daukate: aurrekoak Haur Hezkuntza arautzen zuen, eta honek, berriz, Lehen Hezkuntza. Halere, egitura berbera jarraitzen dutela ikusi daiteke.

Esan bezala, honako dekretua da Oinarrizko Hezkuntza arautzeaz arduratzen dena. Hau da, Derrigorrezko Lehen Hezkuntza zer litzatekeen definitzen duena, eta, era berean, Oinarrizko Hezkuntzako hezkuntza-ereduaren marko bat aurkezten diguna. Aurrekoaz gain, ikasleen ezaugarriak, horien ebaluazioa eta irakaskuntza-jardunaren ebaluazioa jasotzen dira bertan. Alabaina, esan berri dugun guztia, Dekretuaren laburpena bat besterik ez litzateke. Hots, azaldutakoaz gain, ondorengo alorrak ere arautzen eta definitzen ditu:

I. kapituluan xedapen orokorrak jasotzen dira, hau da, «Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua» zehazten da.

II. kapituluak oinarrizko eskumenak definitu, arautu, bereizi eta erlazionatzen ditu. Aurrekoaz gain, hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, helburu gisa finkatzen du umeen elebitasuna ziurtatzea. Horrek esan nahi duelarik ikasleak, ahoz zein idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz komunikatzea, modu egoki eta eraginkorrean. Aurreko helburuari gehitzen diote ere, elebiduntasunaz gain, gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza nahikoa duten pertsona eleaniztunak lortzea. Kapitulari amaiera ematen joateko, Oinarrizko Hezkuntza amaitzen duten ikasleek konpetentzia digitala eta mediatikoa lortzeko xedea ere finkatzen da bertan.

III. kapitulua curriculumaren antolamenduari buruzkoa da.

IV. kapituluan, hezkuntza-eredua ikastetxearen eta ikasleen ezaugarrietara egokitzearen bermea xedatzen da. Hau da, kapitulu hau ikastetxearen proiektu instituzionalei eta horien plangintzari buruzkoa da. Gainera, ikastetxe bakoitzaren proiektu instituzionalak egiteko jarraibideak ezartzen dira, bai eta horiek ezartzeko baliabideen plangintza ere, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin.

V. kapitulua ikastetxe publikoen autonomia-proiektuari buruzkoa da. Bertan adierazten denez, ikastetxe publikoek proiektu bat aurkeztu behar dute, non, antolaketari, curriculumari eta giza baliabideen eta baliabide materialen hornidurari buruzko neurriak eskatuko dituzten, lortzea espero duten emaitzetara egokituta. Hezkuntza Administrazioak ebaluatuko du, aldizka, eta proiektu horien jarraipena eta kontrola egingo du.

VI. kapitulua tutoretzari, orientazioari eta aniztasunarekiko arretari buruzkoa da.

VII. kapitulua ikasleen ebaluazioari, sustapenari eta titulazioari buruzkoa da.

Azkenik, **VIII. kapitulu**a, hezkuntza sistemaren ebaluazioari eta hezkuntza-ikerketari buruzkoa da.

AGINDUA. 2010eko ekainaren 24koa. Hezkuntza. Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako Erlijio Katolikoaren arloko curriculuma argitara emateko dena. Eliz agintaritza eskudunak ezarri zuen curriculum (2010/07/30eko EHAA).

Aginduak dioenari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duen eliza-agintaritzak ezarritako Oinarrizko Hezkuntzarako Erlijio Katolikoaren arloko curriculumari publizitatea ematea du helburu honako testuak.

Beste modu batera esanda, ikasgelan erlijioaren ikasgaia irakastea lortu nahi da, umeen gaitasunen garapenean oinarrituta. Beti ere, erlijio katolikoaren alorraz mintzo garela azpimarratu behar da, hots, ikasgai honetan zehar gainerako erlijioei ez zaiela inolako aipamenik egiten.

ERABAKIA, 1998ko uztailaren 28koa, Hezkuntza sailburuordearena, EAEko Haur Hezkuntzako 2. ziklorako eta Lehen Hezkuntzako etaparako Hezkuntza Jarduera Antolatua (HJE) arautzen duena. (EHAA 98/8/28)

Atal honi amaiera ematen joateko, 1998ko uztailaren 28ko Erabakia aipatu behar da. Honakoak ere eragina baitauka Oinarrizko Hezkuntzaren etapan zehar. Alabaina, Erabakiari aipamena egitearekin aski dela esan beharra daukat, izan ere, Haur Hezkuntzari eragiten dioten testu juridikoak aztertzerakoan honako testua aztertu dugu.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ARAUTEGIA

Dagoeneko Oinarrizko Hezkuntzaren etapa arautzen duten testu juridikoak aztertu ditut, horregatik, hurrengo fasea aztertzeari ekingo diot, nerabeei dagokiena. Beste modu batetara esanda, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren marko juridikoa zein den azalduko dut eta gaineratik deskribatu.

Beti ere, kontuan izan behar da, badirela LHko umeek eta DBHko nerabeek partekatzen dituzten zenbait arau. Hots, bi etapa horietara aplikagarriak direlako. Horren adibideak dira besteak beste, ondorengo bi Dekretuak:

236/2015 DEKRETUAren II. eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea²². Ez dago, honakoa berriz azaltzeko beharrik, aurreko atalean azaldu dudalako. Eta berdina gertatzen da ere, ondorengo dekretuekin: 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum arautzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan

²² Gogoratu dezagun aurreko atalean azalduetakoa: curriculum 3 atalez osatuta dago eta hirugarren zatia espezifikoki DBHra bideratutako curriculumaren planteamendu espezifikoa arautzen du.

ezartzen duena eta AGINDUA, 2010eko ekainaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako Erlijio Katolikoaren arloko curriculuma argitara emateko dena. Eliz agintaritzaren eskudunak ezarri zuen curriculuma. (EHAA 2010/07/30).

Halere, badira, espresuki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari aplikatzen zaizkion zenbait erabaki, agindu edota ebazpen:

ERABAKIA, 1998ko apirilaren 20koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako curriculum desberdinak eratzeko oinarrizko programaren eredu arautzen duena. (EHAA 98/5/26)

1998ko Erabakian artikuluko bakar bat aurkezten da. Zehazki, programa-eredu orientagarri bat argitaratzea du helburu honako erabakiak. Programa-eredu horiek lau zutabetan banatu daitezke, guztiak izaera orientatzailea daukatelarik:

I. Eranskina: Halaz, oinarrizko programa baten proposamena aurkezten da bertan. Zehazki, programa horren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dira.

Alor sozial nahiz linguistikotik egiten da proposamen hori. Eta ondorengo arloak lantzen dira bertan: Euskara eta Euskal Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia.

II. Eranskina: Honakoa ere beste proposamen bat da. Baina konkretuki, zientziaren eta teknologiararen arloko oinarrizko programa baten ingurukoa. Eredu zientifiko-teknologikoaren proposamenean, Matematika, Natur Zientziak eta Teknologia arloak barnebiltzen dira.

III. Eranskina: Atzerriko Hizkuntzaren alorra lantzen da bertan. Alabaina, aurreko ikasgaietatik bereizita, baldintza espezifikotan irakatsiko dela zehazten da bertan.

IV. Eranskina: Edozein arrazoi dela eta, Hizkuntzaren eta Euskal Literaturaren arloa edo Gaztelaniaren eta Literaturaren arloa ez sartzea erabakitzen duten ikastetxeentzako proposamena jasotzen da bertan.

AGINDUA, 1997ko uztailaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan curriculum desberdinak eratzeko programak arautzen dituenak. (EHAA 97/7/29)

Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko hezkuntza irakasten den ikastetxeetan curriculum desberdinak eratzeko programak arautzen ditu honako aginduak. Curriculum-aniztasuna ahalbidetzen da, zehazki, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko zenbait ikasleren alternatiba gisa.

Hartzaileak izango dira, DBHko ikastaroak normalean gainditzen ez dituzten ikasleak. Zehazki, 16 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako ikasleak. Eta azaldu berri dudan guztia antolatzeko, 15 atalez baliatzen da testua.

1996ko uztailaren 24ko EBAZPENA, Pedagogi Berrikuntzarako zuzendariarena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aukerako ikasgaien curriculumak argitaratzen dituenena. (EHAA 96/9/6)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketa planen hautaketa arautzen du honako ebazpenak, edo beste modu batera esanda, aukerako ikasgaien hautaketa. Horretarako, 3 atalez baliatzen da.

Lehenengo Atalean arautzen dira derrigorrezko ikasgaiak, atzerriko lehenengo hizkuntza eta kultura klasikoa. Gainera, aipatutako arloen plangintza ere atal honetan burutzen da.

Bigarrenengo Atalean berriz, derrigorrezkoak ez diren ikasgaiak zerrendatzen dira, hots, hautazkoak. Alabaina, honako atalak izaera orientatzailea besterik ez dauka. Eta beraz, ikastetxeek zerrenda horretako edozein ikasgai jaso/aplikatu ahal izango dute inolako onarpen bereziren beharrik gabe.

Hirugarrenengo Atalak ere, aurrekoaren antzera, izaera orientagarria dauka. Eta hein berean, honakoa ere hautazko ikasgaiez mintzo da. Horretaz, bigarrenengo eta hirugarrenengo atalen arteko ezberdintasun bakarra da ikasgaien iraupena. Zehazki, hautazko ikasgai horiek 70 ordukoak izango direla zehazten da atal honetan. Eta gainera, azken ikasturtean soilik hautatu daitezkeela zehazten du atalak. Azken batean, 1996ko ebazpenak, ondorengo izaera esleitzen die ikasgai horiei: "helduen bizimodura igarotzearekin loturikoak".

AGINDUA. 2000ko azaroaren 16koa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikasketa-planean hautaketa egiteko aukerak arautzen dituen 1996ko uztailaren 16ko Agindua aldatzen duena.

2000ko Agindua, nagusiki, 1996ko uztailaren 16ko agindua moldatzera bideratuta dago. Ikasgai eskaintza eta horien hautaketaren inguruko hainbat aldaketa aurkezten ditu. Horretarako, aurreko aginduan burutu nahi duen aldaketa bakoitzarentzako artikulua bat aurkezten du. Guztira, 8 artikulua argitaratuz.

EBAZPENA, 1997ko irailaren 24koa, Pedagogi Berrikuntzarako zuzendariarena, Oinarrizko Informatikako curriculum DBHko lehen eta bigarren zikloko hautazko irakasgai gisa argitaratzen duena. (EHAA 97/10/21)

1997ko Aginduaren bidez, informatikaren ikasgaia, hautazko ikasgai gisa eskaintzeko aukera ematen da. Horretarako atal bakar batez soilik osatuta dago. Eta 1996ko uztailaren 24ko Ebazpenean ikusitako gainontzeko hautazko ikasgaien antzera, honakoak ere izaera orientagarria dauka. Horretaz, ikasketa planean txertatuta geratzen da informatika.

EBAZPENA, 1997ko martxoaren 17koa, Pedagogi Berrikuntzako zuzendariarena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloari dagozkion aukerako ikasgaien curriculumak argitaratzen dituenak. (EHAA 97/5/6)

Atal honetan aztertuko dudan azken testu juridikoa izango da 1997ko Ebazpena. Honakoa ere, atal bakarrez osatuta dago. Eta aurreko ebazpenak bezala, izaera orientagarria dauka. Konkretuki, irakasleen eskumenak arautzen dira bertan. Hau da, irakasle bakoitzari dagokion irakasgaiak zeintzuk diren jasotzen dira bertan. Horrekin batera, baimen berezien behar ezaz ere hitz egiten da bertan.

HEZKUNTZA BEREZIKO ARAUTEGIA

Legediarekin amaitzeko, beharizan bereziak dituzten gazteentzako aurreikusitako arauak aztertuko ditugu.

AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko. (EHAA 98/8/31)

Agindu honen helburuen artean topatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ikasle mota guztiak onartzen dituen eskola sortzea. Zehazki, beharrian bereziak dituzten haurrak hezkuntza sistema orokorrera integratzea lortu nahi da. Helburu horiek burutu ahal izateko, aginduan 56 atal aurkezten dira.

Halere, aginduaren nondik norakoa ongi ulertzeko aski da lehenengo atalari begiratu bat botatzearekin. Honela dioelarik:

I. Atala: Atal honetan aginduaren asmoa jasotzen da, hau da, beharrian bereziak dituzten ikasleen eskolatzea arautzen da. Eta hein berean, helburua eskuratu ahal izateko, eta beharrian bereziak dituzten ikasleei arreta egokia eskaini ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak bermatzea agintzen da. Bereziki, diru publikoa jasotzen duten ikastetxeetan.

AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat. (EHAA 98/8/31)

Aginduaren zergatia ulertu ahal izateko, lehenik, hezkuntzarako eskubidearekin zer adierazi nahi duan ulertu behar da. Hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera, ezinbestean, bi printzipio errespetatu behar dira. Alde batetik, eskaini behar den hezkuntza ezin da edozein motatakoa izan, baizik eta kalitatezkoa izan behar da. Hori bermatzea, aginte publikoen lana izango delarik; Eta bestetik berriz, berdintasun printzipioa errespetatu behar da. Hots, derrigorrezko hezkuntza burutzeko zailtasunak dauzkaten herritarrentzako baliabideak bermatu beharko dira.

Laburbilduz, hezkuntzarako eskubideaz hitz egiten dudanean, kontuan hartu beharko da herritarren artean ezberdintasunak direla. Eta beraz, premia ezberdinak dituztela.

Aginduak berak dioenari jarraiki, gure elkarteak badaude heziketa-premia bereziak dituzten ikasleak²³. Besteak beste hainbat inmigrante daude eta horiek oztopo askori egin behar diete aurre (bestelako hezkuntza hitz egitea, harremanak, ordurarte heziak izan diren kultura...). Hori kontuan izanik, berriazko neurriak hartu behar dira,

²³ Aginduak berak dioenari jarraiki, eskolara egokitzeko zailtasun pertsonal bereziak dituzten ikasleak lirake honakoak. Bai eta, gizartearen edo kulturaren aldetik aukera gutxiago dituzten herritarrak ere.

hezkuntzarako eskubidearen bi printzipioak errespetatu nahi baldin badira. Eta berdina gertatzen da ere, adibidez, behar bereziak dituzten hurrekin.

Behin testuingurua argi azalduta, eskolaren aldetik zein erantzun eman jakiteko sortua izan da honako agindua, hots, aukera-berdintasuna eta heziketarako eskubidea behar bezala gauzatzeko helburuarekin. Erantzun gisa, hainbat neurri aurreikusten dira bertan (egitura, antolaketa, pedagogia eta curriculumaren ingurukoak, guztiak 18 ataletan banatuta.

ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.

1998ko Erabakia, testu juridiko osagarritzat har daiteke. Besterik gabe, beste dekretu eta ordenamendu batzuk sendotzeko balio du. Hori guztia ondorengo helburuarekin: Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei (adimen-gaitasun apartekoak dituztelako) beren garapena oztopatuko ez duen eskola ulergarria eta integratzailea bermatzea. Kasu horietan erregulazioaren malgutasuna gehiegizkoa izan gabe ez eta zorrotz egia ere (hau da, egokia izan dadila bermatzea).

Aurrez azaldutako funtzioa burutu ahal izateko, 7 erabaki aurkezten ditu testuak (bai eta bi xedapen). Lehenengoan, erabakiaren aplikazio-eremua zehazten da. Bigarrenengan, iada laburki azaldu dudana helburua finkatzen da. Hirugarrenik, gaitasun bereziak dituzten ikasle horiei hezkuntzaren eremuan eskaini beharreko arreta arautzen da. Laugarren atalean, ebaluaketa psikopedagogikoak jasotzen dira. Bosgarrenengan, curriculum-neurriak. Seigarrenengan, curriculum-mailako neurri egokiak eskatzeko ikasle horientzat eman behar diren urratsak jasotzen dira. Eta azkenik, zazpigarrenengan, aparteko neurriak erregistratuz gero egin beharrekoa zer den barnebiltzen da.

AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura. (EHAA 98/8/31)

Honako agindua ere, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei bideratuta dago. Zehazki, eta izenburuak berak diona errepikatuz, ondorengo alorrak arautzeaz arduratzen da:

“Alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura”.

Aipatutako guzti hori garatu ahal izateko, 23 atalez baliatzen da agindua. Eta 2.atalean jasotzen dira testu juridiko honen helburuak.

118/1998 DEKRETUA ekainaren 23koa, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muin bakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena. (EHAA 98/7/13)

Dekretu honen helburua da ikasle guztien premia bereziei erantzuteko jarduerak eta aurreikusitako baliabideak babestea nahiz laguntzea. Helburu hori lortzeko, honako arlo hauek arautzen ditu:

“Behin-behineko edo behin betiko hezkuntzapremia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-arreta antolatzeko behar direnak eta bitartekoen plangintza. Hezkuntza-premia berezien jatorria izan daiteke ikaslearen hezkuntzako eta eskolako historia, ikasleak berak izan ditzakeen gaitasun handiagoak, ikasleak berak izan ditzakeen ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentimenekoak edo gizarte eta kultura-egoera kaltetua”.

Azaldu berri dudana aurrera eramateko, 26 atalez baliatzen da 118/1998 Dekretua. Eta atal guzti horiek 5 atalburutan antolatuta daude. Lehenengo bi atalburuetan nahitaez errespetatu beharreko printzipio orokorrak zerrendatzen dira. Hurrengo bi atalburuetan (hirugarrena eta laugarrena) mota guztietako hezkuntza-premia bereziei ezar dakizkien arauak ematen dira, are gehiago, derrigorrezko etapa ez ezik, derrigorrezkoaren osteko etapa ere kontuan hartzen du. Eta azkenik, mota ezberdineko premiei erantzuteko asmoarekin, bosgarren atalburuan, orientazio orokorrak jasotzen dira.

EZAUGARRI OROKORRAK

Gaur egungo euskal hezkuntzaren legedia aztertu ondoren, ezaugarri orokorrak deskribatzeari ekingo diot. Hau da, hezkuntza sistemak zer forma duen aztertu, ulertu eta azalduko dut. Noski, indarrean dauden testu juridikoetatik eratortzen den forma.

PRINTZIPIO OROKORRAK

Ezer baino lehen, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren etapa ezberdinei aplikagarriak zaizkien printzipio orokorrak azaltzea ezinbestekoa iruditzen zait. Dagoeneko printzipio horietako batzuk gainera aipatu badituzte ere, orain, sakontasunean aztertuko ditut.

Baina azalpen horiek eman aurretik, hirurak elkarren artean osagarriak direla azpimarratu behar dut. Eta beraz, printzipio horietako baten aplikazioak ez du suposatzen gainerakoen indargabetzea. Horren ordez, guztiak aldi berean aplikatu behar dira uneoro. Aurrekoa gutxi balitz, botere publikoek esku hartzeak egin beharko dituzte, printzipio horiek errespetatzen direla bermatzeko.

Berdintasunaren printzipioa²⁴. Hezkuntza sisteman sartzeko, hura igarotzeko eta bertan irauteko hezkuntza-aukeren berdintasuna bermatu nahi du printzipio horrek. Horrek esan nahi du, aldi berean, inolako arrazoigatik diskriminatua ez izateko eskubidea izango dutela ikasleek.

Kalitatezko hezkuntzaren printzipioa. EAeko ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza eskeintzeko bermea da honakoa. Ikaslearen maila edozein dela ere derrigor aplikatu beharko da, aurreko printzipioarekin elkarlanean. Baina zer da zehazki kalitatezkoa izatea? Kalitatezko hezkuntza gisa ulertzen da, hezkuntza sistemak aurreikusita dauzkan helburuak betetzen dituenean. Hau da, gizabanakoen garapenean (heldutze prozesuan) laguntzen duena, gizartean molda daitezen.

Hein berean, kalitatezkoa dela ulertuko da, pentsamendu kritikoak sortzen dituen hezkuntza. Azken batean, pentsamendu kritiko horrek ahalbideratuko baitu guztion ongizatearen eta gizarte justuago eta orekatuago bat eskuratu ahal izateko ideiak/proiektuak proposatzeko gai diren helduak eraikitzea.

²⁴ Espainiar Konstituzioko 27.5.artikulua: “Botere publikoek guztiek hezkuntzarako duten eskubidea bermatzen dute, irakaskuntzaren programazio orokor baten bidez, eragindako sektore guztiek eraginkortasunez parte hartuz eta ikastetxeak sortuz.” (27.5.artikulua, EK)

Gainera, pentsamendu kritikoa ez ezik, balio etikoak dituzten herritarrak izan daitezen lortu nahi da. Bai eta, gizartea eta giza eskubideak errespetatzen dituztenak ere, Konstituziotik eratortzen zaizkien beren betebeharrak betetzen dituztenak.

Printzipio hau egikaritu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren haurrek eskubidea izango dute, bizi diren auzoan edo herrian ikaspostu bat izateko. Eta, leku horietan ikastetxerik egon ezean, hurbilen dagoen ikastetxean eskolatzeko aukera eman beharko zaie.

Lankidetzaren printzipioa. Ezarritako helburua lortzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko lankidetzaz, elkar laguntza eta koordinazioa bultzatu nahi da printzipio honen bidez. Eskola-arrakastaren, eta beraz, hezkuntza sistemaren kalitatearen erantzukizuna gizarte osoari dagokiola ulertzen da. Hala nola, ikasleez gain ezin bestekoa izango da baita ere, haien familien, irakasleen, ikastetxeen, hezkuntza-administrazioen, etabarren esku hartzea. Azken printzipio honek ere lotura izango du besteak beste, aurrez aipatutako Espainiar Konstituzioko 27.5.artikuluarekin.

ESKOLATZEAREN ETAPAK.

Legedia aztertzean azaldu dudana gogora ekarriz, lan honetan zehar ikertu nahi ditudan herritarrak gazteak (adingabeak gehienak) dira. Azken batean, kontuan hartu behar da adingabe horiek heltze²⁵-fase batean topatzen direla. Hau da, bereziki sentiberak dira. Horri gehitu behar diogu gainera, nerabezaroaren hasieran karrera kriminalari²⁶ hasiera ematen zaiola.

Hori dela eta, nire lanean, hezkuntza sistemako fase guztiak aztertzea alferrikakoa dela deritzot. Horren ordez, gazteak zaurgarrien diren etapetara bideratzea erabaki dut lana, hots, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan jarriko dut fokoa.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaz hitz egiten dudanean, derrigorrezkoak diren hiru etapez mintzo nahiz: Haur Hezkuntza (HH), Lehen Hezkuntza (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).

Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan eskolatzeko nahitaezkoa da 10 urtetan zehar. Konkretuki, haurrak 6 urte betetzen dituenetik, 16 urte betetzen dituen bitartean.

²⁵ "Heltze" hitza erabiltzean, gaztelerazko "maduración" edota "madurar" kontzeptuetaz mintzo naiz.

²⁶ Karrera Kriminala da, gizabanako batek bere bizitzan zehar egindako delituen sekuentzia. Karrera kriminalean adin goiztiarrak, iraupen luzea iragartzen du, bai eta delitu ugari ere (Farrington et al, 1998; LeBlanc eta Fre-chette, 1989). Hori dela eta, karrera kriminalaren hasierari arreta berezia jartzea ezinbestekoa da, delinkuentziaren prebentzioa lantzeko unean.


Halere, Haur Hezkuntza bi ziklotan banatuta dagoela esan beharra daukat. Eta beraz, lehenengo 3 urteetan eskolatzea derrigorrezkoa ez dela. Baina niri dagokidanez, Haur Hezkuntzaz mintzo naizenean, 2 zikloez arituko naiz. Lehenengoa derrigorrezkoa den nahiz ez albo batera utzita.

Baina, derrigorrezko eskolatzea 3 urtetik aurrerakoa izan arren, “Gure erkidegoko haurren %90 baino gehiago 2 urterekin eskolatuta daude” (Hezkuntza Saila, 2020).

Azaldu berri dudana hobeto ulertu ahal izateko, hona hemen Hezkuntza Sailak argitaratutako panfleto bateko eskema:

Haur Hezkuntza (1.Zikloa)	0 urtetatik 3 urtetara
Haur Hezkuntza (2.Zikloa)	3 urtetatik 6 urtetara
Lehen Hezkuntza	6 urtetatik 12 urtetara
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	12 urtetatik 16 urtetara

Nahiz eta unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan jarri arreta, beharrezkoa iruditzen zait badaezpada Euskal Hezkuntza Sistemaren organigrama orokor bat txertatzea. Honela ikusi daitekeelako, hezkuntza sendo bat eskuratzea funtsezkoa dela heldutze prozesu osoan. Are gehiago, formakuntza prozesuaren lehenengo urratsak direnez gero, zutabe finkoak eraikitzea ezinbestekoa da.



Hezkuntza Saila. (2020). *Euskal Hezkuntza Sistemaren Organigrama* [JPG]. Euskadi.eus, Eusko Jaurlaritza. <https://www.euskadi.eus/sistema-educativo-vasco-informacion-a-las-familias/web01-a2hikast/es/>

Hona hemen, aurreko organigramaren azalpen labur bat: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzten duten ikasleek “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu” titulua eskuratzen dute. Horrek aukera ematen die Batxilergoa edo Lanbide Heziketako erdi mailako zikloak ikasteko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzen ez dutenek estatu-mailako balioa duen “ikasketa ziurtagiri” ofiziala eskuratzen dute. DBHko 3. mailan eskolatuta egon diren eta 15 urte dituzten ikasleak Oinarrizko Lanbide Heziketa zikloetan matrikulatu daitezke (bi ikasturteko iraupena). Horrez gain, 18 urtetik aurrera aukera izango dute Pertsona Helduen Hezkuntzan “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu” titulua eskuratzeko.

IZAERA EKONOMIKOA ETA BEKAK.

Oinarrizko Hezkuntzako etapa guztiek (Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik hasita, hots, 3 urtetik aurrera) doako izaera daukate. Hau da, ikasleek hezkuntza pribatu batetara jo badezakete ere, aukera edukiko dute beren heziketa prozesua burutzeko ikastetxe publiko batean.

Aurrekoa gorabehera, eskolaratzeak gastuak suposatzen ditu. Bada, irakaskuntza doakoa izanda ere badira ordaindu beharreko zenbait atal, besteak beste, eskola materiala (Haur Hezkuntzan erabiltzen diren mantalak, arkatzak, borragomak, zorrozkilluak, etab.), testuliburuak edota jantokia (tutoreek, ikasleak bertara bidaltzea hala erabakitzen badute).

Horregatik, eta aurrez aipatutako gastuei aurre egiten laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak, urtero hainbat beka eskaintzen ditu. Laburbilduz, doako eskolaratzea eskuratu dezakete gazteek hezkuntza etapa ezberdinetan zehar eta gainera, eskolaratzearen gastuak ordaindu ahal izateko beka eskuratzeko aukera daukate familiek.

HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EREDUAK.

Eskolaratzea ikastetxe publiko zein pribatu batean burutzea, ez da tutoreek hartu beharreko erabaki bakarra. Horrez gain, irakatsi nahi den hizkuntzaren baitan, eskola eredu ezberdinen artean hautaketa bat burutu beharko dute familiek.

Gogoan izan dezagun, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan euskaraz nahiz gaztelaniaz ikasi daitekeela, biak baitira erkidegoko hizkuntza ofizialak²⁷. Horregatik, bi hizkuntzen ezagutza edukitzea ezin bestekoa den arren, ikasketak edozein

²⁷ Gogoratu **Estatutuaren 6. artikulua**: Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe; euskara hizkuntza koofizial gisa hautematen da.


hezkuntzatan burutzeko aukera edukiko dute ikasleek. Helburua izango delarik, ikastetxe guztiek bermatzea Oinarrizko Hezkuntza bukatutakoan ikasleek gaitasun nahikoa izango dutela bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko.

Aurrekoa kontuan izanik, ikastetxe bakoitzak Hizkuntz Proiektu eta eredu desberdinak eskaintzea erabaki dezake. Zehazki, hiru eredu desberdinen artean irakastea hautatu dezaketelarik: A, B eta D ereduak.

- **A eredu:** Gaztelaniaz irakastea arau orokor gisa, Euskara eta Euskal Literatura irakasgaiak izan ezik.
- **B eredu:** Irakasgai batzuk gaztelaniaz burutzea eta beste batzuk berriz euskaraz irakastea.
- **D eredu:** Euskarazko irakaskuntza izatea arau orokorra, Gaztelania eta Literatura irakasgaiak izan ezik.

Azaldutako eredu banaketa gora behera, ezin ahaztu daiteke hiru ereduetan atzerriko lehenengo hizkuntza (ingelesa izan ohi dena) ere irakasten dela. Hau da, erkidegoko bi hizkuntza ofizialez gain, ingelesa irakasten da lau urtetik aurrera.

Ereduaren aukeraketarako, tutoreak edota familiak izan ohi dira matrikula egiteko ohiko epean (otsailean) haurrentzako ikastetxea eta ikasteredua aukeratzen dituztenak. Atal honi amaiera ematen joateko eta azaldutako ereduaren ezberdintasuna hobeto ulertu ahal izateko, hona hemen berriz ere, Hezkuntza Sailak argitaratutako panfletoetako batean azaltzen den eskema modukoa:



Hezkuntza Saila. (2020). *Euskal Hezkuntza Sistemaren Organigrama* [JPG]. Euskadi.eus, Eusko Jaurlaritzaren <https://www.euskadi.eus/sistema-educativo-vasco-informacion-a-las-familias/web01-a2hikast/es/>

EGUTEGIA.

Ikastaro bakoitzaren hasiera irailean kokatzen da, hots, udazkenean. Eta ekainean ematen zaio amaiera, bada, udaran. Halere ikastaroa ez da etenik gabekoa eta beraz, irailetik ekainera bitartean badira zenbait jaiegun. Halaz, nagusiki hiru oporraldi (Gabonak, Aste Santuak eta Udako Oporrak) zenbatu daitezkeen arren, bestelako jaiegun zehatz batzuk ere egon daitezkeela aurreikusten da. Horren adibideetako bat da besteak beste Konstituzio eguna.

ORDUTEGIA.

Lehen Hezkuntzako etapan zehar, ikasleek 5 ordu igaro behar dituzte eguneko ikastetxean, eta jardun etena izango dute: goizean saio bat (atsedenaldi edo jolas garai bat edukiko dutelarik tartean) eta arratsaldean beste bat. Horrela, eskola orduak bitan zatikatuta geratuko dira, eguerdian burutzen duten bazkaltzeko etenaldiaren ondorioz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan berriz, eguneko ordu kopurua igo egiten da. Eta iada, 5 ordu beharrean 6 ordu igarotzen dituzte ikastetxean ikasleek. Saioak goiz eta arratsaldetan zatituta egon daitezkeen arren, jardunaldi jarraia jartzea ere posible da (hots, bazkaltzeko etenik ez litzateke burutuko).

BESTELAKO ZERBITZUAK.

Ikastetxe orok **eskola-jantokia** dute. Hau da, ikastetxean bertan otorduak burutzeko gela bat esleituko zaie ikasleei, zeinetan, janaria zerbitzatuko zaien. Eta printzipioz, menu berbera emango zaie gazte guztiei, salbu, osasun edo bestelako arrazoiak direla eta hori egitea ezinezkoa bazaie. Beraz, ikasleen ezaugarrien baitan, salbuespenak eman daitezke (adibideen artean alergiak topatzen dira) eta ondorioz bestelako menua eskuratu.

Jantokiaz gain, ikastetxeek **itzulpen zerbitzu** bat ere eduki dezakete. Testuinguruaren baitan, itzulpen zerbitzuaren beharra dagoela ulertzen baldin bada.

HAUR HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Oinarrizko Euskal Hezkuntzaren ezaugarri orokorrak aztertu berri ditugu. Hala ere, fase bakoitzaren berariazko ezaugarriak deskribatzea beharrezkoa da. Hori guztia

hezkuntza sistemaren funtzionamendua hobeto ulertu ahal izateko eta, horrela, sistemaren akatsak argiago ikusi ahal izateko. Gauzak horrela, has gaitezen bada HH aztertzen.

Iada aipatu dudan bezala, HH deritzon hezkuntza-etapa, 0 eta 6 urte bitarteko haurrak zaintzeaz arduratzen da. Are gehiago, bi ziklotan banatuta dago: lehena 3 urte bete bitartekoa da eta erabat borondatezkoa da; bigarrena berriz, 3 urterekin hasten da eta 6 urte bete arte irauten du. Lehenengo faseak ez bezala, azken fase horrek euskal herritarren derrigorrezko eskolatzeari dakar (eta gauza bera gertatzen da Espainiako Estatuan ere).

Hezkuntza-etapa honetako bigarren zikloak doako izaera edukiko du. Hori hertsiki lotuta dago aurrez ikusitako printzipioekin. Bada, herritar guztiei hezkuntza bermatzeaz gain, hezkuntza kalitatezkoa izatea ere bermatu nahi bazaie.

Etapa honen helburua haurren garapen afektibo, sozial, fisiko eta intelektualean laguntzea da. Eta helburu hori lortzeko, Haur Hezkuntzan irakatsiko diren hezkuntza-edukiak hiru arlotan antolatzen dira:

Hizkuntzak eta komunikazioa. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (hau da, derrigorrezko zikloan eta, beraz, herritar guztiek parte hartzen duten zikloan), irakurketarako eta idazketarako lehen hurbilketa sustatuko da. Era berean, atzerriko hizkuntzara (gure kasuan, ingelesera) lehen hurbilketa bat sustatuko da, honakoa bereziki azken urtean egin ohi delarik.

Hizkuntzarekin erlazionatuta ez dagoen arren, aipatu nahi dut, etapa honetan ere Oinarrizko zenbaki-trebetasunetan landuko dituztela haurrak. Bai eta, besteak beste, musika-adierazpenean.

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala. Bigarren zikloa identifikaziora bideratuta egongo da. Alde batetik, adingabeak pixkanaka bere gorputza ezagutu eta, aldi berean, bere ekintzak kontrolatzen ikasi dezan ahaleginduko dira irakasleak. Beste aldetik, haurrari, bere sentimenduak, emozioak, beharrak, lehentasunak identifika ditzan irakatsiko zaio. Horien adierazpena eta besteei jakinaraztea ere identifikazioaren parte izango delarik.

Ingurunea ezagutzea. Lankidetzaren eta laguntza-jarrerak nahiz -ohiturak garatzera bideratuta egongo da. Bereziki, diskriminazioaren kontzeptuak landuko direlarik bertan, adibidez, ezaugarri fisiko ezberdinak dituzten edota gureak ez diren bizimodu, ohitura eta kultura desberdinak dituzten beste etnia

batzuetako pertsonen existentzia ezagutzea eta identifikatzea bultzatuko da bertan. Eta horiekiko errespetuzko jarrera izatea eta ezaugarri bereizgarri ororekiko diskriminazio-jarrerarik gabe baloratzea, eta aniztasuna errealitate aberasgarritzat hartzea landuko da.

Indarrean dagoen legeria aztertzean, aipatu dut ikastetxe bakoitzak nolabaiteko autonomia izango duela. HHren kasuan, esate baterako, ikastetxeen betebeharren artean topatzen da, ziklo bakoitzerako proposamen pedagogiko bat egitea. Honakoak izaera orientagarria edukiko duelarik.

Haur Hezkuntzaren ezaugarriekin amaitzeko, beharrezkoa ikusten dut irakasleen prestakuntza aipatzea. Arau orokorra da edonork ezin duela lanbide horretan jardun. Ez gaitasun faltagatik, beharrezko prestakuntzarik ez dutelako baizik. Hots, HHko irakasle izan ahal izateko, formakuntza bat ezin bestekoa da (ostera, tituluen bidez identifikatzen den formakuntza).

Orobat, Haur Hezkuntzako lehen zikloan eta bigarren zikloan aritzeko irakasle batek izan behar duen titulazioa desberdinak dira:

Lehenengo kasuan, Haur Hezkuntzako espezializazioa edo gradu-titulu baliokidea duen maisu-titulua duten profesionalak eta, hala badagokio, adin horretako haurrak artatzeko kualifikazio egokia duten beste pertsona batzuek egikarituko dute hezkuntza.

Bigarrena berriz, maisu-maistren tituluak, haur-hezkuntzako espezializazioak edo lizentziatura baliokideak dituzten maisu-maistrek irakatsi ahal izango dute, eta beste karrera batzuetako maisu-maistren laguntzarekin, irakaskuntzaren ezaugarriak direla eta beharra dagoela ikusten denean.

LEHEN HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Lehen Hezkuntzari dagokionez berriz, 6 eta 12 urte bitarteko umeen hezkuntza lantzen da bertan. Are gehiago, honakoa ere ziklotan banatuta dagoela esan daiteke, zehazki, bi urteko hiru ziklotan sakabanatzen da. Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzari gutxienez 875 ordu dagozkiolarik.

LHko ziklo bakoitzaren amaieran, ikastetxeko irakasleak izango dira ikasleen ziklo aldaketaren inguruko erabakiak hartuko dituztenak. Arau orokorra da, ikaslea hurrengo

hezkuntza-zikloan sartuko dela, dagokion garapena eta oinarrizko gaitasunen heldutasun-maila egokia lortuzat jotzen bada. Aurrera egin ahal izango du, halaber, lortu ez diren ikaskuntzek ziklo berriaren jarraipen egokia eragozten ez badute.

Aldiz, irakasleek ondorioztatzen badute ikasleak aipatutako baldintzak betetzen ez dituela, adingabea beste urtebetez ziklo berean egotera behartuta egongo da. Beti ere neurri hori behin bakarrik aplikatu ahal izango da Lehen Hezkuntzan, hots, behin bakarrik errepikatu ahal izango du. Eta erabaki hori loturik joango da ere, indartze-edo berreskuratze-plan espezifiko bat. Guzti hori, umearen hezkuntza kalitatea bermatzeko asmoarekin.

Ondorioz, gerta liteke Lehen Hezkuntza 12 urterekin ez amaitzea. Lehen Hezkuntza 6-12 urte bitartean burutzen dela esatea, beraz, arau orokorra besterik ez da. Hots, salbuespenekin topo egin dezakegula ulertu behar da.

Aurrez esan bezala, hezkuntza fase honen izaera nahitaezkoa eta doakoa da (eta gauza bera gertatzen da Espainiako Estatuan ere), guzti hori, hasieran aipatutako printzipioak bermatzeko asmoz.

Hezkuntza sistemako etapa honetan, Haur Hezkuntzako zikloaren helburu ziren garapen pertsonala eta norberaren ongizatea sendotzea ahalbidetuko duen hezkuntza ematea lortu nahi da. Beraz, Haur Hezkuntzan oinarrizko kultura-trebetasunak, eta gaitasun pertsonalak ezagutu eta ikasten hastea zen helburua; Lehen Hezkuntzan, berriz, aurreko etapan ikusitako alderdiak indartu eta garatu nahi dira.

Hori guztia ez ezik, ahozko adierazpenari eta ulermenari (hau da, irakurketa, idazketa eta kalkulua) lotutako oinarrizko kultura-trebetasunak eskuratzea izango da helburua. Bai eta gizarte-trebetasunak, lanerako eta ikasteko ohiturak, zentzu artistikoa, sormena eta afektibitatea garatzea (Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila, 2007).

Amaitzeko, hona hemen azaldu berri ditudan helburu horiek burutu ahal izateko Lehen Hezkuntzan irakasten diren irakasgaiak:

- Ingurunea: naturala, soziala eta kulturala.
- Arte-hezkuntza.
- Gorputz-hezkuntza.
- Gaztelania eta literatura.
- Euskara eta literatura.
- Matematika.

- Erlijioa EDO Hezkuntza-arreta (beste arlo batzuekin eta erlijioarekin lotutako edukirik gabe). Kasu honetan, bi horien artean hautatzeko aukera edukiko dute tutoreek.
- Atzerriko lehenengo hizkuntza (ingeleza).
- Atzerriko bigarren hizkuntza: Honakoa hautazkoa da, hots, ikastetxeen esku egongo da beren irakasgaien zerrendara txertatzea nahiz ez. Horrela egitea erabakiz gero, 3.zikloan irakatsiko da soilik.
- Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza: Honakoa ere soilik hirugarren zikloan txertatuko da. Aitzitik, honakoaren irakaskuntza ez da ikastetxearen erabakiaren menpe emango. Hortaz, ikastetxe guztiek txertatu beharko dute beren ikasgaien zerrendara.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 12 eta 16 urte bitarteko nerabeen hezkuntza lantzen da. Hala eta guztiz ere, ikasleek hemezortzi urte bete arte erregimen arruntean egoteko eskubidea izango dute. Hau da, 18 urterekin ere DBHko ikasketak burutzen egon daitezke gazteak. Baina hortik aurrera, legedian aztertu dudana erregimen bereziaren parte bilakatuko lirateke.

Bigarren Hezkuntza, lau ikasturtez osatuta dago eta ikasturte bakoitzari gutxienez 1.050 ordu dagozkio urteko.

Lehen Hezkuntzan bezala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren izaera nahitaezkoa eta doakoa da (eta gauza bera gertatzen da Espainiako Estatuan ere), guzti hori, hasieran aipatutako printzipioak bermatzeko asmoz.

Aitzitik, Bigarren Hezkuntza Derrigorrezkoa izan arren, maila guztietako ikasgaiak ez dira nahitaezkoak. Zehazki, azken ikasturtea, laugarrena, erabat orientagarria izango da ikasleak etorkizunari begira egin nahi dituen ikasketetara egokitzeko. Horregatik, derrigorrezko irakasgaiez gain, ikasleek hautazko ikasgaiak aukeratzeko aukera izango dute.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez bezala, DBHko ikasketen ardatza ez da ikaslearen garapen introspektiboa²⁸; aitzitik, etapa honetan gizartearekin eta

²⁸ **Introspekzioa:** Norbere buruari begiratzea, norberaren barnean. Are gehiago, nor bere burua ezagutzeko helburuarekin, norberaren emozioak, sentimenduak, pentsamenduak eta jokabideak identifikatu, hauteman, interpretatu eta ulertzen ahalegintzea.

kulturarekin lotutako alderdiak indartzen ahaleginduko dira. Esan berri dudan bezala, helburua izango delako, ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea. Guzti hori, DBH osteko ikasketak burutu ahal izateko eta ondoren, lan mundurako prestatzeko.

Hala, globalizazioaren fenomenoarekin lotura handia duten elementuak bereganatzea lortu nahi da fase honetan zehar, bereziki, alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoei dagokienez.

Azaldu berri ditudan helburu horiek burutu ahal izateko, ondorengo irakasgaiak irakasten dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan:

- Euskara eta Euskal Literatura.
- Gaztelania eta Literatura.
- Atzerriko lehenengo hizkuntza (ingelesa).
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza.
- Matematika.
- Natur Zientziak.
- Gizarte Zientziak: Geografia eta Historia; Ekonomia.
- Gorputz Hezkuntza.
- Plastika.
- Musika.
- Teknologia.
- Informatika.
- Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza.
- Etika- eta gizabide-hezkuntza.
- Naturaren Zientziak: Biologia eta Geologia.
- Naturaren Zientziak: Fisika eta Kimika.
- Latina.
- Aukerako eta errefortzuko ikasgaiak.
- Erlijioa EDO Hezkuntza-arreta (beste arlo batzuekin eta erlijioarekin lotutako edukirik gabe). Kasu honetan, ikasleak matrikulatzerakoan, bi horien artean hautatzeko aukera edukiko dute tutoreek.

Laugarren mailak izaera orientagarria dauka. Hori dela eta, hautazko zortzi ikasgai aurkeztuko zaizkio ikasleari eta horietatik hiru aukeratu beharko ditu. Hein berean, ikastetxeen betebeharra izango da hautazko ikasgai horiek eskaintzea. Aurrez burutu

dudan ikasgaien zerrendatik, ondorengoak lirateke laugarren ikasturtean erakusten diren hautazko irakasgaiak:

- Biologia eta Geologia.
- Fisika eta Kimika.
- Plastika.
- Informatika.
- Latina.
- Musika.
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza.
- Teknologia.

Goian aurkeztutako zerrendan behatu ahal den bezala, hirugarren eta laugarren mailan, ikastetxeek zenbait ikasgai banatu ahal izango dituzte. Adibidez, hirugarren ikasturtetik aurrera, Natur Zientziak bi irakasgaitan banatzen dira: Biologia eta Geologia alde batetik eta Fisika eta Kimika bestetik. Laugarren mailan, berriz, ikastetxeek eduki desberdineko bi aukeratan antolatu ahal izango dute Matematika. Horretaz, matrikula egiterakoan, horien artean hautatzen utziko zaie ikasleei.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak emateko, beharrezkoa izango da lizentziatura-, ingeniari- edo arkitektura-titulua edo gradu-titulua baliokidea izatea, bai eta graduondoko prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ere (Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila, 2007).

Horrez gain, beharrezkoa da oposaketak gainditzea Autonomia Erkidego bakoitzak eskaintzen dituen plaza publikoak eskuratzeko.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZIKETA SISTEMA ETA FINLANDIAKO HEZKUNTZA SISTEMA

Munduko hezkuntza sistema ezberdinen artean Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoena ez da onena, ez da txarrena, ezta bakarra ere. Hezkuntza sistema bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, eta Euskadin onartutako sistemak, akatsak dituen bezala, positiboki baloratu daitezkeen ezaugarriak ditu.

Argi dago, herrialde guztien asmoa dela ahalik eta irakaskuntza zerbitzu egokiena eskaintzea, zehazki, irakaskuntzaren ezaugarri positiboak areagotuz eta, aldi berean, negatiboak murriztea lortuz edo, are gehiago, guztiz ezabatuz.

Helburuak gora behera, munduan ez dago sistema perfekturik. Horrenbestez, egokien funtzionatzen duen hezkuntza modeloa aurkitzeko bidean, herrialdeek esperimentatu egin behar dute hezkuntza erreformen bitartez.

Dirudenez, zenbait herrialdek emaitza hobeak lortu dituzte gainerako herrialdeekin konparatuz. Eliteko hezkuntza sistemei buruz hitz egiten dugunean, oro har, gure burutik pasatzen dira herrialde nordikoek aplikatzen dituzten hezkuntza ereduak. Bereziki Finlandiako hezkuntzari buruz hitz egiten da azkenaldian.

FINLANDIAKO eta EAEko HEZKUNTZA SISTEMEN EZBERDINTASUNAK

HAUR HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Zikloaren iraupena: Finlandiako haur hezkuntza derrigorrezkoa da 2015.urteaz geroztik. Eta urtebeteko iraupena besterik ez du, zehazki, haurrak 6 urte betetzen dituenetik hasita, 7 urte bete artekoa da. Euskadin aldiz, soilik HHko bigarren zikloa da derrigorrezkoa. Hala ere, honakoak ez du urte bakar bat irauten, horren orde, haurrak bertan eskolaratuak dira 3-6 urte dituzten bitartean.

Zentroen ordutegiari dagokionez, Finlandiako haurrek egunean 4 ordu inguru igaro behar dituzte bertan arau orokor gisa (nahiz eta legediak gehieneko 5 ordu arteko ordutegiak baimendu). Halaz, haur hezkuntzako ikasturte batean zehar gutxienez 700 ordu igaro behar dituzte gazteek.

Euskadiko hezkuntzari dagokienez berriz, 237/2015 DEKRETUAK 13.2.artikuluari ondorengoa zehazten du:

“Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasturte bakoitzari dagokion ordutegia urtean 875 ordukoa izango da gutxienez. Ikasleen jarduerak astelehenetik ostiralera egingo dira, goizez eta arratsaldez, eta astean gutxienez 25 ordu ezarriko dira ikastaro bakoitzean”.

Ikasgelaren ezaugarrien inguruan berriz zera esan dezakegu, **irakaskuntza-taldeak** 13 ikaslelik gorakoak ez izatea gomendatzen dela Finlandian, betiere ikasgelan laguntza-langilerik badago, taldea 20 ikaslara irits daitekeelarik.

Euskadin aldiz, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eskaintzen duten ikastetxeek, gehienez ere, 25 ikasle izango dituzte ikastetxe bakoitzeko. Eta **irakasleei** dagokienez, legeak ezartzen du HHko ikastetxeek, gutxienez, maisu bat izango dutela ikasle-talde bakoitzeko.

Azkenik, **jakintza-arloak** ere erabat ezberdinak direla azpimarratu behar da. Ezin ahaztu, Finlandian Haur Hezkuntza burutzen ari diren haurrek, Euskadiko Lehen Hezkuntzako lehen urteko umeen adin bera dutela. Hau da, Finlandiako ikasleek beranduago eskolatzen direla kontuan hartuta, garatu behar dituzten esparruek alderdi konplexuagoak ere hartzen dituzte.

Aurrekoa kontuan hartuta, Finlandian honako ezagutza-arlo hauek lantzen dira: hizkuntza-interakzioa, garapen fisikoa eta motorra, matematikak, natura eta ingurumena, etika eta erlijioa, osasuna, garapen fisikoa eta motorra eta, azkenik, artea eta kultura.

Aldiz, Euskadin (eta eskolaratzea adin goiztiarragoan ematen dela jakinik) jakintza alor oinarritzakoagoak barneratzen dituzte haurrek: Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala, ingurunearen ezagutza eta hizkuntzak (komunikazioa eta adierazpena barnebiltzen direlarik bertan).

LEHEN HEZKUNTZA

Lehenik eta behin, esan behar da bi hezkuntza sistemetan LH derrigorrezkoa eta doakoa dela.

Zikloaren iraupena: Finlandian etapa hau 7 eta 13 urte bitarteko haurrentzat da. Euskadin, berriz, Lehen Hezkuntzan 6-12 urte bitarteko haurrak hartzen dira.

Zentro aukeraketa: Finlandian bizi den (konkretuki, egoitza finko bat duen) haur bakoitza derrigorrezko hezkuntzaren mende dago. Ondorioz, tokiko agintariek familia

bakoitzari bere seme-alabak inskribatzeko zentro bat eskainiko diote, baina haiek esleitutakoa ez den beste zentro bat ere eska dezakete. Kasu horretan, ikastetxetik gertu bizi diren hurrek lehentasuna edukiko dutelarik; Euskadin berriz, ikasleen gurasoak arduratzen dira beren seme-alabentzat ikastetxea eskatzeaz, LHko etapan ez ezik, DBHn ere.

Ikasturtearen antolaketa: Finlandiako eskola egutegia abuztuaren erdialdean hasi eta maiatzeko azken lanegunean amaitzen da. Halaz, ikasturtea 190 eskola-²⁹egunek osatzen dute. Ikastetxeak autonomia du ikasturteko lehenengo eguna, hots, data zehatza erabakitzeke; aldiz, azken eguna ikastetxe guztientzat berdina izango da.

Euskadin (autonomia-erkidegoak arduratzen direnez urtero ikasturtearen egutegia finkatzeaz), iraileko lehen hamabostaldian hasten da ikasturtea, eta ekainaren amaierara arte luzatzen da. Ikasturteak gutxienez 175 eskola-egun hartzen ditu, eta hiru hiruhilekoetan multzokatuta dago.

Eskola-oporren banaketa: Nahiko antzekoa da bi herrialdeetan, izan ere, bi lekuetan opor nagusiak dira udako oporrak eta gabonetako oporrak. Halere badira zenbait ezberdintasun. Finlandian adibidez aste zuria ospatzen da otsailean (eta Espainiar Estatuko zenbait Erkidegotan ospatzen bada ere, hori ez da Euskadiren kasua). Gainera, udazkeneko oporrak ere ospatzen dituzte. Bestalde, Euskadin, Aste Santuak ospatzen dira (martxoaren amaieran edo apirilaren hasieran).

Astearen antolaketa: bi herrialdeetan, astean 5 egunez joaten dira ikasleak ikastetxera, halaz, asteburuetan jai dute. Hala ere, Finlandian, ikastetxeek larunbatetan eskola ematea erabaki dezakete, errekueratu behar diren asteko jaiegunak direla eta.

Ordutegien antolaketa: Finlandian lanaldia jarraitua³⁰ da. Ikastetxeek berek erabakitzen dute talde bakoitzaren ordutegi zehatza, baina eskola-ordutegi arrunta 9:00etatik 15:00etara izaten da. Hau da, egunean batez beste 6 ordu igarotzen dituzte ikasleek zentroan. Sei ordu horietan irakasten diren saioek, ordubeteko iraupena eduki ohi dute (gutxienez 45 minutu eskola emateko izan behar dira; gainera, 90 minutuko eskolak eman daitezke).

Euskadin berriz, arau orokor gisa, lanaldia banatuta dago goizeko eta arratsaldeko saioetan. Hala ere, ikastetxe batzuek lanaldi jarraitua aplikatzea erabaki dezakete. Ordutegi zehatza zein den esatea oso zaila da, izan ere, eskola publikoetatik

²⁹ Eskola- adierazi nahi dena da, gaztelerako “lectivo” kontzeptuaren esanahi berbera.

³⁰ Jornada continua/intensiva kontzeptuaren itzulpena.

pribatuetara alda daiteke. Nolanahi ere, astean 30 ordu igaroko dituzte ikasleek ikastetxean, honako baldintza hauek bete beharko dituztelarik: (1) Umeek, arratsaldez 2 saio egin beharko dituzte. (2) Goizeko eta arratsaldeko lanaldien artean gutxienez ordubate eta 30 minutuko atsedena egon beharko da. (3) Goizeko saioen artean 30 minutuko jolas-ordu bat izango dute ikasleek.

Metodologia eta etxeko lanak: Finlandiako sistema goraiatzeko orduan gehien nabarmentzen den alderdietako bat etxeko lanen gabezia izan ohi da. Gure euskal gizartean gehien entzuten den dilema (edo behintzat nik pertzibitu ahal izan dudaren baitan, ez bakarrik nire testuinguru sozial hurbilenean, baizik eta albisteetan nahiz sare sozialetako postetan) honako hau da: nola liteke Finlandiako ikasleek etxeko lanik ez izatea eta guk baino kalifikazio hobeak eskuratzea?

Bada, hori ez da horrela. Egia da Finlandian ez dagoela lan-karga minimoaren inguruko gomendio ofizialik. Are gehiago, zehazten da eskola-egunaren ondoren, eskolako joan-etorriko bidaietan eta etxeko lanetan emandako denboraren ondoren, ikasleak denbora nahikoa izan behar duela atsedenerako eta aisialdirako. Baina, horrek ez du esan nahi etxeko lanik ez dutenik (baizik eta, aurrez azaldutakoa kontuan izango dutela). Horretaz, irakasle bakoitzak bere metodologia propioarekin irakasten duen heinean, irakasle bakoitzaren esku dago etxeko lanak bidaltzea erabakitzea

Beraz, etxeko lanak ez dira hemen bezain baliabide erabilia. Baina horrek ez du esan nahi erabiltzen ez denik. Eta hori gertatzen da ikasleei bidali beharreko lan kopurua ez dagoelako legedien edota zentroen mende. Baizik eta irakasle bakoitzak erabiltzen dituen metodoen menpe dago erabat. Berdina gertatzen da ere irakasteen erabiltzen diren material eta testuliburuekin. Honakoen erabakimena ikastetxe eta maisuen menpe dago erabat.

Ebaluazioa: Finlandian, bi ebaluazio mota existitzen dira, bakoitza helburu desberdinarekin.

Lehenengoa ikasturtean zehar egiten den ebaluazioa da, non ikasleak urte bakoitzaren amaieran txosten bat jasotzen duen (ikasturtean zehar bat baino gehiago jasotzeko aukera ere izango dute). Txosten horiek kualitatiboak, kuantitatiboak nahiz bien arteko konbinazio bat izan daitezke. Hori guztia, ikasleen ikaskuntza-prozesua gidatzeko eta laguntzeko helburuarekin.

Bigarrena, aldiz, azken ebaluazioa da. Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran egiten da, emaitzen baitan, goi-mailako ikasketak egiteko aukera desberdinak edukiko dituztelarik ikasleek.

Zenbaki bidez ikasleen ezagutza eta trebetasun ebaluatzeko, 4-10 bitarteko eskala erabiltzen dute. Ondorengo balioa edukiko dutelarik zenbakiek:

- 4 = Gutxieneko maila lortu ez dutenentzat da.
- 5 = Egokia.
- 6 = Moderatua.
- 7 = Gogobetegarria.
- 8 = Ona.
- 9 = Oso ona.
- 10 = Bikain.

Euskadiren kasuan aldiz, LHko ebaluazioa ez dago zatikatuta. Ebaluazioa erabat jarraitua eta globala da. Hau da, ikasleak arlo guztietan izan duen aurrerapena hartzen da kontuan. Horretaz, ikasturtean zehar, ikasleek hiru ebaluazio-txosten jasotzen dituzte idatziz (hiruhileko bakoitzeko bana).

Ikasleen ezagutza eta trebetasuna ebaluatzeko erabiltzen den eskala, Finlandiarekiko apur bat ezberdina da. Euskadin 1-10 bitarteko eskala erabiltzen baita. Ikasleek eskuratutako nota zenbaki nahiz hitzen bidez adierazi daiteke (bien balioak baliokideak izango direlarik):

- <5 = Gutxiegi (GU) / Hobetu Beharra (HB)
- 5 = Nahikoa (NA)
- 6 = Ongi (O)
- 7-8 = Oso ongi (OO)
- 9-10 = Bikain (BI)

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

DBHri dagokionez, Lehen Hezkuntzaren alorrean aztertutako zenbait kontzeptu errepikatzen direla argitu behar dut, hau da, antolamendu aldetik berdin mantentzen direla. Hala nola, honako etapa ere derrigorrezkoa eta doakoa da, bai Finlandian, bai eta Euskadin ere. Jai egunak ere berdinak izan ohi dira eta kalifikazio sistemak ere

adibidez, ez dira aldatzen (soilik aipatzea, Euskadin DBHra iristean ohikoagoa dela zifra bidezko ebaluazioak helaraztea. Baina esanahi bera mantentzen dute).

Zikloaren iraupena: Finlandian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak 14 eta 16 urte bitarteko nerabeak hartzen ditu. Euskadin, berriz, etapa honetan 13-16 urte bitarteko nerabeak eskolaratzen dira.

Printzipioz, bi lurraldeetan **astearen antolaketa** mantentzen da. Hau da, astelehenetik ostiraletara eskola egunak izango dira. Ezberdintasuna, egun bakoitzeko ordutegietan dago. Hona hemen **ordutegien antolaketa**:

Finlandiaren kasuan, eguneko 7 eskola-saio burutzen dira gehienez (35 saio astean gehienez). Alabaina, asteko saioen kopurua aldatu egiten da ikastaroaren eta ikasleen irakasgaien arabera. Lehenengo mailan 24 saio egiten dituzte astean zehar. Aldiz 2. mailatik 4.era astean 30 saio egiten dituzte.

Euskadin, aldiz, oro har, asteko eskola-saio kopurua 30ekoa da, hau da. Bada, eskola eguna goizeko eta arratsaldeko saioetan banatzen den egunetan, eskola-jarduera 6 saiokoa izango da. Saio bakoitzaren iraupena ordubetekoa izango delarik. Zehazki, honela sakabanatuko dira: goizean, 60 minutuko 4 eskola-saio, 30 minutuko jolas-saio batekin bereizita; eta arratsaldean, 60 minutuko 2 eskola-saio.

Konparaketarekin amaitzen joate aldera, irakasten diren ikasgaiez hitz egitea ezinbestekoa dela deritzot. Baina ez ditut Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gai-zerrendak bakarrik jorratu nahi. Horren orde, hezkuntza etapa ezberdinetako irakasgaiei begiratu bat bota nahi diet orokorrean. Laburbilduz, alde txikiren bat egon arren, irakasten diren gai-zerrendak antzekoak dira Finlandian eta Euskadin.

Hona hemen adibide bat: bi hezkuntza sistemetan hizkuntzak irakasten dira. Baina hemen gaztelania eta euskara irakasten diren heinean, Finlandian finlandiera eta suediera irakasten dira. Hau da, bi herrialdeetan irakasten dira hizkuntzak, baina herrialde bakoitzari dagozkion hizkuntza ofizialak.

Berdina gertatzen da ere historiarekin adibidez. Oinarri berdin batzuk irakatsi arren (Lehenengo nahiz Bigarren Mundu Gerrak esaterako), lurralde bakoitzaren historian zentratuko dira. Hots, irakasgai berdinak irakasten dira, baina norberaren testuingurura egokituta³¹.

³¹ Ezin ahaztu, badirela aldatzen ez diren zenbait ikasgai. Besteak beste, matematikak. Honakoak berdinak izango dira leku guztietan.

Bi lurraldeetan aplikatzen den **hezkuntza sistemak parekatu** ditugu. Eta argi dago euskaldunekin alderatuta, finlandiarrek denbora gutxiago igarotzen dutela ikastetxeetan (baita espainiarrek baino ere, estatuko hezkuntza sistema ez baita EAEkoaren hain desberdina). Baina, gainerakoan, ezberdintasunak ez dira ezagutzera ematen dena bezain handiak.

Irakasteko metodologietan dagoen aldea, sare sozialetan hainbeste nabarmentzen dena, irakasleei eta haien metodoei zor zaie, indarrean dagoen edozein legeriari baino gehiago. Hau da, irakasleak dituen gaitasun pertsonalei zor zaie, daukan prestakuntzari eta esparru horretan duen esperientziari batuta.

Ezberdintasunak gora behera, proiektu honetako nire xedea ez da Finlandian eskaintzen duten hezkuntza Euskadin aplikatzen denarekin alderatzea bakarrik. Horretaz gain, zalantzan jarri nahi dut Finlandiako hezkuntza sistemaren benetako eraginkortasuna. Baina guzti hori, ikuspegi kriminologiko batetatik egin nahi dut. Bada, zer esan nahi du benetan arrakasta izateak? Ikasleen gehiengoak kalifikazio altuak eskuratzearekin aski da sistema on baten aurrean gaudela esateko?

Erantzuna ezezkoa da. Emaitza akademiko onak eskuratzea, hau da, ikasleek lortzen dituzten noten batz bestekoa altua izatea, horri ezin diogu arrakasta deitu. Arrakasta ez da zifra bat. Horren ordez, arrakastatzat jo daiteke beren hezkuntza sistema dela eta enplegu-tasa altuak dituzten herrialdeak. Edota osasun nahiz ongizate portzentaje altua (fisikoa nahiz psikologikoa) duten herrialdeak. Hezkuntza sistema bat gainontzeko herrialdeentzako eredu bilakatuko litzateke ere, ikuspegi kriminologikotik, hezkuntzaren bidez delitu tasak gutxitzen badira edo murrizten badira.

Horregatik guztiagatik, atal honetan aztertu nahi dut zertan oinarritzen den finlandiar hezkuntza sistemaren arrakasta. Mitoak desmuntatu eta errealitatera hurbildu nahi dut. Zergatik goresten dute horrenbeste beren hezkuntza metodologia? Zer desberdintasun daude gurearekiko? Desberdintasun horiek nola eragiten dute ikasleen etorkizunean? Eta garrantzitsuena, kriminalitatearen ikuspuntutik, delitu tasak gutxitzearen efektua eskuratzen du?

Ezer baino lehen, Finlandiako hezkuntza sistemaren ospea nondik datorren aztertu behar da. Zergatik uste da, hezkuntza eredu egokiena dela? Zergatik da Europako herrialdeek jarraitzen duten eredu?

PISA TXOSTENA

Finlandiako hezkuntza-kalitatearen ospea PISA probatik dator. Hain zuzen ere, Finlandiako 15 urteko ikasleak, PISA neurketa-tauletako lehen postuetan kokatu ohi direlako frogaren aplikazioko lehenengo urteetatik. Baina zertan datza zehazki froga hau?

Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa (PISA izenez ere ezaguna, ingeleseko sigletan) Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (OECD) sortu zuen proiektu bat da. Laburki azaltze aldera, 3 urtean behin aplikatzen den froga bat dela esan daiteke, zeinaren helburua 15 urteko ikasleen trebetasunak eta ezagutzak aztertzea den.

Konkretuki, paper eta arkatz bidezko proba horretan, irakurketa, matematika eta zientziaren arloetan ikasleek duten gaitasuna ebaluatzen da³². Are gehiago, aurreko ikasgaietan oinarrituta problemak aztertu, interpretatu eta ebazteko ikasleek duten gaitasuna neurtzen da. Guzti hori, ikasleek gizartean erabateko partaidetza izateko beharrezkoak diren oinarriak barneratu dituzten jakiteko xedearekin.

Irakurketa, matematika eta zientzietako arloetan ikasleek duten gaitasuna neurtzen duten inkestez gain, adingabeek, beren buruari buruzko galdetegiak ere betetzen dituzte. Zehazki, ikasleen jarrera, sinesmenak eta etxe, eskola nahiz ikasketa esperientzien inguruko informazioa bilatzen da. Era berean, zuzendariak beren eskolei buruzko galdetegiak ere betetzen dituzte (bada, eskolako kudeaketa, antolaketa eta ikasketa ingurunearen ingurukoak) datu ahalik eta zehatzenak eskuratzeko asmoz.

Laginari dagokionez, eskola publiko nahiz pribatuetako ausazko lagin batetik aukeratzen dira ikasleak. Aukeraketa hori burutzeko unean, kontuan hartuko den aldagaia izango delarik adina. Hots, ebaluazioaren hasieran ikasleen adina 15 eta 16 urte bitartekoa izatea³³ bete beharreko derrigorrezko baldintzetako bat izango da; eta beraz, ez da kontuan hartuko, beren eskola-maila.

Egin zen azken probari dagokionez (2018an), mundu osoko milioi bat ikasle inguruk hartu zuten parte. Hona hemen, PISAko orri ofizialean argitaratu zen zerrenda, azken inkesta parte hartu zuten herrialde guztiak adierazten dira bertan:

³² Orden hori mantentzen da. Adibidez, mendearen hasieran egindako probetan, 2000. urtean irakurketa-testak egin ziren, 2003an matematikakoak eta, azkenik, 2006. urtean zientzietakoak (guztiak 3 urteko aldearekin). Gauza bera gertatu zen ebaluazioen bigarren fasean, 2009an (irakurketa), 2012an (matematika) eta 2015ean (zientziak).

³³ Zehazki, 15 urte eta hiru hilabete eta 16 urte eta bi hilabete arteko tartea izatea eskatzen da.

“Albania, Algeria, Argentina, Australia, Austria, Azerbaijan, Belarus, Belgium, Bosnia and Herzegovina, Brazil, Brunei Darussalam, Bulgaria, Cambodia, Canada, Chile, China (People's Republic of), Colombia, Costa Rica, Croatia, Czech Republic, Denmark, Dominican Republic, El Salvador, Estonia, Finland, France, Georgia, Germany, Greece, Guatemala, Hong Kong (China), Iceland, Hungary, India, Indonesia, Ireland, Italy, Jamaica, Japan, Jordan, Kazakhstan, Korea, Kosovo, Kyrgystan, Latvia, Lebanon, Liechtenstein, Lithuania, Luxembourg, Macao (China), Malaysia, Malta, Mauritius, Mexico, Miranda (state of Bolivarian Republic of Venezuela), Moldova (Republic of), Mongolia, Montenegro, Morocco, Netherlands , New Zealand, North Macedonia (Republic of), Norway, Palestinian Authority, Panama, Paraguay, Peru, Philippines, Poland, Qatar, Romania, Russian Federation, Saudi Arabia, Scotland, Serbia, Shanghai-China, Singapore, Slovak Republic, Slovenia, Spain, Sweden, Switzerland, Chinese Taipei, Thailand, Trinidad and Tobago, Tunisia, Turkey, Ukraine, United Arab Emirates, United Kingdom, United States, Uruguay, Uzbekistan, Viet Nam” (OECD, 2019).

Hainbat herrialdetan PISA proba egin ondoren, emaitzak aztertu eta elkarren arteko batez bestekoak alderatzen dira. Horrela, emaitza onak eskuratu dituzten herrialdeak goraipatu egiten ditu probak, herrialde horiek gainerakoentzat jarraitu beharreko eredu bilakatuz. Eta honenbestez, lehiakortasun osasuntsu bati hasiera ematen dio: Alde batetik, kalifikazio baxuagoak dituzten herrialdeek helburu batzuk finkatzen dituzte, hau da, zerrenda horretako lehenak bilakatzea dute xede (eta beraz, beren hezkuntza ereduak hobetzea). Eta bestetik, hezkuntza sistema efektiboena duten herrialdeen kasuan, eskuratutako postuei eta osperei eusteko lehiatzen dira (beren hezkuntza kalitatea bermatuz).

Aurrez azaldu dudanez, ikasleek ezagutzak eta trebetasunak aplikatzeko eta problemak aztertu, interpretatu eta ebazteko duten gaitasuna aztertzen du frogak honek. PISA Proban lortzen diren emaitzak ez dira batzen, hau da, galdetegietatik 3 kalifikazio lortzen dira guztira. Bat matematikako probatik eratorria, beste bat zientzietakoa eta azkena berriz, irakurketaren alorrekoa. Horregatik, emaitzak aztertzean ez da batez besteko bakar bat lortzen, herrialde bakoitzak hiru batezbesteko desberdin lortzen baititu (arloan bakoitzeko bat).

Behin PISA frogaren funtzionamendua ulerturik, galdetegiaren bidez eskuratutako emaitzak gazteen etorkizuneko biziarekin (helduaroarekin) nola erlazionatzen diren jakitea soilik falta zaigu.

PISA programaren emaitzak argitaratzen diren orri horretan bertan, ikasleek lortutako emaitzen eta testetan parte hartu zuten gazteen bizitza helduaren arteko erlazioa deskribatzen da. Orrialdean deskribatzen denaren arabera, herrialde batzuek denboran zehar luzatzen diren ikerketak burutu zituzten. Hau da, luzetarako ikerketak egin zituzten, hala nola, Australiak, Kanadak, Danimarkak eta Suitzak. Halaz, PISAren lehenengo galdera-sortetan parte hartu zuten ikasle gazteen jarraipena egitea erabaki zuten herrialde horiek. Eskuratutako emaitzek ondorengoa adierazten zuten:

PISako probetan kalifikazio hobekak lortu zituzten gazteek 25 urtetik gorako prestakuntza-mailak lortzeko aukera gehiago zituztela ikusi zuten. Era berean, lan merkatutik kanpo geratzeko probabilitate txikiagoa erakusten zuten.

PISA txostenak, aldi berean, honako hau frogatzeko balio du: hezkuntzan dirua inbertitzea, nahiz eta garrantzitsua izan, ez da funtsezkoa emaitza onen lorpenetarako. Kontua ez da gehiago inbertitzea, baizik eta hobeto inbertitzea eta kudeatzea, dauden baliabide guztiei etekina ateratzea. Hala nola, Hego Koreak eta Finlandiak, EBBak baino gutxiago inbertitzen dute hezkuntzan, eta, hala ere, etekin hobekak lortu dituzte.

Bada, PISAren funtzionamendua aztertu ostean, herrialde nordikoekin honakoak duen erlazioa aztertzeko unea iritsi da. Konkretuki, Finlandiari nola eragin dion azalduko dut.

FINLANDIAREN EMAITZAK PISA TXOSTENEAN

PISA programak, eskuratutako emaitzetan oinarrituta (irakurketan, matematikan eta zientzian duen errendimenduaren arabera), herrialdeak (eta hein berean, haien egoera ekonomikoa) sailkatu egiten ditu zerrenda batean. Aurrez azaldu bezala, emaitzak argitaratzeko unean ez dira alor guztiak barnebiltzen dituen puntuazioak ematen; aitzitik, puntuazio bat ematen da gai bakoitzeko (matematika, zientziak eta irakurketa).

Finlandiaren kasuan, munduko hezkuntzarik onena daukala esan arren, hori ez da PISako emaitzek adierazten dutena. Bada, ez du lehenengo postua lortu alor bakar batean ere. Are gehiago, 2018.urtean burututako PISA proban, ikasle finlandiarrek eskuratutako emaitzak bataz bestekoaren gainetik baldin bazeuden ere, ez ziren guztietan onenak: Finlandiako ikasleek irakurketan 520 puntu, matematikan 507 puntu eta zientzian 522 puntu eskuratu zituzten.

Txina herrialdearen ekialdeko eskualdea izan zen zerrendako lehenengo postua eskuratu zuena. Zehazki lau probintzien artean lortu zituzten emaitza horiek: Beijing,

Shanghai, Jiangsu eta Zhejiang. Halaz, 2018.urtean burututako galdetegietan, ikasleek 555 puntu eskuratu zituzten irakurketan, 591 puntu matematiketan eta azkenik, 590 puntu zientzietan.

Eta Txina ez zen izan Finlandiaren aurretik geratu zen herrialde bakarra. Hala nola Singapore, Maccao (Txina) eta Estoniagatik ere gaitutua izan zen hiru arloetan. Izan ere, irakurketaren alorrean 7. postua okupatu zuen Finlandiak, 16.postua matematikaren arloan eta zientzia jakintzei zegokienez, 6.postuan geratu zen.

Egia da, PISA proba aplikatzen hasi zenetik, Finlandia, jarraitu beharreko eredu bilakatu dela. Beti izan da hezkuntza onena duten herrialdeetako zerrenden buru. Are gehiago, hasieratik (zehazki, 2000. urtetik) hezkuntza onenena duten herrialdeen artean kokatu da. Hala ere, herrialde nordikoak, gainbehera nabarmena erakutsi du azken urteetan.

2015eko probatik adibidez, 4 puntuko beherakada erakutsi du Finlandiak. Gainera, puntuazioa mantendu duen materia bakarra matematikak izan dira (hots, irakurketan ez ezik, zientzietan ere postuak galdu ditu). Horri gehitu behar zaio beste herrialde batzuegatik gaitutua izan dela, ez bakarrik alorrei batean, guztietan baizik. Horren adibide bat Estonia litzatekeelarik.

Aurrekoaz gain, aipagarria da ere, irakurketa gaitasuna aztertzerakoan Finlandiar ikasleen artean antzeman daitekeen generoen arteko ezberdintasuna. Finlandiar ikasleen artean, nesken eta mutilen arteko irakurketarako gaitasunaren aldea herrialde parte-hartzaileen artean zabalenetakoa da. Azken PISA proban (2018an), neska-mutilen arteko aldea 51 puntukoa zen, eta parte hartzaileak ziren herrialdeetako batez besteko berriz 30 puntukoa. Hau da, batz bestekotik oso goian topatzen da Finlandia (baina zoritxarrez, honakoa ez harro egoteko moduko postua).

Azaldu berri dudana noski, ez da berri ona. Azken batean, hezkuntza sistema egoki batek, emaitza onak eskuratuko ditu berdintasunez. Berdintasunaren eta kalitatezko hezkuntzaren printzipioei jarraiki, bai neskek bai mutilek, kalitatezko hezkuntza bat izateko eskubidea edukiko lukete inolako arrazoiengatik diskriminatuak izateko arriskurik gabe. Eta beraz, bi generoen artean ezberdintasunak eman daitezkeen arren PISA proben emaitzetan, horiek ez lirateke horren handiak izan beharko. Hots, hezkuntzan akatsak daudenaren seinale litzateke honakoa.

PISA proben bidez eskuratutako emaitzetan behatu ahal izan den beste datu kezagarri bat da, jatorri sozioekonomikoak geroz eta eragin handiagoa daukala

ikasleek eskuratutako emaitzetan. Zehazki, joera ondorengoa izan da: egoera sozioekonomiko on batetatik datozen ikasleen irakurketa inkestetan eskuratutako emaitzak mantendu diren bitartean, jatorri sozioekonomiko baxuetatik datozen ikasleen irakurketa emaitza kaskarren hazkunde bat eman da.

Argi dago PISA proba ez dela herrialde ezberdinen hezkuntza kalitatea neurtzeko eta baloratzeko existitzen den metodo bakarra. Hala ere, nazioartean ospe handiena duen proba da. Eta horri dagokionez, Finlandiako hezkuntza sistema (postu on batean kokatu arren) ez da onena. Ez da nahikoa Finlandiako hezkuntza sistemaren handitasuna adierazteko, azken urteetako gainbehera ez ezik, hainbat akats dituela ere erakusten ari baita.

KONPARAKETA EUSKADIK ESKURATUTAKO EMAITZEKIN

Finlandiak 2018ko PISA probetan lortutako emaitzak aztertu ditudan bezala, konparazio on bat egiteko, orain Euskadin egindako 2018ko ebaluazioari dagozkion emaitzak aztertuko ditut. Kasu honetan, EAEko 127 ikastetxetako 15 urteko 3.710 ikasle inguruk parte hartu zuten PISA probetan.

Egia da, Euskadik eskuratutako emaitzak ez direla izan Finlandiarenak bezain nabarmengarriak. Are gehiago, Euskadiko emaitzak Europako batz bestekoaren inguruan kokatzen diren bitartean, Finlandia batz bestekotik oso goran legoke. Baina hein berean, eta Finlandiak ez bezala, Euskadiko emaitzek azken urteetan hazkunderako joera erakutsi dute. Hona hemen, euskadi.eus weborrian argitaratutako zenbait datu

Arlo zientifikoko galdetegien emaitzek erakutsi dutenez: Euskadik 487 puntu eskuratu ditu 2018 PISA probetan. Eta beraz, 2015eko PISA emaitzarekin alderatuta, 4 puntuz hobetu du bere postua. Euskadik joera positiboa berreskuratu du, eta eskumen horretan bere emaitza hobetu duen Estatuko Autonomia Erkidego bakarra da.

Aurrez aipatu dudan bezala, alor honetan Euskadiren emaitza Europar Batasunean, OCDEn edo Estatu Espainiarrean batez beste lortutako emaitzen antzekoa da. Elkarrekiko dituzten ezberdintasunak aldakuntza-puntu gutxikoak direlarik.

Matematiken ikasgaien berriz, Euskadik 499 puntu lortu zituen guztira. Horrela, bere emaitza 7 puntuz hobetzea lortu zuen 2015eko PISArekin alderatuta. Esparru horretan, Estatu Espainiarreko gainontzeko autonomia-erkidegoekin alderatuz,

hirugarren postua eskuratu zuen matematika-gaitasunetan. Konkretuki, Nafarroaren (503) eta Gaztela eta Leonen (502) atzetik.

Eremu zientifikoan ez bezala, Euskadiko matematikako emaitzek Estatuko eta OCDEko batez bestekoa gainditzen ditu. Hau da, jada ez da batezbestekoan kokatzen. Era berean, emaitza horiek ez daude Finlandiako azken emaitzen oso azpitik. Halaz, Euskadi emaitza onenak eta ekitate handiena duten herrialdeen taldean kokatzen da. Hau da, emaitzarik onenak eta txarrenak lortzen dituztenen arteko aldea beste herrialde batzuetan baino txikiagoa da.

Azkenik, irakurtzeko gaitasunari dagokionez, OCDEk datu horien argitalpena atzeratzea erabaki zuen, bai Espainiakoa, bai autonomia-erkidego guztietakoa; izan ere, erakundeak berak jakinarazi zuenez, zenbait anomalia antzeman zituzten. Laburbilduz, atal honetako emaitzak aztertzea ezinezkoa zaigu. Hala ere, eta beste bi alorretako gorakada ikusi ostean, zentzuduna litzateke 2015eko emaitzekin alderatuta (491 puntu) arlo honetan ere emaitzak argitaratu balira hobekuntza bat behatuko genukeela pentsatzea.

PISA TXOSTENARI KRITIKA

Egia da, hezkuntza kalitatea neurtzeko eta baloratzeko unean, PISA dela fama handiena duen proba. Baina ospetsuena izateak ez du automatikoki ikerketa metodo egokiena bilakatzen. Are gehiago, lan honetan zehar behatu ahal izan ditudan zenbait akats azpimarratu nahi ditut.

Hasteko, gogoan izan ditzagun, Australiak, Kanadak, Danimarkak eta Suitzak burututako ikerketak. Bertan ondorioztatu dudanaren baitan, 15 urterekin PISAko probetan emaitza hobekak eskuratu zituzten ikasleek heziketa eta enplegu emaitza sendoagoak eskuratu zituzten 25 urterekin. Eta emaitza horiek berdina izan dira lau herrialdeetan. Baina ezin ahaztu, emaitza horietan eragina eduki duten bestelako faktoreak ere kontuan hartu behar direla. Azken batean, lotura bat ere badago ikasle baten etxeko egoera sozio-ekonomikoaren eta ikaslearen errendimenduaren artean.

Azken bi faktore horietan barnebilduta geratuko lirateke ere bizi-baldintza materialak eta gurasoen heziketa-maila. Laburbilduz, PISAk ez ditu ikasleen emaitzengan eragina eduki dezaketen faktore guztiak kontuan hartzen. Eta beraz, hezkuntza sistemari egozten dio ikasleen emaitzen meritu guztia, hala izan gabe.

Bestetik, PISAk ez ditu ikasleen irakasgai guztiak ebaluatzen, hiru gaitasun-arlo soilik ikertzen ditu: irakurketa, matematika eta natur zientziak. Proba bakoitza (3 urtean behin egiten dena) gaitasun horietako batean zentratzen da. Eta hor dago nire ustez bigarren arazoa. Ikasleek beste esparru batzuetan dituzten gaitasunak baloratzen ez direnez, ez da hezkuntza sistema oso baten kalitatea ondorioztatzeko proba bat.

Aurrekoa hobeto ulertze aldera hona hemen adibide bat: Demagun, momentu batez, herritar bat mediku-kontsulta batera doala azterketa orokor bat egitera, une hartako bere osasun-egoera zein den jakiteko. Eta medikuak tenperatura eta pultsua hartzea eta belarriei begiratzea erabakitzen duela. Proba horien emaitzak positiboak izateak ez du esan nahi pazientea osasuntsu dagoela eta are gutxiago, inolako arriskurik ez daukala. Izan ere, badira herritarraren osasun egoera baloratzeko gai diren froga gehiago eta hein berean, eraginkorragoak direnak. Zer gertatzen da, adibidez, odol analisiekin? Edota pisugailua erabiltzearekin?

Adibide honen bidez esan nahi dudana da emaitza positiboek hezkuntza sistemak arlo zehatz horietan duen eraginkortasuna froga dezaketela. Baina hori ez da nahikoa sistema osoa baloratzeko. Azken finean, hezkuntzak beste gabezia edo akats batzuk izan ditzake, ikasleei eragiten dietenak eta emaitza horietan islatzen ez direnak.

Gainera, egin diren ikerketak oso mugatuak direla deritzot. Alde batetik, OECD erakundeak arreta handiagoa jarri beharko lieke luzetarako ikerketei (hau da, ikasleek PISAn eskuratutako emaitzek duten erlazioari, horien helduaroarekin), bada, gai horren inguruko ikerketak egiteaz arduratzen ez direlako. Eta bestetik, zenbait herrialdek datuen garapena jarraitu badute ere (Australiak, Kanadak, Danimarkak eta Suitzak adibidez) nahiko eskasak izan direla deritzot.

Azken hauei dagokienez, PISA frogetan eskuratutako emaitzak behatzen dira lehenik, eta gero ikasle horien etorkizuna baloratzen da. PISAren zerrendan postu ona lortu zuten herrialdeetan kalifikazio onak lortu zituzten ikasleen alderdi positiboak itsuki bilatzen dituztela deritzot. Izan ere, ikasle horien helduaroko lorpenen kausatzat jotzen dute ikasle gisa errendimendu ona

Ikerketen helburua zera dela dirudi, hezkuntza arrakasta (nota onen baliokidea) -ren eta helduaroko lorpenen (goi-mailako ikasketak edo lanpostuak) arteko erlazioa frogatzea. Aditzera emanaz, hezkuntza on batek ikasleen helduaroko arrakasta dakarrela. Baina, faktore horiek lotuta badaude ere, ez da kausa-ondorio erlazio bat.

Hau da, helduen lorpenak beste faktore askorekin lotuta egon daitezke. Eta faktore berberak eragin dezakete ikasleak haurtzaroan hezkuntza hobea jasotzeko aukera gehiago izatea edota nota hobeak eskuratzeko aukerak areagotzea.

Hori gertatzen da adibidez egoera sozioekonomiko altuko familietatik eratortzen diren haurrekin. Aukera gehiago daukate eskolako zailtasunei aurre egiteko (besteak beste partikularrak ordainduz eta laguntza gehigarri horren bidez, noten igoera eskuratuz), eta hein berean, etorkizunean, lanpostu gehiagotara aurkezteko aukera eduki ohi dute (dela kontaktu gehiago dauzkatelako, dela lanpostuko ezaugarrietara egokitzeko erraztasun gehiago dituztelako). Lotura handia izan dezake ere, Etiketatzearen Teoriarekin³⁴ adibidez.

Ondorioz, ikasle horiek etorkizun ona izatera bideratuta daude. Baina horrek ez du esan nahi herrialde horretako hezkuntza ona denik. Ezta ikasleen arrakastaren kausa hezkuntza denik (lagungarria izan daiteke, baina noski, arau orokor gisa ez da kausa). Aitzitik, ikaslearen ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartuta, helduaroan arrakasta izateko probabilitatea handitu egiten da.

PISA probaren kritikarekin amaitzen joateko, haren eraginkortasuna neurtzeko burutu diren zenbait ikerketa aipatu nahiko nituzke. Konkrétuki, Heiner Rindermann psikologo eta ikertzaile alemaniarrek burututako ikerketa bateko emaitzez hitz egin nahi dut. Bere lanean (2007), *The g-Factor of International Cognitive Ability Comparisons: The Homogeneity of Results in PISA, TIMSS, PIRLS and IQ-Tests Across Nations* izenekoan, PISA ez ezik beste zenbait proba mota ere aztertu zituen.

Ikerketan zehar, Rindermannek etengabe konparatzen ditu PISA azterketak adimen-koizenteko azterketekin (IQ edo KI). Hori ikus daiteke, adibidez, psikologoak aipatzen duenean aplikatutako formulatiko batek 15 KI puntu kentzen zituenean, PISAren 100 puntu kentzea bezalakoa zela. Edo ikasleak 12 KI baino gehiago zituenean 80 PISA baino gehiago eskuratzearen parekoa zela.

Bi proben arteko konparaketa hori egiten du egileak, ondorengo arrazoia: bi testek eskolako ezagutza eta horren aplikazioa neurri txiki batean bakarrik ebaluatzen dituzte. Hau da, PISA azterketetan agertzen diren item gehienak eskola-curriculumaren

³⁴ **Etiketatzearen Teoria:** Desbideraketa-identitateak (eta beraz, delitugileak) etiketen bidez, hau da, estigmen ondorioz sortzen dira. Estigma horien sorkuntzan bi elementu izango dira ezinbestekoak: (1) Besteek zugarako duten irudiaren eta (2) Etiketatik eratorritako autopertzepzioaren ondorio litzateke identitate desbideratua. Gizarte-erakundeek gainera (eskolek adibidez) etiketak areagotu eta “desbideratzearen ikasketa” sustatzen dute. Etiketa horiek, hezkuntzaren eremuan, izan daitezke positiboak (ikasle azkarraren etiketa eskuratu dezake adingabeak).

ezagutzarik gabe ondoriozta daitezke. Horregatik, PISAren probetan lortutako emaitzak gehiago izan daitezke herrialdeen batez besteko KIn dauden ezberdintasunengatik, haien hezkuntza sistemen eraginkortasunagatik baino. Eta jakina, gizakien Ika kalkulatzeko unean eskolatzearekin zerikusirik ez duten bestelako hainbat faktore sartzen dira jokoan, hala nola genetika, jaio aurreko zaintza eta haurtzaroko elikadura.

Ondorioz, ikusitakoa ikusita, ez dut uste PISA proba eraginkorra denik herrialde bakoitzeko hezkuntza sistemaren eraginkortasuna kalkulatzeko. Hala ere, eta aipatu dudan bezala, PISA frogaren ezagunena den arren, ez da bakarra. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lanarekin aurrera egin aurretik, gutxienez frogaren bat gehiago aztertzea beharrezkoa iruditzen zait, Finlandiaren hezkuntza sistemen gailentasuna aztertu nahi baldin badut.

TIMSS TXOSTENA

Ikerketa askoren bidez azaldu daiteke Finlandiaren hezkuntza sistemen fama ona. Eta PISA frogaren horien artean famatuena den arren, ez da bakarra. Hona hemen, nazioarte mailan Finlandia goraipatzen duen beste frogaren bat: TIMSS proba.

Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarteak (International Association for the Evaluation of Educational Achievement³⁵ ingelesez) sustatua, Matematika eta Zientzietako Joeren Nazioarteko Azterlana (Trends in International Mathematics and Science Study³⁶) arlo zientifiko-matematikoko gaitasun kognitiboen ebaluazioan zentratzen den ikerketa da. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorren Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen gaitasunak aztertzeaz arduratzen da 1995. urteaz geroztik.

Finlandiak probetan parte hartu duen urteetan, ikasleek matematika eta zientzietan ondo aritzen direla erakutsi dute. Hala ere, eta emaitzak nahiko positiboak izan arren, proba hauetan PISA probetan behatu ditudan joera berberak ikusi ahal izan dira.

2019an egindako TIMSS proban adibidez, ikasleen matematika eta zientzietako jarduna 2015. urtean burututako TIMSS proban eskuratutako emaitzen antzekoa izan zen gutxi gorabehera. Alabaina 2011. urtean eskuratutako emaitzekin alderatuta, nabarmenki egin dute beheraka.

³⁵ IEA

³⁶ TIMSS

2019an, finlandiarrek batez beste 509 puntu lortu zituzten matematikaren arloan, eta zientzietan 543 puntu. Aurreko urteetan lortutako emaitzekin alderatuta, zientzietan 9 puntu gutxiago lortu zituzten (TIMSS 2011). Matematikaren arloan ere 5 puntuko murrizketa ikusi zen, baina hori ez zen estatistikoki esanguratsua izan.

Hori gutxi balitz, nahiz eta Finlandia proba horietan kalifikazio onenak dituzten herrialdeen artean egon, hainbat herrialdek gainditzen dute. Matematiketan, Finlandiak hamalagarren eta hamargarren postuak lortu zituen (ikasleak ikasten ari ziren mailaren baitan). Nazioarteko emaitzekin konparatuz gero, Finlandiak bosgarren postua lortu zuen Singapur, Japonia eta Korearen ondoren. Are gehiago, ikastaroaren arabera, Errusia eta Taiwan herrialdeengandik ere gainditua izan zen.

Azkenik, 2019ko TIMSS probetan beste fenomeno bat pertzibitu ahal izan da. Nolabait, ikasleen trebetasunen arteko aldeak handitzen ari dela ikus daiteke. Hau da, emaitzek erakusten dutenez, errendimendu txikiko ikasleen jarduera-maila aurreko urteetako baino baxuagokoa da, eta errendimendu hobekoek, berriz, lehen baino puntuazio handixeagoak lortu dituzte.

Laburbilduz, Finlandiak ez du gizarteak uste bezain emaitza onik lortzen. Eta hori, TIMSS probetan eskuratutako emaitzetan ez ezik, PISA probetan eskuratutako emaitzetan ere antzeman zitekeen.

Gainera, TIMSS probaren ezaugarriak direla eta, honakoa ez da herrialde bateko hezkuntza sistemaren kalitatea neurtzeko ikerketa motarik egokiena. Azken batean, PISAk gutxienez irakurketa, matematika eta zientziak aztertzen bazituen ere, TIMSS probetan matematika eta zientziaren alorrak soilik hartzen dira kontutan. Halaz, PISA probak ez badira egokiak, TIMSS probak are eta gutxiago.

FINLANDIAKO HEZKUNTZA SISTEMARI KRITIKA

Orain arte ikusitakoaren laburpen gisa ondorengoa esan dezaket: Europa Iparraldeko herrialdeen artean, Finlandia nabarmentzen da bere hezkuntza sistemagatik. Gaur egun, Europako herrialdeentzat eredu izateaz gain, mundu mailan ere ospe handia dauka. Baina zer dela eta dator arrakasta hori? Eta benetakoa al da?

Hainbat ikerketa egin dira herrialde desberdinetako hezkuntza sistemen eraginkortasuna kalkulatu ahal izateko. Proba garrantzitsuenen artean, PISArena dago

(baina ez da bakarra, gogoratu adibidez TIMSS proba). Baina, gainerako frogak baino ospe handiagoa duen arren, bi gatazkarekin topatzen gara:

1. Finlandia geroz eta emaitza kaskarragoak eskuratzen ari da. Ondorioz, gaur egun ez dago PISAren zerrendetako lehen postuan. Ez eta bigarrengoan ere.
2. Proba horiek ez dira egokiak hezkuntza sistema baten kalitatea zehazteko. Izan ere, PISAk ez ditu ikastetxeetan irakasten diren alderdi guztiak baloratzen. Eta emaitzak lotura handiagoa dute herrialde bakoitzeko biztanleen IKren batez bestekoarekin.

Horri gehitu behar zaio Finlandiak ez duela gainontzeko hezkuntzengandik horren desberdina den sistemarik aplikatzen. Hau da, ondo saltzen den irudi bat proiektatzen badu ere (ez dute etxeko lanik, eta ordu gutxiago dituzte), praktikan, aldea ez da hain nabarmena.

Komunikabideek Finlandiari ezarri dioten maskara kendu ostean, orain egiaztatu behar da ea benetan, kriminologiaren ikuspegitik, kalitate oneko hezkuntza eskaintzeko gai den herrialdea. Hau da, eta aurrez aurrerapen bat egin dudan bezala, ez naiz emaitza akademiko onak eskuratzeaz mintzo. Eta beraz, ikasleek lortzen dituzten noten bataz bestekoa altua izatea ez dut arrakasta gisa definituko.

Ikuspegi kriminologikotik, Finlandian erabiltzen den hezkuntza-metodoa gainontzekoena baino hobetagoa balitz, gainerako herrialdeek baino kriminalitate tasa baxuagoak izan beharko lituzke. Horren arrazoia da hezkuntza on batek, murriztu egiten duela ikasleak etorkizunean gaizkile nahiz biktima bihurtzeko probabilitatea. Gogora dezagun adibidez teoria ekonomikoak dioena (hezkuntza on batek gazteei soldata handiagoa duten lanpostu horietara iristea errazten die, eta, ondorioz, krimenarengatiko desiragarritasun ekonomikoa desagertu egiten da).

Baina zein da Finlandiaren errealitatea kriminalitateari dagokionez? Euskadiko³⁷ kriminalitate tasekin alderatuta ba al dago desberdintasunik? Desberdintasun hori handia da?

Nahiz eta kriminalitateari buruzko datuak ezin diren herrialde bateko hezkuntza-kalitatearen bidez bakarrik azaldu, gutxienez delituaren inguruko datuetan hezkuntzaren eragina islatu egin beharko litzatekeela deritzot. Eta pertsonalki, Finlandiaren hezkuntza sistemaren eragina islatzen ez dela esatera ausartzen naiz.

³⁷ Euskadi aipatu arren, Estatu Espainiarreko delitu tasetaz ere hitz egingo dut. Azken batean, lurralde mugak ez dira delitugintzarako oztopo.

Hori guztia frogatu ahal izateko, *Statista* izeneko web orrialdera jo dut. Eta bertan, 2018ko datuei erreparatu diet. Egia da pandemia aurreko datuak direla honakoak, baina gogoan izan dezagun, pandemiarik gabeko gizarte batentzako diseinatutako hezkuntza sistema dela gaur egun ere aplikatzen dena³⁸. Gainera, iada “normalitatera” itzultzen hasiak gara.

Hortaz, Europar Batasunean erregistratutako delituen inguruko datuak aztertzeari ekin diot. Tauletan aurkeztutako zifra bakoitza biztanleria-kopuru bati dagokio (jokabide deliktiboen batura osoa, 100.000 biztanlez zatikatzen da kasu honetan, eta horrek adierazi nahi du 100.000 biztanleko zenbat kasu gertatu diren). Neurri erlatiboak erabiltzeak egoera alderatzea ahalbidetzen du, bertan zenbat pertsona bizi diren kontuan hartu gabe.

Beraz, herrialde bateko biztanle kopuruak ez du eraginik izango kriminalitate tasetan. Bestela esanda, demografia ez da aitzakia delitu ekintza bat justifikatzeko orduan. Hein berean, herrialdearen eta delitu motaren arabera ere bereiztu dira datu horiek. Horretaz, ondorengo taularen bidez adierazitako datuak eskuratu ditut³⁹:

Característica	Homicidio	Intento de homicidio	Agresión	Secuestro	Violencia sexual	Asalto	Robo en domicilio	Hurto	Acciones ilegales relacionadas con la manipulación de sustancias ilícitas
Alemania	0,76	2,33	165,14	5,51	49,02	44,4	394,25	1.307,46	423,54
Austria	0,83	1,48	42,06	0,06	50,16	27,16	664,65	1.276,46	465,23
Bélgica	1,55	8,9	553,95	0	68,39	142,8	614,52	1.914,65	509,82
Bulgaria	1,3	0,65	35,72	0,89	8,16	17,94	108,71	523,71	78,52
Chipre	1,62	0,93	15,27	0,46	3,36	8,45	144,64	82,85	132,14
Croacia	0,58	2,19	17,85	0	13,18	18,97	265,64	279,65	55,39
Dinamarca	0,93	3,62	32,12	0	95,83	31,46	949,08	3.162,31	521,86
Eslovaquia	1,23	0	29,34	1,69	12,25	8,73	83,21	332,13	28,9
Eslovenia	0,48	2,23	74,7	0,29	17,08	12,77	405,83	948,92	73,06
España	0,62	1,78	39,2	0,17	24,89	129,23	323,34	360,5	30,29
Estonia	1,9	1,36	6,82	0	22,44	0	0	561,2	341,51
Finlandia	1,63	6,44	29,18	0,07	64,16	0	386,1	1.957,82	529,21
Francia	1,16	4,05	0	0	73,82	0	0	0	345,07

Statista Research Department. (2020). *Número de delitos registrados en la Unión Europea por cada 100.000 habitantes en 2018, por país y tipo de delito* [JPG]. es.statista.com.

³⁸ Pandemiáz geroztik hartu diren neurriak iragankorrek izan baitira, berriz ere “normalitatera” itzultzea gogoan izan dugularik.

³⁹ Taula horretan zerrendatutako herrialdeak ez dira guztiak. Hots, Europako bestelako herrialdeen inguruko datu gehiago ere badaude. Halere, Finlandia eta Espainiako datuak direnez garrantzitsuak, atal hori soilik erakustearekin aski dela uste dut.

<https://es.statista.com/estadisticas/609649/numero-de-delitos-registrados-en-los-paises-de-la-union-europea/>

Goiko taulan zerrendatutako delitu gehienetan ikus daitekeenez (Giza hilketa, giza hilketa saiakera, sexu-indarkeria, etxeko lapurretak, ebasketa eta legez kanpoko ekintzak, legez kanpoko substantziak manipulatzearekin lotuta), Finlandiak Espainia gainditzen du kantitatean. Izan ere, 3 baino ez dira Espainia Finlandiaren gainetik dagoen delitu-tipoak (agresioa, bahiketa eta eraso).

Aurrekoa gutxi balitz, zenbakizko aldeak urriak dira Espainiak Finlandia gainditzen duen kasu gehienetan (10,02ko aldea erasoetan eta 0,1ekoa bahiketetan). Aldiz, ez da hain txikia Finlandiako kriminalitate tasak, Espainiakoeekin alderatuta, handiagoak direnean (39,27ko aldea sexu-indarkerian, 62,76koa etxeko lapurretan, 1.597,32koa ebasketetan eta azkenik, 498,92koa legez kanpoko substantziak manipulatzearekin lotutako delituetan).

Gainera, datu horietatik ondoriozta daiteke Finlandiak Espainia gainditzen duela kopuruan ez ezik, larritasunari dagokionez ere. Bestela esanda, delitu-tasa larrienak Finlandian gehiago ematen dira Espainian baino. Izan ere, delitu tipo larrienak (hilketak eta hilketa saiakerak) gehiago ematen dira herrialde nordikoan.

Finlandiako hezkuntza sistemaren kalitatea zehazteko egindako probetan (PISA eta TIMSS txostenetan besteak beste), puntuazio onak lortu baditu ere, Finlandiako hezkuntza benetan hain eraginkorra balitz (ikuspegi kriminologikotik), ez litzateke hainbeste delitu gertatuko. Hau da, datu horiek hezkuntza sistemarekin lotuz gero, badirudi Finlandiako hezkuntzak ez duela eraginik kriminalitatearen inhibizioan.

Are gehiago, ebasketen nahiz etxeko lapurreten tasak bereziki oso altuak dira (Espainiarekin alderatzen ditugun edo ez alde batera utzita). Teoria ekonomikoaren ikuspuntutik horrek ez dauka inolako zentzurik. Azken batean suposatzen da, Finlandiako hezkuntza sistemaren kalitatea irudikatzen duten bezain ona bada kriminalitatea inhibitu beharko lukeela, bereziki onura ekonomikoarekin zerikusia duen delitu tipoak. Baina ikusten da hori ez dela kasua. Horregatik, esan dezakegu ez dela bere funtzioa betetzen ari.

EGUNGO HEZKUNTZA SISTEMAREN GABEZIAK ETA HORIEI AURRE EGITEKO PROPOSAMENAK

Hezkuntzak, oro har, baina batez ere derrigorrezkoak (hau da, HH, LH eta DBH) pertsonen heltze-etaparen⁴⁰ zati handi bat osatzen du. Oso fase delikatua da, belaunaldi berriak helduarorako prestatzeaz arduratzen baita. Are gehiago, bizitza osoan zehar subjektuari laguntzen dioten oinarriak finkatzen direlako bertan. Era berean, eguneroko bizitzako aspektu ia guztietan edukiko du eragina hezkuntzak, hala nola gazteak gizartean integratzeko unean⁴¹, erabakiak hartzean eta norberaren autonomian.

Beste era batera esanda, ezin da alde batera utzi hezkuntza sistemak gazteengan duen eragina. Justu kontrakoa, arreta handia jarri behar zaion prozesu bat da. Alabaina, niri ez zait EAeko hezkuntza sistemaren eragina orokorrean aztertzea interesatzen. Horren ordez, hezkuntzak gazteengan duen inpaktua kriminalitatearen ikuspuntutik aztertu nahi dut.

Lan honen hasieran adierazi dudan bezala, hezkuntza oso lagungarria izan daiteke kriminalitate tasak kontrolatu nahiz murrizteko unean. Alabaina, eta proiektuan zehar sarritan azpimarratu dudanari jarraiki, egungo EAeko hezkuntza ez da funtzio hori betetzen ari. Laburbilduz, euskal hezkuntzak kriminalitatearen ehuneko murriztu ordez, areagotzea eragiten du zenbait kasutan. Zehazki, delitugile potentzialen kopurua handitzeaz gain, biktima posibleen zenbatekoak ere areagotu egin ditu.

Badaezpada argitu behar dut, ez dudala uste gaur egungo hezkuntzak automatikoki delinkuentzia areagotzen duenik. Ez dut uste alferrekoa denik ere. Horren ordez, euskal gizarteari ikusarazi nahi diot gaur egungo euskal hezkuntza gaizki antolatuta dagoela. Hau da, akatsak/hutsuneak dituela, eta, beraz, porrot egiten ari dela bete behar dituen helburuak lortzeko unean. Noski, kriminologiaren ikuspegitik helburu hori, delinkuentzia prebenitzea litzateke.

Atal honetan zehar, topatu, behatu, nahiz antzeman ahal izan ditudan akats nahiz hutsune horiek zeintzuk diren identifikatuko ditut. Halaz, banan-banan aztertzeari

⁴⁰ Heltze-etapaz hitz egitean, gaztelerazko “madurar” kontzeptuaz mintzo naiz.

⁴¹ Kontuan izan behar da, gizarteratzeko lehenengo urratsak hezkuntza sistemaren bidez ematen dituela gizartearen gehiengoak. Izan ere, familiako kideak ez diren pertsonekin (irakasle nahiz ikaskideekin) lehenengo aldiz kontaktua izaten hasten da haurra. Euskal Herrian gainera, “kuadrillaren” fenomeno existitzen da. Hau da, bizitza guztiko lagun taldea. Eta bizitza guztikoa dela esatean, umetatik ezagutzen direla esan nahi da. Laburbilduz, nagusiki eskolan ezagutzen diren lagunak izango dira etorkizunean kuadrila osatuko dutenak.

ekingo diot, oster, hobekuntza posibleak proposatu ahal izateko. Esan berri dudana egin ahal izateko modurik egokiena hezkuntza alor ezberdinetan banatzea litzatekeela deritzot, eta beraz, horrela egin dut:

Hasteko **ikasgaien eskaintza** aztertuko dut. Hasierako arlo honetan zehar nire asmoa ez da izango, inongo momentutan, egun irakasten diren ikasgaien egokitasuna kritikatzeko. Hau da, ez da nire ardura izango irakasten diren ikasgaiak egokiak diren nahiz ez erabakitzea. Baizik eta, bestelako ikasketa batzuen beharra azpimarratzea izango da nire lana (irakasten ez diren eta irakatsi beharko liratekeela uste dudak jakintzagaiak begi bistan jartzea).

Argi utzi nahi dut ere, egun irakasten diren ikasgaien egokitasuna ez kritikatzeko, ez duela esan nahi, proposatuko ditudan jakintza berriekiko balio bera dutela uste dudarik. Hau da, gazteen formakuntza egokia eskuratzeko bidean, ziur nago gerora burutuko ditudan nire proposamenek, egungo derrigorrezko zenbait irakasgaiak baino premia gehiago dutela. Eta beraz, hezkuntza sistemara txertatzea ezinbestekoa dela (horrek beste ikasgaiak ezabatzea dakarren ala ez alde batera utzita).

Bigarrenik, hezkuntza sisteman parte hartzen duten **interaktzaileak** aztertuko ditut. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen ikastetxe baten antolaketan parte hartzen duten subjektu guztiak: Zuzendaritza-taldea / irakasleen klaustroa / tutorea / gurasoen elkarte / irakasle ez diren langileak / ordezkari-taldea / organo gorena (OMR) edo Eskola Kontseilua⁴².

Bigarren atal hau lantzeko unean, fokua nagusiki, irakasleengan jarriko dut. Izan ere, interaktzaile guztiek ikasleei zuzenean edo zeharka eragiten badiete ere, irakasleak dira ikasleekin harreman zuzena eta estuena dutena. Azken batean, beraiekin igarotzen dute denbora gehien.

Irakasleen kasuan, bi izango dira bereziki landuko ditudan alorrak: (1) Beren irakasteko metodologia eta (2) irakasle izateko jasotzen duten formakuntza. Aurreko puntuetan ez bezala, irakasleek hitz egiterakoan, akatsetan jarriko dut arreta. Ez naiz mugatuko hutsune eta "akatsak" direla esatera. Aitzitik, argi eta garbi antzeman ahal izan baitut ERROREAK direla. Alabaina, guzti honen zergatia ere, beranduago azalduko dut.

⁴²Hona hemen aipatutako kontzeptu bakoitzaren itzulpena: Equipo directivo / Claustro de profesores/as / Tutor/a / Asociación de padres y madres / Personal no docente / Órgano máximo de representación (OMR) o Consejo Escolar.

Irakasleen parte hartzeaz ez ezik, tutoreen⁴³ eskuhartzeaz ere hitz egingo dut atal honetan. Baina ez naiz mintzatuko beraiei dagokien etxeko heziketaz. Baizik eta, ikastetxeetan/ekin elkar eragiten duten eragile gisa aztertuko ditut.

Bestalde, ikastetxeei eskaintzen zaien **giza** bai eta **material baliabideei** buruz mintzatuko naiz. Nerabeei zerbitzu egoki bat emateko eta ondorioz, kriminalitate tasak gutxitzeko ezinbestekoa zaien zerbitzuaz ari naiz. Ziur nagoelako, egokitasun hori bermatzen ez dela.

Hori bai, ez naiz aurrekontuen gaian sartuko. Legedian aztertu dudanari jarraiki, aurrekontuen inguruko proposamenak burutzea ikastetxe bakoitzari dagokion erabakia delakoan nago. Horiek direlako gertuko testuinguruaren arabera eskaera egokiena burutzeko prestatuenak daudenak. Hots, zentro bakoitzaren egoera indibiduala ezagutzen ez dudanez, erabaki hori ez dagokit niri.

Azkenik, **ikasleak** aztertuko ditudala esan behar dut. Konkretuki, ikasle-taldearen ezaugarriak behatuko ditut. Eta horien antolakuntzaren inguruko zenbait “feedback” aurkeztuko ditut.

Sarrera moduko honi amaiera ematen joateko, lan hau egiterakoan elkarrizketa batzuk egitea erabaki dudala esan behar dut. Zehazki, hezkuntzaren esparruarekin erlazio estua duen jendeari zenbait galdera egitea ideia ona izan litekeela iruditu zait. Hori guztia errealitatea hobeto ezagutzeko eta, aldi berean, beren ikuspuntua ere partekatzeko. Hori dela eta, atal honetan zehar elkarrizketatu ditudan pertsonen eskainitako ikuspuntuak eta datuak txertatzen joango naiz.

ELKARRIZKETEN INGURUAN

Datuak lortzeko orduan, iruditu zait **elkarrizketak** egitea zela metodorik eraginkorrena. Bada, eskuratu nahi izan ditudan datuen nolakotasuna kontuan hartuta (ez dira datu kuantitatiboak, kualitatiboak baizik) aukerarik onena izan delakoan nago. Gainera, galdetegiak egitea oso zaila izan zitekeela aurreikusi dut, azken batean, elkarrizketatu bakoitzarekin arlo ezberdinak landu nahi nituela erabaki dut. Eta beraz, lagin guztiari aplikagarri zaizkion itemak diseinatzea horren eraginkorra ez litzatekeelakoan nago.

Behin elkarrizketak egingo nituela erabakitakoan, hura diseinatzea izan da hurrengo erronka. Izan ere, mota askotakoak izan daitezke: Fokalizatutako elkarrizketa,

⁴³ Tutore, adingabeen tutelaren jabe diren helduak. Orokorrean gurasoak izan daitezkeen arren, beti ez dira honakoak izango. Hori dela eta, “guraso” hitza erabili ordez, “tutore” kontzeptuaren erabilera egokiagoa da.

Estandarizatutako elkarrizketa ez egituratua, Ez estandarizatu edota Espezializatutako elkarrizketa.

Kasu honetan berriz, aukerarik onena **Estandarizatutako elkarrizketa erdi-egituratua** egitea zela erabaki dut. Azken batean, teknika honetan, jorratu beharreko gaien gaineko kontrol handia dago, zehazki, elkarrizketa-gidoi batean oinarrituta. Horrek, zalantzarik gabe, komunikazio-askatasuna mugatzen du, baina hein berean, lortutako informazioa ikerketa-helburuekin lotzen laguntzen du.

Diseinua burutu ostean, elkarrizketatu ditugun subjektuak hautatzeari ekin diot. Horretarako, **zorizkoa Ez den laginketaren** teknikaz baliatu gara. Konkretuki, **laginketa intentzioduna (adituek egindako hautapena** izenez ere ezaguna) metodoaren bidez eskuratu ditugu elkarrizketatuak. Lagina oso txikia den kasuetan zorizko hautaketa baino egokiagoa baita eta nire kasuan 3 pertsona soilik elkarrizketatu nahi nituenenez, honakoa egokiena izan dela deritzot.

Honela funtzionatzen du metodo horrek: Laginketa unitateen hautaketa, ikertzailearen nahiz aditu baten (hots, ni nintzateke ikertzailea kasu honetan) aurretiko ezagutzan, esperientzian edota iritzian oinarrituta hautatzen dira sujetuak.

Metodo hori kasu honetara aplikatuz, eta adingabeak elkarrizketatzeko zailtasuna dela eta (gaitasun kritikoa ez baita erabat garatuta, baimen bereziak beharko nituzkeelako eta gainera, hezkuntzaren etapa guztiak ez dituztenez amaitu), onena ikasle izan gabe hezkuntzarekin lotura estua duen jendea elkarrizketatzea dela erabaki dut. Aldi berean, ikuspuntu kritikoa zuen jendea izatea beharrezko aldagaia izan da lagina hautatzeko unean.

Halaz, elkarrizketatu ditudan **hiru pertsonak**⁴⁴ ondorengoak izan dira:

Irakaskuntzan 30 urte daramatzan heziketa bereziko hezitzaile bat (hemendik aurrera, zitatzerakoan “1.elkarrizketatua” gisa identifikatuko dut, anonimotasuna bermatze aldera). Lan munduan sartu zen lehen urteetan eskola askotatik igaro zen, maila ezberdinetako ikasleekin lana eginez (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere) eta halaz, esperientzia eskuratuz. Oposaketak gainditu ostean berriz, printzipioz, eskola berdinean mantendu da.

Haur hezkuntzako ikasketak burutzen ari den ikasle bat ere elkarrizketatu dut (“2.elkarrizketatua” gisa izendatuko dut honakoa). Konkretuki, orain arte ikasle bezala

⁴⁴ Elkarrizketatuen intimitatea bermatzeko asmoz, ez dut beren identitatea argitaratuko. Hori dela eta, beren generoa nahiz adin tartea aipatu arren, inongo momentutan ez dut beren izen abizenik aipatuko.

jardun dena, eta orain berriz, hezkuntza sisteman hezitzaile bezala lanean hasteko prestatzen ari den neska gazte bat, 21 urtekoa.

Eta azkenik irakasle bat ("3.elkarrizketatua" deituko diot honako honi). Bere burua aurkezterakoan azaldu zuenez, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da bera eta honakoa bere 3.urtea da magisteritzan. Aurretik psikologian eta kriminologian irakasle lanetan ere aritu da. Eta bere lehenengo urteetan, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aholkulari gisa ere aritu zen Nafarroako eskola ezberdinetan.

Elkarrizketatuei burututako galderak, batez ere, hezkuntza-esparruan izandako beren esperientziei eta egungo ereduari buruzko ikuspegiari buruzkoak izan dira. Guzti hori ikuspuntu kritiko batetatik lantzeko eskatu zaie, halaz, eguneroko jardunean hautematen dituzten akatsak eta bideragarri ikusten dituzten konponbideak aipatuz.

IKASGAI ESKAINTZA

Behin elkarrizketen nondik norakoa argituta, EAEn dagoen irakasgai eskaintza kritikatzearekin hasiko naiz. Halere, oinarrizko hezkuntzan irakasten diren ikasgaietan behatu ditudan akats eta absentzia guztiak nabarmendu aurretik, zenbait kontzeptu argitu behar ditut.

Atal honetan aztertu nahi ditudan alderdiak guztira 3 direla esan behar dut. Alde batetik, irakasgai bakoitzean ematen den gai-zerrenda, hau da, irakasgaietan lantzen dena, edo, hobeto esanda, ematen ez dena (eta noski, irakatsi beharko litzatekeena). Bestalde, irakasgai bakoitzaren ikasketetan ikasleek inbertitzen duten denbora kopurua. Eta, azkenik, irakasgai horien hierarkia (ziur bainago irakasgai guztiek ez dutela balio/eragin bera gazteengan). Hori argituta, has gaitezen.

DBH amaitu ahala, garai estresagarri samarra hasten da nerabeentzat. Gazte askok lehen aldiz planteatzen dute zer den onena beren etorkizunerako, zer egin beharko luketen, ikasi edo lan munduan sartu, eta garrantzitsuena, zer baloratzen den gehien hautaketa-prozesu batean.

Askotan, etaparik zailena hasiera izaten da: zer egin nahi duzun erabakitzea, gure bizitzaren parte izango dena betiko. Lehenik eta behin, bizitzak buelta asko ematen dituela pentsatu behar da, eta erabaki garrantzitsua bada ere ez da aldaezina, hots, huts egiteko esparru bat badago. Hala ere, hain lehiakorra den gizarte honetan,

gustuko ez duzun hautaketa bat egitea zure bizitzako urtebete galtzearen parekoa da. Edo, behintzat, horrela hautematen da.

Estresa eta erabakiak hartzeko beharra ez dira azken urteko (DBHko 4.maila) ezaugarriak soilik. Aitzitik, hezkuntza etaparen hasieratik (hau da, DBHko 1.mailatik ez ezik, baita lehen hezkuntzatik ere), gazteei argi uzten zaie helduarorako prestatzen ari direla. Hautazko ikasgaien artean hautapenak egitera behartuak izaten dira, etorkizunean egin nahi dituzten ikastaroen arabera. Eta izugarri aldatzen da ere, besteak beste, irakasgaien edukia, ordutegia eta irakasleek ikasleari ematen dioten tratua.

Niri dagokidanez, nahiko argi utzi dut honako hau: ikasleek beren etorkizunari eta bizitzari buruzko erabakiak hartzeari buruz erantzukizun berria hartzen badute ere (ordura arte erabaki guztiez tutoreak zein irakasleak arduratzen baitziren), hezkuntza sistemak berak ez die aukera on bat egiteko ondo prestatzen uzten. Nola da posible, etorkizuneko bizitza osoan eragina izan dezaketen eragileen inguruko erabakiak hartzera bultzatzea nerabea, helduarorako ere ondo prestatzen ez dituztenean.

Eta horixe da, hain zuzen, pasarte honetan ikertu nahi dudana. EZ! Nerabeek ez dute heldutasun errealistarako gaitasunik. Egia bada goi mailako ikasketak egiteko prestatuak direla egungo hezkuntza sistemaren bidez. Baina hori eta helduarorako prest egotea ez dira gauza bera. Eta aipatu berri dudana frogatzeko ebidentziarik astunena da, euskal ikasleei irakasten zaizkien irakasgaien zerrenda.

Are gehiago, bat egiten dut, legedian aztertu dudana aginduetako batek dioenarekin: *“aukerazko ikasgai gehiegi dira, horietako batzuk ez dirudite benetan baliagarriak eta gainera ez dute zerikusirik handirik ikasleei benetan interesatzen zaienarekin”* (Agindua, 2001 -DBHko arautegia 7-).

Nire asmoa ez da adibidez matematikaren garrantzia kritikatzeko edo gutxiestea. Horren ordean, proiektu hau irakurtzen dutenak herritarren oinarrizko heziketan dagoen zulo beltzaz jabetzea nahi dut.

Lehenik eta behin, **Giza Eskubideak** irakatsiko dituen irakasgai bat sartzeko beharra aipatuko dut. Hau da, ikasleek jakin beharko lukete zer eskubide dituzten gizaki eta herritar gisa. Modu berean, hauen mugak zeintzuk diren eta, beraz, noraino ekin dezaketen edo ez jakin beharko lukete.

Oinarrizkoa iruditzen zaidan arren, ikasleei ez zaie horren berri ematen. Kontuan izan behar da, legea ez ezagutzea ez dela aitzakia legea ez betetzeko, baina bai adierazi

dezakeela herritarrak ez gozatzea bere osotasunean dituen eskubideez. Giza eskubideak gure gizarteko bizitzaren oinarria dira, eta indarrean daude nahiz eta ez ditugun uneoro nabaritzen. Gure eskubideak ondo ezagutzean, badakigu zer egin dezakegun eta zer ezin dezakegun egin, eta badakigu, halaber, zer egin dezaketen eta zer ezin diezaguketuen besteek.

Are gehiago, gure eskubideak aitortuak izateak tresna bat ematen digute agintarien aurrean jarduteko eta gure eskubideak urratuzten dituztenentzako zigorrak exijitzeko, baita erreparazio edo kalte-ordain bat eskatzeko ere. Beraz, erkidegoak ez ezik, estatuak berak bermatzen ditu eskubideak; izan ere, legedian (nagusiki konstituzioan) jasota daudenez, mekanismoak daude eskubide horiek gorde eta babesteko.

Hala ere, mekanismo horiek, gehienetan, biktimak aktibatu behar ditu. Biktimak egiten ez badu, ez da bere eskubidea babesteko. Gure eskubideak eta horiek babesteko mekanismoak ezagutzea ezinbestekoa da eskubide horiek benetan baliatzeko. Eta horretarako ez da beharrezkoa legeak ikastea, ez da prozedura zehatz-mehatz jakin behar. Baizik eta aski da bide hori badagoela jakitearekin, hots, eskubidea eta hura babesteko tresnak daudela jakitea.

Eta horixe da, hain zuzen ere, egungo hezkuntzak izan beharko lukeen helburuetako bat.

Kontuan izan behar dugu eskolatutako adingabeak ere eskubideak dituela. Adinez nagusi batekiko duen alde bakarra da adingabea ez dela eskubide osoko herritarra.

Jarraitu aurretik, bi kontzeptu argitu behar dira:

- (1) ADINGABETASUNA pertsona fisikoaren egoera zibila da, bizirik jaiotzen den unetik (amaren sabela erabat askatu ondoren) adin-nagusitasuna eskuratu arte (18 urte betetzen dituen egunerarte).
- (2) ADIN-NAGUSITASUNAK (Espainian 18.urtebetetzean eskuratzen da) osotasunean jokatzeko gaitasuna⁴⁵ zehazten du. Hau da, pertsona batek behar besteko heldutasuna eta autogobernu-gaitasuna lortu duen unea, bere gizarte-jarduera guztiz eraginkor eta arduratsutzat jotzeko behar bestekoa. Une horretan, prestakuntza eta ikaskuntza sozialeko prozesuan zegoen herritarra izatetik herritar heldua izatera igarotzen dela ulertzen da.

⁴⁵ Plena capacidad de obrar kontzeptuaren sinonimoa da hoankoa.

Halaz, adingabea izateak esan nahi du, alde batetik, adingabea babestu egin behar dela, eta, bestetik, bere jarduteko gaitasuna mugatu egin behar dela. Hein berean, osotasunean jokatzeko gaitasuna eskuratzen duenean, egintza juridikoak balioz eta eraginkortasunez egiteko gaitasuna ere eskuratuko du. Beste era batera esanda, haren ekintzak legitimoak bilakatuko dira.

Horrek ez du esan nahi adingabeak inolako jarduteko gaitasunik ez duenik, baizik eta mugatuta dagoela. Beraz, autogobernurako berezko gaitasuna eta adingabearen adimen- eta nahimen-ahalmenak garatu ahala, jarduteko gaitasunak ere eboluzionatu egiten duela ulertzen da. Horregatik, zenbaitetan adingabeari bere kabuz jarduten uzten zaio, errepresentazio-mekanismoaren inolako beharrik gabe.

Baina, zenbait kasutan jarduteko aukera ematen bazaio ere, adingabeak ez badaki jarduera horiek egiteko gaitasuna duela, ez ditu ekintza horiek egikaritzeko. Egia esan dezagun, proiektu hau irakurri duzuenon artean, adibidez, nork zenekiten adingabeak izanik zenbait ekintza juridiko egiteko gaitasuna zenutela? Bada, nik ez.

Hona hemen, gure ordenamendu juridikoa dela eta, adingabeek jarduteko dituzten aukeretako batzuk. Zehazki, haien jarduteko gaitasuna, adinaren eta heldutasun-mailaren arabera sailkatuta:

12.urtebetetzetik aurrera: gurasoen arteko gatazka ematen den kasuetan, epaileak entzun egin beharko die adingabeei guraso-ahala⁴⁶ erabiltzean (92 eta 156.artikuluak KZ⁴⁷); epaileak entzun egin beharko die ere, tutoretzaren eraketan (231.artikulua KZ); tutoreak epailearen baimena behar duen egintzetarako ere, entzunak izateko eskubidea izango dute adingabeek (273.artikulua KZ); beren adopzioa eta harrera onartu egin beharko dute (177.1.artikulua KZ).

14.urtebetetzetik aurrera: adingabeak egoera zibila alda dezake eta aski izango da bere legezko ordezkaria bertaratzearekin; Seme-alaben gaineko guraso-ahalaz baliatu ahal izango dute, betiere, haien tutorearen laguntzarekin (157.artikulua KZ); Testatzea, testamentu olografoa izan ezik (663.1.artikulua KZ); Epaketan lekuko izatea (361.artikulua PKL⁴⁸); Seme-alaba bat aitortzea (121.artikulua KZ).

⁴⁶ "Patria Potestad" kontzeptuaren euskarazko itzulpena da honakoa. Gurasoek emantzipatu gabeko seme-alaben gainean dituzten eskubide, atribuzio eta betebeharren multzoari deritzo.

⁴⁷ KZ = Kode Zibila.

⁴⁸ PKL = Prozedura Kriminaleko Legea.

16.urtebetetzetik aurrera: izen-abizenak aldatzeko eskatu ahal izango dute (LRC⁴⁹/2011); lan-kontratuak egin ahal izango dituzte legezko ordezkariaren berariazko edo isilbidezko baimenarekin (7.artikulua LE⁵⁰); beren lanarekin eta industriarekin eskuratu dituzten ondasunak administratu ahal izango dituzte (164.3.artikulua KZ); Jabetza intelektualetik eratorritako ustiapen-eskubideak eman (44.artikulua JIL⁵¹); Beren ondasunak besterentzea edo kargatzea onartu dezakete (166.III.artikulua KZ); Epidemia-garaian egindako testamentuan lekuko izatea; emantzipatua izatea.

Ondorioz, 18 urteek zuzenbide osoko herritar⁵² bihurtzen gaituzte, betiere, gure guraso edo tutoreei lotuta jarraitzera behartzen gaituen legezko eragozpenik ez badago (adimen-elbarritasun bat, adibidez).

Aurrekoa gora behera, aipatu berri ditudan adingabeen jarduteko eskubide horiek, gazte horiek dituzten eta etorkizunean izango dituzten eskubide guztien zati txiki bat baino ez dira. Jakina, horien ezagutza ezak aukerak mugatzea besterik ez die eragiten. Gainera, ikuspuntu kriminologiko batetik, gaizkileak edo biktimak izateko aukerak handitzea eragiten du ezjakintasun horrek.

Hona hemen giza eskubideen inguruan azaldu berri dudan guztiak delinkuentzia-tasekin duen lotura hobeto ulertzeko adibide bat:

Gazte gehienek nerabezaroan izaten dute lehen harremana lan-munduarekin. Are gehiago, 16 urte betetzen dituzten gazteek aukera dute lanean hasteko tutoreen baimenarekin (18 urtetik beherakoek jarduteko dituzten gaitasunetako batzuk aipatu ditudanean ikusi dugu hori). Eta aurrezki txiki batzuk lortzeko asmoz hain zuzen ere, lehen aldiz lanean hasten dira adin horretan, batez ere udako hilabeteak aprobetxatuz.

Hala ere, beren eskubideak zeintzuk diren ez dakitenez (ez baitaie irakasten eskoletan), gazteek ez dakite zein lan-baldintzari uko egin dakiekeen eta zeini ez. Askotan, lan-esplotazioa nahastu egiten dute langile gisa dituzten betebeharrekin. Eta abusu hori besterik gabe onartzen dute, lan-baldintzak balira bezala. Enplegatzaileek egiten dituzten botere-abusu horien artean, aparteko lan-orduak, tratu umiliagarria edo beltzez kobratzen diren soldatak aipa daitezke.

⁴⁹ LRC = Erregistro Zibilaren Legea.

⁵⁰ LE = Langileen Estatutua.

⁵¹ JIL = Jabetza Intelektualaren Legea.

⁵² "Ciudadanos de pleno derecho" kontzeptuaren itzulpen bat litzateke honakoa.

Irakatsi beharreko beste ezinbesteko irakasgaietako bat **kulturartekotasuna** da. Irakasgai honen beharra ulertu ahal izateko, beharrezkoa da bizi garen gizarte mota ulertzea: kultura aniztasuna errealitate bat da gure gizartean; Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan ez ezik, Espainiako estatuan, Europako Batasunean, eta oro har mundu osoko herrialde gehienetan.

Multikulturalitatea gizartean ageri den egitatezko egoera bat da, adierazten duena gizarte batean, kultura-identitate ezberdina duten talde anitzak daudela, besteak beste, desberdintasun etniko, linguistiko, erlijioso edo nazionalen ondorioz.

Irakasgai honen bidez ez da irakatsi nahi, gutxiengoak gehiengoa diren taldera asimilatzea edo kulturalki berdintzea. Horren ordez, kultura desberdintasuna onartzea eta diferentziarako eskubidea onartzea irakatsi nahi da. Horretarako landuko diren gaitasunen artean, dibertsitatearen errespetua, tolerantzia, konpromiso etikoa, edota sentzibilitate sozial eta ekonomikoa izango liratekeelarik. Guzti hori, koherentea izanez oinarritzko eskubideekin, bakearen kultura bultzatuz eta komunikazio eraginkorra sustatuz.

Oro har, talde anitzen berezitasunak aitortuak izatea lortu nahi da. Izan ere, kokatzen diren komunitate politiko horien eremuan, beraien buruak aitortu gabe eta diskriminatutzat ikusteko arriskua handia da duten identitatea dela eta.

Gai honek kriminologiarekin zer harreman mota duen galdetzen ari bazarete zuen buruari, utz iezadazue argitzen marjinaltasuna arrisku faktore bat dela delinkuentziarako (hots, hura areagotu dezakeela eta inoiz ez inhibitu). Hezkuntza sistema bat eraginkorra bada, kriminalitatea gutxitzeko gai izan behar da. Eta, horretarako, ezinbestekoa da funtsezko balioak irakastea, gizarte berean elkarrekin bizi diren komunitateen aniztasuna errespetuz jokatzeko ikasteko.

Aldi berean, kultura guztiak (baita gutxiengoek ere) ekarpenak egin ahal izango dizkiote gizarteari, eta bereziki ingurune komunari. Eta ekarpen horiek, berdintasun baldintzetan gauzatu ahal izango dira. Beraz, eskolak kultura anitza transmititu behar du, non, giro jakin batean batera bizi diren kultura guztiak ordezkaturik egongo diren, kultura komun bat eraikitzeko ikuspegian. Halaz, ikasleari erakutsi behar zaio sozializatzen duen gizartea, gizarte multikultural eta demokratiko bat dela.

Aurrekoaz gain, ezinbestekoa da tabu guztiak atzean utziko dituen **sexu-heziketa**. Ugalketa irakastea ez da nahikoa. Era berean, ez da nahikoa pare bat sexu-orientazio mota aipatzea eta oso gainetik azaltzea. Irakasgai honek sexualitatearekin eta

ugalketa-osasunarekin zerikusia duten askotariko gaietarako buruzko kalitateko irakaskuntza eta ikaskuntza inplikatu beharko luke.

Antzina, ugaltzeko ez ziren sexu-praktika guztiak naturaren kontraketat hartzen ziren. Are gehiago, gaur egungo gizartean ere (informazioa erabat eskuragarri izanda ere) pertsona askok pentsatzen dute sexu-hezikuntza ez dela eraginkorra, eta gazteak beren bizitza sexuala aktibatzen hasteko baino ez duela balio. Baina ideia hori, zaharkituta egoteaz gain, arriskutsua ere bada.

Praktikan, sexualitatea bakarrik, bikotean edo taldean praktikatzeko duten gazteak daude, beren sexu- edo beste sexuren bateko pertsonekin, maiz edo noizean behin. Harreman mota horiek beste hainbat ezaugarri ere badituzte eta partehartzaile guztien adostasuna edukiz gero, errespetatu beharreko erabakia da. Eta sexu-heziketa on bat eskaintzea tresna egokia da, zehazki, bizitzan zehar sexu- eta sexualitate-esparruetan ohiturak osasuntsuak eta erabaki onak hartzen laguntzeko.

Irakaskuntzarik ezak eta beraz, sexualitateari buruzko desinformazioak, estigmak eta tabuek eragina izan dezakete kriminalitate tasetan. Hau da, sexu-heziketa on batek delinkuentzia inhibititu dezake.

Har ditzagun, adibidez, sexu bidez transmititutako infekzioak (STI). Izenak dioen bezala, normalean sexu-harremanen bidez transmititzen diren gaixotasunak dira. Gizakiari eragin diezaioke, ondorio larriak eta/edo iraunkorrak eraginez (itsutasuna, dementzia edota ernalezintasuna adibidez). Ohikoenetako batzuk gonorea (sexu-kontaktuak kutsatua), sifilisa (sexu-kontaktuak edo plazentak fetua kutsatzen du) edo Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIBa) dira (kutsatutako pertsonekin preserbatiborik gabeko sexu-harremanak izateagatik edo kutsatutako orratzak eta xiringak partekatzeagatik kutsatua).

Ondorio gisa esan behar dut sexu-heziketaren errealitatea askok uste dutenarekiko oso bestelakoa dela. Hau da, heziketa on batek ahalbideratzen du gazteek euren sexualitatea askatasunez bizitzea, nahi gabeko haurdunaldia izateko edo sexu-transmisiozko gaixotasun bat kutsatzeko arriskua ahalik eta gehien murriztuz.

Aitzitik, heziketa onik gabe infektatutako gazteek, adibidez, beren izaera ezkatutzea erabaki dezakete (lotsaren edo ezjakintasunaren ondorioz) eta hein berean, beren sexu-bikotekideak kutsatzea bigarren mailako ondorio gisa. Egungo Espainiako Zigor Kodeak gaixotasuna kutsatzearen delitua hitzez hitz jasotzen ez duen arren, horri aplikagarriak zaizkio lesio-delituak.

Lehen sorospenak direla esan daiteke, gaixo edo lesionatu bati berehala ematen zaion arreta. Konkretuki, formatutako langileak iritsi eta beraz egoeraren ardura hartu aurretik, edo baita ere, zaurgarritasun egoeran topatzen den pertsona ospitale edo laguntza-zentro batera eramán aurretik. Eta hori da ikasleek izan beharko luketen beste oinarritzko irakaskuntzetako bat.

Izan ere, istripuak edozein unetan eta lekutan gerta daitezke, eta lekuko en jarduna oso garrantzitsua da hurbileko pertsona baten osasuna arriskuan jartzen duten egoerak konpondu ahal izateko. Eta konpondu ezin badira, kalteak txikiagotu ahal izateko.

Begiratu bat bota diezaiogun adibidez (1.elkarrizketatuak) esandakoari:

“Osakidetzak dauka zentro bat, eta 15 egunetik behin etortzen dira gure eskolara. 15 egunetik behin? Oso ondo. ‘Y si hoy le da un brote de locura al crio, yo no soy psicólogo para tranquilizarlo’.

Ahal dudán guztia egiten dut haurra lasaitzeko, baina pertsona hori (osasungintzako langile bat) hor egongo balitz. Eta ez dut esaten erizaina uneoro, baina umeak dauzkagu diabetikoak direnak, ‘bajones de azúcar, subidones de azúcar’ ematen dietenak. Horiek zeinen ardura dira? Tutorearena?

Eta zuk, tutore gisa, ez duzu zertan dena jakin. Eta nik ezta ere. Eta bai bagaude, ni egonda nago bajoia ematen zionean umea gelatik atera, lasai jarri, azukrea eman, batidua eman, etab.

Gero beste batzuk daude, konbultsioak eta ez dakit zer ematen diotenak. Eta inyeztatu egin behar dira. Injekzio horiek ‘frigorifikoan’ eduki behar dira. Eta horien nahiz medikamentuen kadukitze data kontrolatu egin behar da. Eta hori ematen ere, bat-batean eman behar da. Eta ez bazara ausartzen?

Niri gertatu izán zait ume batek bolita bat sudurrean sartu eta irakaslea etortzea korrika, zer egin behar duen galdezka. Sudurrean bolita bat sartu duela eta, hatzarekin ahalegindu dela bolita kanporantz bultzatzen. Baina horrela ez. Goitik behera behera egin behar da, goitik behera bultzatu behar da. Zintza eginez, zintza.

Beste behin berriz, ezkutuan sartu zuen gelan karamelo bat haur batek, andereñoak ez ikusteko eta hemen, eztarrian geratu zitzaion. ‘Entre que tú no reaccionas y vienes donde mi a buscar la ayuda, ese niño ya se ha muerto’. Bueno bada, gero ikeragarritzko bajoiak ematen dizkit niri, baina momentuan erreakzionatzen dut. Heldu umea hanketatik, buruz behera jarri eta bizkarrean joka. Eta hala ere ez zitzaion

ateratzen. Azkenean tragatu egin zuen. Hala ere, badaezpada eraman egin zuten hospitalera begiratzerara. Eztarri guztia ia odoletan zeukan. Esfortzuarengatik.

Bai. Horiek ondo atera zirelako. Horietako bat gaizki irteten zait eta ondoratu egiten naiz. Bai noski, nire eskuetan dago gainera. Eta ez da nire lana. Ulertzen didazu? Horrela gauza pila bat. Dira anekdotak gertatzen direnak, ordu pila bat pasatzen ditudalako eskolan”.

Orokorrean larrialdiei aurre egiteko ez ezik, ikuspuntu kriminologikotik, ezagutza mota hori edukitzea lagungarria izan daiteke pertsona baten osasunaren/osotasunaren aurkako delitu batek eragindako kaltea gutxitzeko. Egia da delinkuentzia kopurua ez dela murrizten, hala ere, larritasuna bai. Eta hori ere garrantzi handikoa da.

Adibide ulerterrazenetako bat lesio-delitua da. Imajina dezagun, segundo batez, borroka baten lekuko garela, non pertsona bat larri zaurituta ateratzen den eta zaurien eragileak ihes egiten duen, biktima atzean utziz egoera erabat zaurgarrian. Edozein herritarrek lehen sorospenak eman baditzake (horretarako trebatuak izan direlako) eta hasierako egoeratik (lehen aipatutako borroka) etor zitezkeen ondorio kaltegarrienak saihestu baditzake, delitu baten aurrean egonda ere, delituaren larritasuna murriztu egingo litzateke. Kasu muturrekoenean, adibidez, delitugileari ez litzaioke hilketa edo lesio larririk leporatuko. Horren ordean, hilketa saiakeragatik edo lesio arinengatik akusatu ahal izango lukete.

Gainera, lehen sorospenen irakasgaiak (pertsonaren ongizate fisikoa bermatzea helburu duena), oro har, **ongizatearen** irakaskuntza izan beharko luke irakasgai osagarri. Azken horrek, pertsonaren ongizate fisikoa ez ezik, osasun mentala eta emozionala ere landuko lituzke.

Estres-maila murrizteko metodoak, onarpen pertsonala, emozio gogorren kudeaketa edo errutina pertsonal osasungarriak sortzea dira landu ditzaketan gaietako batzuk. Horrek, psikologoaren karga arintzeaz gain (kasu larrienak soilik horietara bideratuz), kriminalitate tasak murrizten lagunduko luke.

Agresibitatearen kontrolik eza, adibidez, delitugile bat eratzeko arrisku-faktore garrantzitsuenetako bat da. Agresibitatea subjektuaren egoera emozional bat da, non, beste pertsona, animalia edo objektu bat fisikoki edo psikologikoki kaltetzeko nahiak eta gorroto-sentimenduak inbaditzen dion. Eta agresibitate hori kontrolatzea ez da erraza guztiontzat; horregatik, ulertzen eta kontrolatzen ikastea lagungarria izan

daiteke etorkizunean legez kanpoko ekintzetan amaitu daitezkeen indarkeriazko jokabideak saihesteko bidean (borroka bat horren adibide garbia da).

Laburbilduz, sentimendu horiek kudeatzeko baliabideak eskaintzeko balioko luke besteak beste.

Ekonomia da egungo eskolek irakatsi beharko luketen beste irakasgaietako bat. Egia da dagoeneko badela izen bereko ikasgai bat, baina ez dute nerabeentzako ezinbestekoa den gairik lantzen. Eta hori dela eta, landu beharreko gaitegian aldaketa bat egitea proposatzen dut. Gaur egun, irakasgai hori enpresekin eta merkatuarekin lotutako kontzeptuetan zentratzen da batez ere (eskaintza eta eskaria, adibidez), eta hori guztia oso ikuspuntu teorikotik aztertzen dute. Horren ordez, ekonomiaren beste alderdi garrantzitsuago batzuk irakatsi beharko lirateke nire ustez.

Hasteko, ekonomiako klaseetan fakturak eta kontratuak irakurtzen irakatsi beharko lukete. Hau da, bi subjektu lotzen dituen dokumentu oro, zeinetan alderdietako batek beste alderdiari ordaindu behar baitio zerbitzu bat emateagatik.

Lan-kontratu batean, adibidez, hainbat xehetasun zehaztu beharko dira, hala nola, lanaldiak irauten duen denbora, bete beharreko ordutegiak, atsedeen-egunak, ordainketa-egunak, lan-eskubideak, lege-prestazioak edo aparteko prestazioak, langileak jasoko duen eguneko soldata, etab. Laburbilduz, lan-kontratu batean aurkitzen dugu gure zerbitzuen ordainketa ekonomikorako garrantzitsua izan daitekeen guztia.

Horregatik ez da gomendatzen kontratu bat irakurri gabe sinatzea. Baina zertarako balio du kontratua irakurtzeak, ulertuko ez badugu? Horregatik, ekonomiarekin lotutako oinarriko kontzeptuak ulertzearen garrantzia azpimarratu nahi dut. Kontratazio- edo kaleratze-prozesuetan gaudenean, ematen dizkiguten dokumentuak arretaz irakurtzeko eta ulertzeko denbora izan behar dugu.

Horrez gain, ezinbestekoa iruditzen zait ikasleei (batez ere derrigorrezko bigarren hezkuntza egiten ari direnei) lan-munduarekin harremanetan jartzeko jarraibiderik funtsezkoenak erakustea. Adibidez, nora jo lan bila edo zer bilatzen duten enplegatzaileek edo enpresek enpleguak kontratatzerako momentuan.

Era berean, enplegu bila joan ondoren, prest egon beharko lukete gazteek kontratazio-faseetarako, hala nola aurkezpenerako, guregandik zer entzutea espero duten jakin beharko luketelarik. Eta are gehiago, oraindik esperientziarik ez dutenean

eta bilatzen ari direna beren lehen lana denean, zer alderdiri erreparatu behar dioten jakin beharko lukete.

Diruaren eta ondasun pertsonalen kudeaketa da irakasgai honetan landu beharko litzatekeen beste alderdietako bat. Honekin adierazi nahi dudana da, norberak dituen baliabideak modu eraginkorrean lortzeko eta erabiltzeko moduak lantzea.

Laburbilduz, ekonomia irakasgai honen bidez oinarrizko finantzen kontrola irakatsi beharko litzateke. Dirua mugitzea, lortzea eta administratzea ulertzeak delitugile zein biktima izateko probabilitatea murriztea baitakar.

Horren adibide garbia kontratuen bidezko iruzurrak dira. Letra txikiaren erabilera edo ulermena zailtzen duten kontzeptu teknikoak erabiltzea dira jendea engainatzeko erabiltzen diren metodo erabilienetako batzuk. Eta, jakina, errazagoa da irakurtzen duena ulertzen ez duen norbait engainatzea.

Ekonomia ez da irakasten den edukia aldatu beharko luken ikasgai bakarra. Aurrekoaz gain, **informatika** ikasgaiaz ere hitz egin nahi dut. Hona hemen irakatsi beharko lituzken funtsezko alor batzuk:

Alde batetik, informazioa bilatzeko orduan, faltsuak diren iturriak zeintzuk diren bereizten irakatsi beharko litzaieke. Halaz, “fake news” moduko artikuluetan ez erortzeko eta hein berean, horiek zabaltzeko. Bestalde, ikasleei irakatsi behar zaie lan bat egiterako unean, informazioa internetetik kopiatu eta itsastearekin ez dela aski. Garrantzitsua da azaltzea hala nola, ikerketa-prozesu batean, informazio bilketaz gain, zentzu kritikoak ere garrantzia duela, eta beraz, eskuratutako informazio osoa ezin dela aldaketarik gabe erabili. Hots, laburpenak egitea, testuak parafraseatzea eta ideiak lotzen ikastea ere ezinbestekoa dela.

Guzti hori lagungarria izango zaie ikasleei plagioak saihesteko unean (Espainiako Zigor Kodearen 270. artikuluan tipifikatutako delitua) bai eta informazio faltsua zabaltzea ekiditeko momentuan ere.

EAEko egungo eskoletan eman beharreko irakasgaiekin amaitzeko, **bide heziketako**⁵³ irakasgai bat txertatzearen beharraz mintzatu nahi dut. Horri esker, zirkulazioaren inguruko arauak ezagutzen dituzten helduak prestatzeko. Halaz, espero da gidari, oinezko, txirrindulari eta bidaiari kontzienteak izango direla, zehazki, egungo heldu gehienak baino zuhurragoak.

⁵³ “Educación” vial kontzeptuaren itzulpen bat litzateke honakoa.

Izan ere, haurrei bide-hezkuntza lehen hezkuntzatik nahiz haur hezkuntzatik irakasten bazaie, horiek aukera gutxiago izango dute istripuren bat izateko etorkizunean. Azken finean, ikasgai horren bidez sustatu nahi da gizartean bizi garen pertsonen segurtasuna eta bizitza zaintzeko sortutako arauak eta erregelamenduak ikastea, errespetatzea eta barneratzea txiki-txikitatik. Beste modu batera esanez, zirkulazio-istripuen prebentzioa landuko litzateke.

Ohitura bihurtu behar diren ekintzak irakatsiko direnez, bide-hezkuntzak garrantzi berezia hartzen du lehen eta haur hezkuntzan. Haurrak oraindik gidariak ez diren arren, edo kalean bakarrik joaten ez diren arren, ohartarazpen, betebeharrak eta herritarren eskubide asko daude, haurrek barneratu ditzaketenak (etorkizunean gizarte-bizikidetzaren sendotuz). Kontua da bide-segurtasuna prebenitzeko eta sustatzeko kultura sustatzea umeengan.

Horrek, adibidez, ausarkeriaz gidatzea saihestuko luke. Era berean, eraginkorra izango litzateke horrelako legez kanpoko ekintzen biktima ez izateko (heziketa on bati esker, haurrek kontu handiagoz gurutzatuko lituzkete bideak).

Printzipioz, horiek dira egungo hezkuntza sisteman sartuko nituzkeen ikasgaiak; izan ere, ziur nago funtsezkoak direla, bai ikuspuntu kriminologikotik, bai ikuspegi sozialetik. Eta, jakina, funtsezkoak dira prebentzio-helburu hori betetzeko. Hala ere, irakasgai horiek ez irakastea ez da pasarte honetan aipatu nahi dudana bakarrik.

Irakasgaien atalari amaiera ematen joateko, irakasten diren nahiz irakasten ez diren (hots, proposatu berri ditudan irakasgai zerrenden) ikasgaiak balio berbera ez daukatela esatea ezinbestekoa da. Hots, materien arteko hierarkia bat ezinbestekoa da, non, garrantzi gehien duten ikasgaiak denbora gehiago eskaini beharko litzateke. Hau da, proposatu berri ditudan gai guztiak hezkuntza sistemara txertatzea ez da nahikoa, horrez gain, ikaslearen beharretara egokitu behar dira.

Planteamendu hori hobeto ulertzeko, lehenik eta behin "garrantzia" hitzaren esanahia azaldu behar dut. Bada, nola jakin ikasgai ezberdinen artean zein den garrantzitsuena? Ikasleen heldutze egokiena ahalbidetuko duten ikasgaiak izango dira funtsezkoak. Eta inportanteenak diren heinean, jakintza horiek barneratzeko denbora gehiago eskaini beharko zaie.

Logika horri jarraituz, sexu heziketak, adibidez, garrantzi gehiago izango luke fisikak baino. Erabilgarriagoa izateagatik ez ezik, gazteak helduarorako (eta beraz helduen gizarterako) hobeto prestatzeko balio dezakeelako.

Beraz, ikasgai guztiek balio bera ez dutenez (hierarkikoki maila baxuago dutenez batzuk), eskaini beharreko denbora berdina izan beharko ez litzaikeela deritzot. Eta hein berean, ikasturtea gainditzeko, materia batzuei arreta gehiago eskaini beharko litzaikeela.

METODOLOGIA

Hezkuntzan erabilitako metodologiaz ari naizenean, irakasleek eta pedagogoez eguneroko jardueran erabiltzen dituzten irakaskuntza-metodoez ari naiz. Hau da, hezkuntzak dituen helburuak lortu ahal izeko, irakasteko unean erabiltzen diren prozedurak.

Hezkuntzaz hitz egitean gizarte-zientzien arloan kokatzen gara, non oinarria giza interakzioa den (ez da zientzia zehatza), eta, beraz, milaka eta milaka metodo daude aplikagarri. Irakasle bakoitzak, gizaki desberdina izanik, bere irakasteko modua du, bere ezagutzekin, prestakuntzarekin, esperientziarekin eta abarrekin bat datorrena. Metodo bakoitza eraginkorra izan daiteke edo ez, aplikatzen ari den pertsonaren arabera.

Horregatik, legediak irakaskuntzarako oinarritzko irizpide batzuk ezartzen baditu ere, maisu-maistrek autonomia tarte bat dute, non indibidualki erabakitzen duten nola irakatsi.

Eta, jakina, lan honetan ezinezkoa zait autonomia-erkidego oso batean dauden metodo guztiak aztertzea. Izan ere, esan dudana bezala, irakasle bakoitzak bere erara irakasten du. Eta banan-banan aztertzea ezinezkoa da (ez dut ez denborarik ez baliabiderik horretarako).

Hori jakinda, EAEn erabiltzen den metodologia orokorraren kritikan jarriko dut arreta. Hau da, legeriatik eratorritakoa eta irakasle guztiek oro har jarraitzen duten oinarria. Hots, euskarri gisa erabiltzen dutena hori, ostera aplikatzen dute irakasleek, aldaketaren bat eginez (pertsonalizatuz).

Lehenik eta behin, ikasgelen antolakuntza nolakoa den azaldu nahi dut. Dagoeneko guztiok dakigun bezala, ikasgela arrunt batean, gutxienez aulki bat topatu dezakegu ikasle bakoitzeko, ikasmahaiekin batera. Guztiak ilaraka antolatuak egon ohi dira aurrealdera begira irakaslea behatu ahal izateko. Hori da ikasgela arruntan ezaugarri nagusietako bat.

Ikasleek, kokaleku horietan (beraiei dagokien aukietan eserita) eguneko hainbat ordu igarotzen dituzte. Eta zenbait kasutan ikasgelan koska bat topatzen da, irakasleak bertara igo ahal izateko lezioa eman bitartean.

Eta koska horretara nahiz ikasleen eserlekuen norabidera bideratu nahi dut nire lehenengo kritika hain zuzen ere. Azken batean, bi faktore horien funtzioa kolokan jarri nahi dut. Ikasle asko dauden kasuan, atzean topatzen direnek hobeto ikusi ahal izateko balio duela koskak diote. Edota, irakasten ari den pertsonari arreta eskaini behar diotela haurrek eta aurrerantz begira eseri behar dutela. Baina, ikasgelaren antola hori desegokia dela deritzot.

Azken batean, azaldu berri ditudan ezaugarri horiek hierarkia bat dagoela adierazten dute, zehazki, ikasle eta irakasleen artean. Eta ikastetxe barneko hierarkia hori bateraezina da eskola inklusibo batekin.

“Zer interesgarria den inklusio hitza. Errealitate bat denon artean sortzearena. Baina errealitate bat denon artean sortzea, roletan ere bai. Hau da, eskola inklusibo batean ezin dira hierarkiak egon. Egon behar dira eta ardura batzuk egon behar dira. Baina boterearen bidez ezin dira gauzak lortu. Eskola inklusibo batean ikasleak aktiboak izan behar dira, bestela ez da inklusiboa. Modu pasibo batean ez zara gizartea eraikitzen. Eskola batean baldin bagaude 25 irakasle eta ikasle bat, denon artean sortu behar dugu zerbait. Eta denon artean sortzeko zerbait, ikasleek aktibatu behar ditugu” (elkarrizketa 3).

Gizartean boterea guztion esku badago, ikasgelan gauza bera gertatu behar da. Adibidez, zenbait ikasle irakasle askok baino askoz gehiago dakite teknologiaz, eta horrek fluxuak inbertitu behar ditu. Horrek ez du esan nahi irakasleak zer esanik ez duenik. Are gehiago, irakaslearen funtzioa da ikasgela bideratzea, eta ikasleek kasu egin behar diote. Baina, irakaslea komunitateko beste kide bat dela ahaztu gabe. Hau da, irakasleak gogoan izan behar du komunitateko gainerako kideek ere badituztela baliozkotu beharreko jakintza batzuk. Eta horrek, aldi berean, erlazio estua du ikasleen jarrerarekin. Ikasleak aktiboak izan behar dira edo gutxienez, aktiboak izan daitezen bultzatu behar da.

“Ni saiatzen naizena da ikasleei transmititzen, izan behar direla objektu aktiboak hasieratik. Hau da, ezin zara itxaroten egon. Eta ez baduzu zerbait gustoko esaziozu hasieratik. Eta nik uste, hori dela hezkuntzaren erronka handi bat: Pertsona aktiboak sortzea (...) ez zara bapatean tituluarekin batera pertsona aktiboa bilakatuko” (3.elkarrizketatua).

Aurrekoa gutxi balitz, ikasturte bakoitzaren hasieran irakasleek bilerak antolatzen dituzte ikastaroan zehar irakatsiko dituzten gaiak zeintzuk izango diren erabakitzeko. Halaz, gai zerrenda bat burutzen dute, eta horiek erakusteko metodoen planifikazioa burutzen dute. Baina, 3.elkarrizketatuak esandakoarekin bat eginez, hezkuntza bizia da eta kontuan izan behar da planifikazio hori lagungarria izan daitekeen arren, ez dela errealista. Eta horrek dakarrela, ikasleen hezkuntza prozesua oztopatzea.

“Egokiena da edo irakasle ideala zara baldin eta kurtso hasieran daukazun ikasturte osoan egingo dituzun saioak idatzita azalduz helburua, zer lortu nahi duzun, zer konpetentzia lortu nahi dituzun eta orri bat izatea saio bakoitzeko eta eskaintzea ikasleari, ikasleak jakin dezan zer egin behar dugun. Baina, nire ustez hori ez da hezkuntza.

Egokia da (...) Baina, hezkuntza bizia da eta orduan, lehenengo oztopoa askotan da adibidez burokrazia. Edo esatea, bai, edo lehen hezkuntza batean adibidez, nik eduki hauek lortu behar ditut garatzea nire ikasleekin. Baina agian nire ikasleak ez daude eduki horiek lortzeko moduan (...) Esatea, bai, edo lehen hezkuntza batean adibidez, nik eduki hauek lortu behar ditut garatzea nire ikasleekin. Baina agian nire ikasleak ez daude eduki horiek lortzeko moduan” (elkarrizketa 3).

Ezin sinetsi dezakegu irakasle bakar bat gai izango dela 20 ikasleren aurrean ikasgai bat azaltzeko eta azalpen horren bidez, hasieratik, ikasle guztiei materia ulertaraztea lortzeko. Era berean, ezin espero dezakegu, ikasleak beren %100 emateko gai izango direnik egunero eta uneoro.

Esan berri dudanarekin bat egin zuen 3.elkarrizketatuak, zehazki, ondorengoa adieraziz: “ikertua dago, 20 minutuz ezin gara kontzentratu modu intelektual batean. 20 minutu baino gehiago. Nola berreskuratu orduan kontzentrazioa? Dimentsio fisikora edo dimentsio emozionalera joanez. Bada, goazen jolastera, goazen salto egitera. Eta gero itzuliko gara”.

Horregatik, lagungarria izan badaiteke ere, ezinezkoa da ikasturte hasierako plangintza hitzez hitz burutzea. Eta inoiz lortuz gero ere, beti ez da kasua izango.

Aurreko guztiari honako alderdi hau gehitu nahi diot: gazteek etapa batetik bestera egiten duten jauzia (eta, horri loturik doan irakasgaiak erakusteko metodologiaren aldaketa) ez litzateke bat-batekoa eta hain drastikoa izan beharko (HHtik LHra eta LHtik DBHra). Baizik eta graduala izan beharko litzateke. Desberdina baita gazteak helduarorako preparatzea edota helduarorako preparatzera behartzea eta bultzatzea.

“Nik ikusten dut bost urteko haurren gela orain. Gaiak badituzte lantzeko. Bada ihauteriak direnean adibidez, ez dakit zer gaia jartzen dutenean. Ihauterien bidez euskal kultura egiteko, etab. Bueno bada lantxo batzuk egiten dituzte.

Bost urte. Gaude goiz osoa gelan, bakoitzak nahi duena egiten. Baina irakasleak deitzen duenean, lantxo bat egin behar dela, egiten dute. Bale. Oso ondo iruditzen zait. Baina hurrengo urtean lehenengo mailara joango dira eta denbora guztian eserita daude. Aldaketa hori drastikoa iruditzen zait. Gainera ez direla pare bat ordu. Ez, ez, ez, ez. Ordu guztiak.

Agian bakarren batek ikasgelaren batean egingo du liburutegi txokoa eta han utziko die momenturen bat, ordu erdi bat edo ordubete bat libre aurrengo mailan adibidez. Baina aurrengo mailan hasten dira iada matematika, hizkuntzak, ingelesa, musika, etab. Eta orain arte egon dira jolastu, jolastu, jolastu, fitxa bat, jolastu, jolastu, jolastu fitxa bat. Ordun aldaketa hori, nik ez dakit nola egiten den horrela. Ez dakit trantsizio hori nola egin behar den. Baina nik bai ikusten dut hori aldatu egin behar dela.

Eta gure umeei gehiago oraindik (behar bereziak dituzten haurrez ari da). Zeren bost urteko ume hori, jarrera arazok dauzkana, gaur egun ezin da egon, bere ezinak dituelako. Bere barruko agresibitate hori duelako. Eta ni ari naiz iada esaten hau izugarritzko porrua dela. Eta datorren urtean nola egingo du ume horrek lehenengo mailan. Zeren ezin du errepikatu. Ez baitauka diagnostikorik. Ez dauka ezer ere, legalki ezin du errepikatu. Hau da, Haur Hezkuntza errepikatzeko eduki behar duzu diagnostiko bat” (1.elkarrizketatua).


Azkenik, azterketak ikasteko baliabide gisa erabiltzeaz hitz egin nahi dut. Gaur egungo hezkuntza sistema diseinatua izan da ikasleek garunean informazio kantitate handiak atxiki ditzaten, ostera, proba bakar batean botaka eginez botatzeko. Epe luzera gogoratuko ez duten informazioa barneratzera behartuak izaten dira. Hainbat datu aztertzen dituzte, baina dena eskura duten informazioa da, "Klik" baten bidez bila dezakete, baina hein berean, ez zaie erakusten nola egin daitekeen klik hori.

Aurrekoa gutxi balitz, ikasleak paperezko proba batean guztia jokatzera behartuta daude. Azterketa den egun zehatzaren testuinguru iragankorrak eragin diezaioke ikaslearen emaitzari. Emakumeen kasuan, adibidez, ahalegin guztia murriztu daiteke hilekoak eragindako minengatik.

Laburbilduz, azterketaren erabilerak ez dauka inolako zentzurik, ikasleen ahalegina eta gaitasuna baloratzeko gai ez den proba bat baita. Eta, gainera, ez du betetzen ematen

zaion helburua, hau da, ikasleek ez dute ikasten (epe luzera ez baitira ezertaz gogoratzen).

Helburua informazioa atxikitzea eta oro har ikastea bada, orduan metodo eraginkorragoak daude. Hala nola, aski da Cody Blair, Institute for Applied Behavioral Sciences institutuko ikertzaile estatubatuarra, sortutako ikaskuntzaren piramideari begiratu bat botatzearekin. Hona hemen, piramidearen irudi bat:



Trujillo Arbeláez, C. (2020). *La pirámide del aprendizaje* [JPG]. Koideas. <https://www.koideas.com/post/la-piramide-del-aprendizaje>

3.elkarrizketatuak azaldutakoaren baitan, azterketak burutzea baino garrantzitsuagoa da ikasle aktiboak sortzea. Horrela, ikasleek hitz egin dezaten animatuz, errazagoa izango da ikasleek ikasi dezaten lortzea. Zehazki, ondorengoa adierazi zuen:

“Hitza ikasleei emanez. Oso tresna garrantzitsua da galdera. Ez dakit ezagutzen duzun, badago, jakintzaren piramidea. Eta oso polita/interesgarria da. Ikasten dugu, irakurtzen dugunaren %10, ikasten dugu entzuten dugunaren %20, (...). Eta azkena da ikasten dugu irakasten dugunaren %90. Klaseetan saiatu behar zara, zure dinamikaren bitartez ikaslea murgiltzea piramide horren hasiera horretara. Modu aktibo batean izan daitezen beraien ikasketaren jabe”(3.elkarrizketatua).

Eta bai, ikasle batzuk azaldu berri ditudan ezaugarrietara moldatzeko gai dira. Baina guztiak ez. Eta moldatzen ez direnak iada etiketetan sailkatzeko joera dugu (tontoak, kostatzen zaienak, arrakastarik gabekoak, porrot egin dutenak, etab. izendatuz besteak beste). Eta hasiera-hasieran azaldu dudun bezala, kriminalitateko probabilitatea areagotzea besterik ez dakar guzti honek.

Aitzitik, metodologiaren atalean topatu ditudan akatsak eta zailtasunak ezabatzeak eragingo luke sujetuak gizarteko bizimodura errazago moldatzea. Zehazki, etorkizuneko zailtasunen aurrean jokatzeko eta erreakzionatzeko dakiten kideak eraikiz.

IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZA SISTEMAKO PARTE HARTZAILEAK

Hainbat dira ikastetxe baten antolaketan parte hartzen duten helduak eta helduen taldeak. Guztien funtzioa delarik ikasleak ahalik eta hezkuntzarik onena jaso dezan bermatzea. Horregatik, EAEn indarrean dagoen hezkuntza sistema kritikatzekoan, ezin dugu ahaztu hezkuntzarekin harremanetan dauden pertsonak betetzen duten eginkizuna aztertzea. Hala ere, heldu horietako batzuk oso gaintetik aipatu besterik ez ditut egingo, batez ere irakasleengan jarriko baitut arreta.

Izan ere, irakaslea da, zuzenean, hezkuntza-errealitatearekin harremanetan dagoena. Maisua da, curriculumak jasotzen duena praktikan jartzen duena, ikasleekin kontaktu gehien duena eta ikasgelan egunez egun irakatsi eta ikasteko prozesua zuzentzen duena; horregatik, ez dut uste oker nagoenik irakasleak hezkuntzaren oinarri gisa izendatzean.

Irakaslearen rola garrantzia dela eta, irakasleen prestakuntzari arreta berezia jartzea funtsezkoa da arrakastara bideratutako hezkuntza sistema bat garatu nahi bada. Baina behatu ahal izan dudana dela eta, honakoak zenbait gabezia dituela esan behar dut. Eta horiek azalratzea da nire eginkizuna.

Hasteko, irakasleen prestakuntzara bideratutako edozein motatako ikaskuntzen izaera teorikoaren ezegokitasuna aipatu nahi dut. Are gehiago, elkarrizketatuek ere, sarritan aipatzen zuten beren formakuntzaren izaera teorikoegia.

“Gure formakuntzarako egokiak egin zaizkit, baina nire ustez ez ditugu nahiko jarduera praktikoa egin ikasturtean zehar. Esan nahi dudana da praktiketara joan garenean gauza mordoa inoiz ere egin gabe ginela. Adibidez, Haur Hezkuntzan ipuinak kontatzea eguneroko bat da, eta egunean askotan egiten den ekintza bat, guk ordea, ikasten ginen bitartean horren inguruko praktikaldi bakarra egin genuen... Ez dut esaten egokiak izan ez direnik, baina gaur egun oraindik ere teoria asko eta praktika gutxi egiten direla iruditzen zait, eta arlo batzuk praktikaldi gehiago behar dutela esango nuke” (2.elkarrizketatua).

“Gaur egun eskatzen dute edo haur hezkuntzaren goi maila edo gizarteratzearen⁵⁴ goi maila. Nik uste dut, gizarteratzea nik ez dut eman baina asignatura desberdinak dira haur hezkuntzarengandik, eta nik pentsatzen dut haiek prestatuago ote dauden. Ezin

⁵⁴ “Integración social” kontzeptuaren itzulpena.

dizut seguru esan, baino gero lanean hasten zara eta teoriak sirve muy poco” (1.elkarrizketatua).

Honek lotura dauka aurrez aipatutako ikasle aktiboaren kontzeptuarekin. Ezin baita espero, irakasleak, ikasle pasiboa izatetik gizarteko pertsona aktiboa izatera pasatuko direla bat-bateko salto batean. Aldaketa hori graduala izan behar da, eta lehenagotik eman behar zaio aukera ikasleari, parte hartzaile aktibo bat izateko. Aktibo izate hori ez baita eskuratuko titulua eskuratzearekin batera. Hots, irakasleen formakuntza ez litzateke horren teorikoa izan beharko. Eta ariketa praktikoak nabarmenki areagotu beharko lirateke, beren ikasgela testuingurura moldatzeko gaitasuna landu ahal izateko.

Gainera, 2.elkarrizketatuak, ondorengo ere jakinarazi zidan: “Guk bi urte hauetan guzti hauek landu ditugu, agian ez denbora nahikoz baina bai, landu ditugu (...) gai orokorrakoak, enpatia nola landu, elkarlana, diskriminazioa, etab. gizarte trebetasunak izeneko ikasgaiak landu ditugu asko. Bideoak, elkarrizketak, Ur Handitan programako kapitulo batzuk ere ikusi genituen, debateak... eta guzti hauek talde lanean landu ondoren, norberak bere hausnarketak egin behar izaten zituen, gaiaren inguruan guztiok erreflexionatzeko eta guk kasu horien aurrean nola jardungo genuen azaltzeko. Hausnarketa asko egin ditugu ikasturtean zehar” (2.elkarrizketatua).

Niri dagokidanez berriz, eta jasotzen duten formakuntzaren izaera teorikoaren harira, ez zait iruditzen hausnarketak egitea aski denik. Irakasle gisa, prest egon behar dira arazoaren aurrean irtenbideak proposatu eta aplikatzeko. Eta ikasle bakoitza mundu bat dela kontuan izanik, aurreikusgarria da ezberdin jokatzeko dutela estimulu berdinen aurrean. Horregatik, irtenbide bat baino gehiago eduki behar dituzte prest, eta horiek funtzionatzen ez badute, inprobisatzeko gaitasuna eduki behar dute (edo laguntza bila joatekoa).

Laburbilduz, ume bakoitza ezberdina den heinean, arazo berdinen aurrean jokatzeko modu ezberdinak prestatu beharko dituzte irakasleek. Eta zenbait kasutan arazoaren aurrean inprobisatzeko prest ere egon beharko dira. Eta hori ez da hausnarketa baten bidez ikasten den gaitasun bat. Ez eta, bideo batzuk ikusiz ikasten den zerbait ere.

Azken batean, bizikletan ibiltzen ikasteko ez da aski gurrpilak gomazkoak direla ezagutzearekin. Horren ordez, kalera irten eta bizikleta gainean ibili behar zara. Benetako arazoaren aurrean nola jokatu behar den jakiteko, lehenik esperientzia behar da. Hots, egoera praktikoak behar dituzte. Zailtasunen aurrean nola erreakzionatuko

zuten ezagutzeko, eta horren ostera, beren erantzuteko moduak landu eta garatzeko. Oztopoei aurre egiten ez badiete, nola egongo dira bada prest?

Zer egin enpatia garatzea kostatzen ari zaion haur baten aurrean? Nola jokatu ikasgelan diskriminazioa antzematen bada? Horiek ez dira bideo bat ikusi ostean eskuratzen diren gaitasunak. Eta hausnarketa baten ondoren ere, ez dira egoera horiei aurre egiteko prest egongo.

Irakasleen prestakuntzak duen izaera teorikoa alde batera utzita, ematen dituzten ikasgaiak ere aztertu nahi ditut. Errealitatea kontuan hartzen ez dutela uste baitut. Are gehiago, oinarritzkoak izan daitezkeen jakintza arloak lantzen ez dituztela deritzot, eta landuz gero, denbora nahikoa eskaintzen ez diotela deritzot. Burutu ditudan elkarrizketei begiratu bat botatzea aski da hori frogatzeko:

“Gure lana egiteko eskatzen dituzte, gaur egun edo haur hezkuntzaren goi maila edo gizarteratzearen goi maila (...) gero lanean hasten zara eta teoriak sirve muy poco (...) Urtero-urtero eskaintzen dizkigute kurtso bukaeran ikastaroak egiteko aukera. Eta nik pila bat egin ditut. Gero, gainera, komentatzen nizuna, nik egin nituen ikasketagatikan oraingo ikasketetara pasa ahal izateko, nola finkoak ginen, niri derrigortu egin zidaten ikastaro batzuk egitera. Ekiparatzeko, esango genuke. Oraingo goi maila hori ekiparatzeko. Eta orduan bai eman nituen ikastaro horietan bai jartzen zaituzte horrela, errealitatean. Zeren ikastaroak ziren itsuen ingurukoak, gorrei buruzkoak, braileko kontuak erakutsi dizkigute, hau da, funtzionalagoak.” (1.elkarrizketatua).

Ezer baino lehen, irakasleari bere burua ezagutzen irakatsi beharko liokete. Hau da, introspekzioa lantzeko ikasgai bat. Izan ere, irakasle on batek, ematen duen gaiaren ezagutza zabala izateaz gain; gogotsua, enpatikoa, irmoa baina aldi berean malgutasunez diharduena, errespetuzkoa, arduratsua, eta komunikatiboa ere izan behar da. Eta ezaugarri horiek lortzeko bidean, norbere burua ezagutzea ezinbestekoa dela deritzot. Eta ez soilik nik, elkarrizketatuek ere bat egiten zuten gai honi dagokionez:

“Nik uste oinarrian dago eta magisteritzan entzuten ez den zerbait, bada, pertsona artean gabiltzanean, irakasle ikasle harremanetan, irakasten duzu zu zaren hori. Orduan hasi behar zara, nor zaren hori aztertzen eta auto ezagutzaren eta auto heziketaren bitartez, ba aldaketak eragiten zugan eta horrek eragina izango du haurraren. Eta orduan, barne begirada hori, eta horregatik saiatzeko naiz magisteritzara eramaten ere bai” (3.elkarrizketatua).

Irakasleen prestakuntzaren inguruko kritikarekin amaitzen joateko, ezinbestean aipatu behar dut ondorengoak: Ikuspuntu kriminologikotik, irakaslearen eginkizun garrantzitsuenetako bat adingabeen kriminalitate tasak handitzea eragiten duten arrisku-faktoreak atzematea izan beharko litzateke. Beraz, irakasleak prestatu egin beharko liriateke zailtasun horiek hautemateko eta konponbideak proposatzeko. Horien artean: Tratu txarren edo abusuen biktima izatea, toxikoak eskuragarri izatea, nahasmendu psikopatologikoak izatea edo gutxienez horien zeinu nahiz sintomak adieraztea, etab.

Eta ez dut esan nahi tutoreak gai izan behar direnik oztopo horiei guztiei aurre egiteko. Aitzitik, horiek identifikatzeko gaitasuna izan beharko lukete eta gero arazo horiek langile trebatuei transferitu. Eta zerrendatutakoa zati txiki bat besterik ez den arren, egungo hezkuntza sistemako oztopo minimo batzuk konpontzetik hasi beharko ginbateke. Azken batean, metatuz gero, hain gutxi izateari uzten baitiote.

Atal honekin amaitzen joateko, irakasleen formakuntza alboratu nahi dut, hezkuntza sistemako parte hartzaile guztien arteko elkar-eraginaz mintzatzeko. Aurretik zerrendatu ditudan hezkuntzako kideek (Zuzendaritza-taldea / irakasleen klaustroa / tutorea / gurasoen elkarteak / irakasle ez diren langileak / OMR edo Eskola Kontseilua) elkarren artean lan egiteko betebeharra dutela adierazi nahi dut. Ikasleek hezkuntza ahalik eta kalitate onenekoa izateko bidean, ezinbestekoa baita, haurren hezkuntzan eragina izan dezaken kide guztien arteko lankidetzak.

Are gehiago, 1.elkarrizketatuak, berak bizitako egoera desberdinen artean, honakoa azaldu zidan:

“Ume horien gurasoekin bilerak egiten direnean, gu egoten gara. Eta berez egon behar gara, zeren gu gaude eguneko ordu pila bat ume horiekin. Bada niri gertatu izan zait tutorea etortzea eta esatea: Zu gurasoen bileran ez zara egongo! Eta nik erantzun: baino barkatu, ume hauen bileretan beti egoten gara gu. Baina ez, ez. Nik erabaki dut ez zarela egongo. Horren aurrean esan nuen: Bale baina zuen erabakia da eh! Bai, bai. Bale.

Ni joan nintzen zuzendaritzara eta esan egin nien: Aizu, horrela eta horrela eta esan dit bileretan ezin naizela egon. Nik esan diot bilera horietan gu egoten garela, gu parte garela, eta esan dit ezetz. Nik bakarrik jakinaren gainean utzi nahi zaitut bere erabakia izan dela. Ez nagoela ni bidea egiten. Gelditu zen “flasheauta” baina ez zuen nire parte hartu esateko irakasleari: Aizu, barkatu. Etorri zait X, esan dit hau eta jakin dezazula egon behar duela bileran”. Ahí se quedó.

Edo irakasle batek zeloak edukitzea zutaz. Bada umeak zuregana zuzentzen direlako. Eta niri gustatzen zait gelako partaide bat izatea. Eta ez bertan, umearekin, atzean dagoen gauza arraro bat. Gelako partaide izatea eta denek harreman ona edukitzea. Eta hori behar luke gainera zeren gu ume horiek integratzeko baldin bagaude, gu ere integratu behar gara gela horretan”(1.elkarrizketatua).

Horrelako jarrerak onartezinak dira. Jeloskortasuna bezalako sentimenduek eraginda, haurren hezkuntza mugatzen ari gara. Umeen beharrei aurre egiteko ditugun baliabideak alboratzen. Zentzurik ez izateaz gain, kaltegarria ere bada. Eta gazteen integrazioa oztopatzea besterik ez dakar honek.

Horrelako egoeren aurrean ez da nahikoa irakasleei beren emozioen kontrola erakustea (lehen aipatu dudan introspektzioaren bidez, adibidez). Horrez gain, adingabearen hezkuntzarekin zerikusia duten alderdien arteko lankidetzaren indartu behar da. Izan ere, hori da hezkuntzaren kalitatea bermatzeko modu bakarra.

GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Baliabideak dira, hezkuntza sistemari egiten ari naizen kritikarekin amaitu aurretik aztertu nahi dudana azken alderdia. Baliabide kontzeptua bitan banatzen da. Alde batetik, giza baliabideak daude, hau da, ikastetxeari bere lanaren bidez ekarpena egiten dion pertsona oro. Eta beste aldetik, baliabide materialak, hots, objektu bizigabeak, adingabeei kalitate handiagoko hezkuntza ematen laguntzen dutenak.

Giza baliabideei dagokienez, atal honetan figura jakin batzuen gabezia azpimarratuko dut. Hau da, arlo honetan dagoen gabeziaz hitz egingo dut. Eta zerrendatuko ditut eskola batean egon beharko luketen eta ez dauden langileak.

Hasteko, lehen ofizioa aurreko atalean planteatutako azken arazoarekin lotu nahi dut. Izan ere, berriro aipatu nahi ditut adingabearen hezkuntzarekin edozein kontaktu duten figuren arteko eztabaidak.

Kontua da, alderdi horien arteko gatazkarik egonez gero, mota horretako gatazka kudeatzeko izendatutako figurak egon beharko lirakeela. Izan ere, ikasleen artean egon daitezkeen arazoetan zentratzen gara beti (bullying-ean, adibidez), baina ez gara konturatzen irakasleak edo eskola-esparruan dagoen edozein pertsona bere ideiak eta emozioak dituen pertsona dela. Besteekin erlazio txarrak garatu eta horiekin eztabaidatu dezakeena.

Beraz, gatazkak ez dira ikasleenak bakarrik. Eta, hala badagokio, helduen bizikidetzaz lantzen duten langileak egon beharko lirateke. Ikuspuntu kriminologikotik, honek ere bere pisua izan dezake. Azken batean, prebentzio gisa jokatu lezake mobbing kasuetarako besteak beste. Hau da, lan-eremuan pertsonak tratatu etsai edo iraingarria, sistematikoki, arazo psikologiko eta profesionalak eragiten dizkiona jasatea ekiditea ekarri lezake.

Aurrekoaz gain, ikasgaien atalean azaldutakoarekin beste lotura bat egingo dut. Bada, aurrez aipatu dudan bezala, istripuak edozein unetan eta edozein lekutan gerta daitezke. Eta horregatik, ikastetxearen eremuan, medikuen presentziaren beharraz hitz egin nahi dut. Izan ere, batzuetan, erreakzionatzen jakitea ez da nahikoa.

Gogoan izan dezagun berriz ere, 1.elkarrizketatuak esandakoa:

“Osakidetzak dauka zentro bat, eta 15 egunetik behin etortzen dira gure eskolara. 15 egunetik behin? Oso ondo. ‘Y si hoy le da un brote de locura al crio, yo no soy psicólogo para tranquilizarlo’.

Ahal dudan guztia egiten dut haurra lasaitzeko, baina pertsona hori (osasungintzako langile bat) hor egongo balitz. Eta ez dut esaten erizaina uneoro, baina umeak dauzkagu diabetikoak direnak, ‘bajones de azúcar, subidones de azúcar’ ematen dietenak. Horiek zeinen ardura dira? Tutorearena?

Eta zuk, tutore gisa, ez duzu zertan dena jakin. Eta nik ezta ere. Eta bai bagaude, ni egonda nago bajoia ematen zionean umea gelatik atera, lasai jarri, azukrea eman, batidua eman, etab.

Gero beste batzuk daude, konbultsioak eta ez dakit zer ematen diotenak. Eta inyeztatu egin behar dira. Injekzio horiek ‘frigorifikoan’ eduki behar dira. Eta horien nahiz medikamentuen kadukatzeko data kontrolatu egin behar da. Eta hori ematen ere, bat-batean eman behar da. Eta ez bazara ausartzen?

ierri gertatu izan zait ume batek bolita bat sudurrean sartu eta irakaslea etortzea korrika, zer egin behar duen galdezka. Sudurrean bolita bat sartu duela eta, hatzarekin ahalegindu dela bolita kanporantz bultzatzen. Baina horrela ez. Goitik behera behera egin behar da, goitik behera bultzatu behar da. Zintza eginez, zintza.

Beste behin berriz, ezkutuan sartu zuen gelan karamelo bat haur batek, andereñoak ez ikusteko eta hemen, eztarrian geratu zitzaion. ‘Entre que tú no reaccionas y vienes donde mi a buscar la ayuda, ese niño ya se ha muerto’. Bueno bada, gero

ikaragarrizko bajoiak ematen dizkit niri, baina momentuan erreakzionatzen dut. Heldu umea hanketatik, buruz behera jarri eta bizkarrean joka. Eta hala ere ez zitzaion ateratzen. Azkenean tragatu egin zuen. Hala ere, badaezpada eraman egin zuten hospitalera begiratzera. Eztarri guztia ia odoletan zeukan. Esfortzuarengatik.

Bai. Horiek ondo atera zirelako. Horietako bat gaizki irteten zait eta ondoratu egiten naiz. Bai noski, nire eskuetan dago gainera. Eta ez da nire lana. Ulertzen didazu? Horrela gauza pila bat. Dira anekdotak gertatzen direnak, ordu pila bat pasatzen ditudalako eskolan”.

Aski da, kasu horri begirada bat botatzearekin, osasungintzaren inguruko jakintza duten pertsonak kontratatzeko dagoen beharraz ohartzeko.

Baliabide materialei dagokienez berriz, idaztear nagoen guztia elkarrizketatuengandik jasotako informazioa dela argi utzi nahi dut. Izan ere, egin ditudan elkarrizketetan, elkarrizketatuei egindako galderetako bat alderdi horrekin lotuta zegoen. Zehazki, galdetu diet zer absentsia mota antzeman dituzten beren lanetan baliabide materialei dagokienez.

Planteamendu horiek egin ostean, bi erantzun jaso nituen, bene-benetan espero ez nituenak. Eta erantzun horiek agian kriminalitate tasen igoerarekin lotura handirik ez badute ere, ezin izan dut saihestu horiek argitaratzeko tentazioan erortzea.

1.elkarrizketatuak adibidez, sukalde baten beharraz hitz egin zidan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen den ikastetxeetan. Konkretuki, ondorengo esan zidan:

“Sistema ez dago ondo. Eta beste gauza bat esango dizut, hori nik askotan eskolan eskatu izan dut eta ezin da. Ni DBHn egon nintzenean, DBHn edukitzen ditugu umeak maila igual batean ba lehenengo mailakoa (LHkoa) dutenak. Hau da, ez daki ‘sumar y restar, ni escribir su nombre’.

Hau da, hor daude (DBHn) eta ez dira joango hortik aurrera. Baina daude hirugarren DBHn. Adinez hor egon behar du. Bale. Errepikatu du eta hor egon behar du. Baina bere jakinduria, hor dago? (...) Honi autonomia erakutsi behar zaio. ‘Que vaya a la tienda de abajo, se compre una barra de pan y sepa cuánto dinero le tiene que dar a quien’.

Hori da benetan ikasi behar duena bizitza honetan: Patata tortilla bat egiten. Bada ni hasi nintzen egiten propagandako rebistak eman eta tomateak eta babarrunak moztuarazten. Eta egun horretan zer prestatuko genukeen galdetzen. Babarrunak

txorizoarekin adibidez, Ongi da, goazen ordenagailura, bilatu errezeta, ingredienteak bilatu, ingredienteak idatzi, eta. (...) Eta batuketa egiten ari gara. Ari gara idazten.

(...) Hori da, eta nik hau faltan botatzen dut, sukaldea. Sukaldea balu eskola horrek, bada egiten dugu zuzenean. Eta are gehiago, kalera joan eta erosketak egingo genituzke. (...) DBHn jangelarik ez zegoen, zegoen beste eskolan. Bi eraikuntza ziren eta gure edifizioan ez zegoen jangelarik.

(...) Eta aldi berean hizkuntza lantzen ari zara, ahozkotatasuna, inportanteak direla, idazketa eta matematika lantzen. Ari zara lantzen. Baina ari zara lantzen gero berak errealitatean erabiliko duena eta eskola ez dago prestatuta horretarako.

(...) DBH bai, han egon behar gara 16 urterarte. Errepikatuz 18 urterarte. Nahi duzuna, baina zertan? 'Escribiendo hoy he ido a la iglesia, mañana voy a comprar patatas'. Hori? Zer funtzionalitate dauka horrek? Ez dauka. Absurdoa da”.

3.elkarrizketatuak berriz, baliabide materialen beharrezkotasuna alboratu zuen. Bere baitan, inoiz baino baliabide gehiago dauzkagu eskura eta hein berean, beste herrialde batzuk inoiz izango dituztenak baino gehiago ditugu. Baina, hala ere, hori horren garrantzizkoa ez dela deritzo. Zehazki, ondorengo esan zidan:

“Asko da, irakaslearen erabaki hartzea. Nik pentsatzen dut, duela 30 urte hemen, gu gauden tokian pribilegiatuak gara. Ditugu toki askotan ez dauden eta izango ez dituzten baliabideak. Orduan, nik uste hezkuntza ez dela baliabiea. Hezkuntza da erabaki bat. Erabakia zer hezkuntza nahi dudan eman. Eta hezkuntza eman daiteke ezerekin. Ez da ezer gutxi behar. Orduan, eta askok esaten dute, jo formakuntza behar dugu. Bada, hartu zuk erabakia eta formatu zaitez zu ere. Ez dakit e, askotan formakuntzak jasotzen ditugunean ‘como churros’, ez zara zu, ez dago erabaki bat hartuta.

Orduan, baliabideetan baino, nik gabezia ikusten dut hori, kontziente izatea, nahiz eta legeak gauza bat esan, sekulako margena daukagula eta gauza asko egin daitezkeela. Eta, egin behar ditugula. Eta baliabideetan adibidez, eskoletan egokia izango zen, beste tokietan badago, erizaintza edo mediku zerbitzua egoten da ere bai.

Gero ere bai, baina, eskola batek sukaldea nahi badu adibidez (1.elkarrizketatuari erreferentzia. Lehenago horren inguruan hitz egiten egon garelako), eskatzen da eta egiten da. Ez dakit, esan nahi dut, ez gara kontziente zenbaterainoko indarra daukan eskola batek. Zaraguetan adibidez uste du 200 familia daudela. 200 familia, zenbat

indar dauka horrek. Eskola batek sukaldea behar duela? Bada egin zazu hor, jarri zazu, botearekin, imagina 200 euro balio baditu, familia bakoitzak euro 1.

Erraza izan daiteke, baldin eta modu aktibo batean jokatzeko badugu. Eskatzen dut eta ez didate ematen. 5 urte nire eskatzen. Joe horren garrantzitsua bada, goazen egitera. Edo goazen transmititzera familiei zeinen garrantzitsua den hau egitea eta zenbaterainoko indarra duten. Azkenean sukaldea baino askoz, pedagogikoki, eragin askoz handiagoa izango du egindako ibilbide hori. Aktibatzea, familiei transmititzea, denon artean egitea eta emaitza bat eskuratzea. Emaitza bat daukagu eta agian ez dugu erabiliko baina, ze garrantzitsua izan den prozesu hori egitea”.

ONDORIOAK

Ikuspegi teoriko batetik, hezkuntza eta kriminalitatea lotuta dauden bi faktore dira. Kausalitatea, normalean, hezkuntzatik portaera kriminalera doa, hau da, hezkuntzarik ez duen edo hezkuntza gutxi duen pertsona batek joera handiagoa du delituak egiteko, hezkuntzarik ez duen edo, besterik gabe, hezkuntza-maila handiagoa duen pertsona batekin alderatuta. Hein berean, kausalitate hori alderantzizkoa ere izan daiteke. Hau da, delituak egiteko joera handiagoa duen pertsona batek eskolan jarraitzeko probabilitate txikiagoa du delitu horiek egiteko joera ez duen pertsona batekin alderatuta.

Eta datu horiek babesten dituzten hainbat ikerketa dauden arren, oro har, praktikan kausalitate horrek zenbait traba ditu. Izan ere, ikertzaileek ez dute kontuan hartzen ondorengo hau: hezkuntzak kriminalitatea inhibitzeko duen gaitasuna gorabehera, egungo hezkuntzak dituen ezaugarriak direla eta, kausalitate horrek kontrako eragina du. Hau da, indarrean dagoen hezkuntza sistemaren gabeziek eragiten dute, hezkuntzaren bidez kriminalitate tasak gutxitzea ez lortzea. Aitzitik, arrisku-faktoreak areagotzen ditu adingabe bat bere helduaroan kriminal bihurtzea eragin dezaketenak.

Horren arrazoi nagusia da hezkuntzak ez duela balio adingabeak helduaro errealarako prestatzen laguntzeko. Are gehiago, praktikan, egungo hezkuntzak ikasleak goi mailako ikasketak egiteko prestatzeko baino ez du balio, eta ez eguneroko beharrei aurre egiten erakusteko.

Orain arte Europako herrialdeen joera izan da, batez ere, herrialde nordikoek aplikatzen duten hezkuntza sistemen jarraipena egitea eta imitatzea. Uste orokorra da nazioartean egindako hainbat probatan herrialde nordikoak izan direla emaitzarik onenak eskuratu dituzten herrialdeak.

Sineste horrek, gizartean dauden mitoekin batera, iparraldeko herrialdeen hezkuntza arrakastaren sinonimo bihurtzea ekarri du. Baina errealtatean hori ez da horrela, bertan erabiltzen duten heziketa ez da perfektua ez eta horren eraginkorra ere.

Alde batetik, hezkuntza kalitatea kalkulatzeko erabilitako proba horiek ez dute beren funtzioa betetzen. Izan ere, ikasleek soilik esparru jakin batzuetan duten gaitasuna kalkulatu duten frogak dira. Beraz, proba horien emaitzak lotuagoak daude herrialde bateko IKrekin, hezkuntza kalitatearekin baino.

Gainera, nahiz eta iparraldeko herrialdeek kalifikazio altuak lortu ohi dituzten, azken probetan Asiako herrialdeengatik gaindituak izan dira, Txinagatik eta Hegoaldeko Koreagatik, esaterako.

Azkenik, ikuspegi kriminologikotik, ikusi da emaitza akademiko altuek ez dietela kriminalitate tasei eragiten. Eta, horregatik, sistema horiek arrakasta gisa definitzea akats handia da, horien atzean oraindik lan handia baitago egiteko.

Hortaz, ez dago sistema perfekturik munduan. EAEko hezkuntza sistemari dagokionez ere, hainbat akats nahiz gabezia dituela begibistakoa da. Eta, horiek konpontzeko, herrialde nordikoen ereduei erreparatzea ez da nahikoa. Horren ordeaz, beste hainbat esku hartze egin ditzakegu eta egin beharko genituzke.

Lehenik eta behin, argi dago egungo ikasleei irakasten zaizkien irakasgaien artean, hainbat jakintza moten inguruko gabezia dagoela. Badira oinarrizkoak diren ezagutzak ikasleek bereganatzen ez dituztenak. Eta jakite mota horiek eskuratzea ez da, edo gutxienez ez litzateke izan beharko, gazteek beren kabuz egin beharreko lan bat.

Are gehiago, zenbait ezaguera eskuratzea ezinezkoa nahiz oso zaila izan dakieke beren testuingurua dela eta. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxek hainbat ikasgai eskaini beharko lituzkete, besteak beste, giza eskubideak, kulturartekotasuna, sexu-heziketa, lehen sorospenak eta ongizatea, ekonomia, informatika eta bide heziketa.

Soilik horrela lortuko litzatekeelako, elkarbizitzan lagunduko lukeen jakinduria komuna ezartzea gizartean, hau da, belaunaldi berriek (egun batean mundua gidatuko luketenean) oinarrizko ezagutzak izatea eta bereganatzea. Aldi berean, delinkuentzia tasetan eragiten duten arrisku faktoreak gutxitzea eragiten duten ezagutzak lirateke honakoa.

Gutxi balitz, eskoletan irakatsi beharreko gai zerrenda aldatzea ez da aski hezkuntza sistemak dituen akats guztiekin amaitu nahi bada. Horrez gain, ikasleei jakintzak irakasteko erabiltzen den metodologia aldatzea ere ezinbestekoa da.

Irakasteko gaur egun erabiltzen diren metodoek eragiten dute ikaslearen otzantasuna areagotzea, konkretuki, ikastetxean egitura hierarkiko bat dagoela aldarrikatuz. Ikasleak gizarteko kide aktiboak izatea lortu nahi den arren, heziketa guztia dago antolatuta, formakuntzako kide pasiboak soilik izan daitezten. Eta horrek ez die lagunduko inondik inora ere helduarora iristean autonomia izaten.

Nola egin behar diete aurre arazoei, kanpoko eragileen hartzaile paisboak izan direnean horrenbeste urtetan zehar? Nola jokatuko dute, erabakimenerako gaitasuna haurtzaro osoan zehar ukatu zaienean? Argi dago, ez dute jokatuko edota beren jokamoldea ez da egokia izango.

Bestalde, ikasleen hezkuntzan eragiten duten heldu guztiengan fokua jartzeak ere badu bere garrantzia. Irakasleak bakarrik existitzen direla pentsatu ohi dugu, eta egia da garrantzi handia dutela ikasleen formakuntzan. Baina ez dira hurrekin kontaktua duten langile bakarrak. Gazteen hezkuntzan eragiten duten heldu gehiago ere badaude, eta kalitatezko hezkuntza lortu nahi baldin bada, ezinbestekoa da horien arteko kolaborazioa.

Irakasleen kasuan gainera, kolaborazioa sustatzea ez da nahikoa. Jasotzen duten formakuntza ere aldatu beharra dago. Lan mundura ongi prestatu gabe irteten dira. Jakintza arlo zabala lantzen badute ere, guztiak modu teoriko batean lantzen dituzte nagusiki. Horregatik, errealitateko zailtasunei aurre egiterakoan, erantzun sorta oso mugatua daukate. Ez dakite nola jokatu, eta ezjakintasunetik, jokamolde negatiboak besterik ez dira erartortzen.

Behatu ahal izan dudak azken gabezia, giza baliabideen ingurukoa izan da. Bereziki, ikastetxeetan, bi langile motaren beharra dagoela deritzot. Larrialdi kasuetarako osasungintzaren inguruko jakintzak dituen pertsona batena (erizaina nahiz medikua izan litekeena) eta hezkuntzaren esparruko helduen artean sortu daitezkeen gatazkak kudeatzeko gai izango den batena (psikologo, gizarte hezitzaile nahiz ezagutza antzekoak dituen pertsona bat izan liteke honakoa).

Horretaz, aipatu berri ditudan gabezia guzti horiei aurre egitea litzateke, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetu eta kriminalitaterako arrisku faktoreak izan daitezkeen eragileen agerpena saihesteko modu bakarra. Faktore horiek guztiek, neurri txikiagoan edo handiagoan, adingabe batek kriminalitatearekin harremanetan jartzeko duen probabilitateari eragiten baitiote. Ez bakarrik arau hausle gisa, baita biktima gisa ere.

Laburbilduz, EAEko heziketan hauteman daitezkeen akatsak konpongarriak dira. Eta gizarteko kide guztien lankidetzarekin, horiei aurre egitea posible da. Halere, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzea eta aipatu ditudan akatsekin amaitzea beti izan da posible. Ezberdintasun bakarra da, orain arte, ezikusiarrena egitea izan dela gizarteak hartu duen joera. Esan berri dudana ongi irudikatzeko balio du besteak beste ondorengo esaldiak:

“Cuando el agua te llega al cuello, no te preocupes si no es potable” (Stanislaw Lec, 1909-1966)

Baina heldu da garaia heziketako oztopo horiei aurre egitekoa. Begiak zabaldu eta hamarkada askotan zehar indarrean egon den hezkuntza gainditu egin behar dugu, zaharkituta gelditu baita. Modu trauskil batean esate aldera, mugi dezagun ipurdia. Halaz, eta iada gradu amaierako lanari amaiera ematen joateko, espainiar dramaturgo baten hitzak gogora ekarriko ditut:

“Yo sé que la muerte no resuelve nada, que todos los problemas hay que resolverlos de pie” Alejandro Casona (1903-1965).

BIBLIOGRAFIA

Arbeláez, C. T. (2020, 21 octubre). *La pirámide del aprendizaje*. Koideas Aprendizaje. <https://www.koideas.com/post/la-piramide-del-aprendizaje>

Cantó López, J. A. (2019). *Las enfermedades venéreas y el cp español*. <http://193.147.134.18/bitstream/11000/6859/1/TFG-Juan%20Antonio%20Cant%C3%B3%20L%C3%B3pez.pdf>

Equipo de Expertos en Educación. (2021, abenduak 23). *El fracaso escolar precipita el hecho delictivo, según un Trabajo de Fin de Máster de la VIU*. <https://www.universidadviu.com/es/actualidad/nuestros-expertos/el-fracaso-escolar-precipita-el-hecho-delictivo-segun-un-trabajo-de>

European Commission. (2022, martxoak 7). *Organización y administración general del sistema educativo*. Eurydice. https://eacea.ec.europa.eu/national-policies/eurydice/content/organisation-and-governance-79_es

Eusko Jaurlaritza. (2007). *Ordenación y Características del Sistema Educativo Vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_sist_educativo/es_def/adjuntos/000002c_Pub_EJ_Sistema_Educativo_Vasco_c.pdf

Fernández, A. (2016). *Una crítica metodológica a las evaluaciones PISA*. EUG Editorial Universidad de Granada. <https://doi.org/10.7203/relieve.22.1.8806>

García Giménez, A. (2015). *Estudio comparativo de los sistemas educativos de Finlandia y España*. <https://zaguan.unizar.es/record/31814/files/TAZ-TFG-2015-1191.pdf>

García Parales, N., & Martín Sánchez, M. (2011). *Algunas notas en perspectiva comparada sobre formación de maestros: el caso de España y Finlandia*. https://dehesa.unex.es/flexpaper/template.html?path=https://dehesa.unex.es/bitstream/10662/4681/1/1988-8430_13_70.pdf#page=16

Gutiérrez, E. J. D. (2004). *Interculturalidad, convivencia y conflicto*. Dialnet. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1138352>

Hezkuntza Saila. (2020). *Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistemari buruzko informazioa*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sistema_educativo_vasco/es_def/adjuntos/Informazioa_familiei_euskaraz.pdf

ISEI-IVEI. (d.g.). *Unibertsitatez kanpoko araudi akademikoa - ISEI - IVEI*. [isei-ivei.hezkuntza.net.https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/normativa-academica-no-universitaria](https://isei-ivei.hezkuntza.net/eu/normativa-academica-no-universitaria)

López, M. (2022, apirilak 3). *Calendario escolar 2021–2022 en País Vasco*. Clubcampamentos.info. <https://www.campamentos.info/noticias/calendario-escolar-de-espana-por-comunidades-autonomas/Calendario-del-curso-escolar-2021-2022-en-el-Pais-Vasco>

Luna, F., Damborenea, M. a. D., & Ugarriza, J. (2017). *PISA 2015 EUSKADI INFORME DE RESULTADOS: Proyecto para la Evaluación Internacional de Estudiantes de 15 años en Ciencias, Matemáticas y Lectura*. ISEI - IVEI. https://isei-ivei.hezkuntza.net/documents/635622/1096331/INFORMEPISA2015_EUSKADI.pdf/6fed30d6-36c0-4b34-9dbf-6a07f8ab8bec

Miguel, J. M., Caís, J. & Castilla, E.J. (1995). *v informe sociológico sobre la situación social en españa (síntesis) - ds.101*. caritas española.

Nieto-Morales, C. (2011). *Fracaso escolar y conflicto con la ley*. Dialnet. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3655841>

OECD. (2021). *About - PISA*. Oecd.Org. <https://www.oecd.org/pisa/aboutpisa/pisa-participants.htm>

OECD. (2021). *PISA in focus*. Oecd.Org. <https://www.oecd.org/pisa/pisa-en-espanol.htm>

OECD. (2021). *PISA - Programme for International Assessment*. [oecd.org.https://www.oecd.org/pisa/pisafaq/#:~:text=PISA%20ranks%20participating%20countries%20and,be%20used%20to%20rank%20countries](https://www.oecd.org/pisa/pisafaq/#:~:text=PISA%20ranks%20participating%20countries%20and,be%20used%20to%20rank%20countries)

Rindermann, H. (2007). *The g-Factor of International Cognitive Ability Comparisons: The Homogeneity of Results in PISA, TIMSS, PIRLS and IQ-Tests Across Nations*. Wiley InterScience. <https://doi.org/10.1002/per.634>

Statista. (2020, urriak 19). *Delitos registrados por 100.000 habitantes en los países de la Unión Europea en 2018*.

<https://es.statista.com/estadisticas/609649/numero-de-delitos-registrados-en-los-paises-de-la-union-europea/>

Vasco, G. J. E.-. (2019). *Informe PISA 2018: Euskadi mejora sus resultados tanto en Ciencias como en Matemáticas - Gobierno Vasco*. Euskadi.eus. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/informe-pisa-2018-euskadi-mejora-sus-resultados-tanto-en-ciencias-como-en-matematicas/>

Vasco, G. J. E. (s. f.). *Sistema Educativo Vasco. Información para las familias - Centros educativos y enseñanzas - Euskadi.eus*. Basque Administration Web Portal. <https://www.euskadi.eus/sistema-educativo-vasco-informacion-a-las-familias/web01-a2hikast/es/>

Vettenranta, J., Hiltunen, J., Kotila, J., Lehtola, P., Nissinen, & et al. (2020). Finnish students' mathematics and science performance on a good international level– skills differences increasing. Jyväskylän Yliopisto. <https://www.jyu.fi/en/current/archive/2020/12/finnish-students2019-mathematics-and-science-performance-on-a-good-international-level2013-skills-differences-increasing>

Vettenranta, J., Hiltunen, J., & Kotila, J. (2019). *TIMSS 2019 Encyclopedia: Finland*. Timssandpirls.Bc.Edu. <https://timssandpirls.bc.edu/timss2019/encyclopedia/finland.html>

1.ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA

Aurkezpena

Gutxi Gorabehera 30 urte daramatzat lanean hezitzaile bezela, heziketa berezian. Hainbat eskola pasa ditut eta oposaketak gainditu ezkerro gehien bat eskola berdinean egon naiz. Nahiz eta maila desberdinetan egon (HHn, LHn eta DBHn, eta eskola publikoetan normalean). Hasieran ordezkapenetan bai ibili nintzen eskola konzertatutan, zeren, orduan posible genuen guk ere han parte hartzea baina gero lege bat aldatu zen, ez naiz gogoratzen ze urtetan. Hark erabaki zuen pribatuetara eta kontzertatuetara ez ginela sartuko. Eskola horiek beraiek hartuko zituztela behar zituzten pertsonak. orduan gu gelditu ginen eskola publikoetan bakarrik lana egiteko.

Duela bi urte aukera eduki nuen eskola txikietara joateko baita ere, zeren, inoiz ez nintzen egon, eta ez dauka zer ikusirik eskola publiko handi bat, bada agian, lau lerrotako eskola bat edo eskola txiki batean adin desberdinetakoak denak elkarrekin daudelako. Niretzako izan zen esperientzia berri bat.

Nik egiten dut lana gehien bat, gu berez ez gara eskolako langileak, eskolan lana egiten dugu, baina guri ez digu eskolak zuzenean zuzentzen. Gu berritzeguneko pertsonala izango ginateke.

Zer da berritzegunea?

Berritzegunean egoten dira aholkulariak, eskolan ume beharrak bereziekin ikusten badira edo zerbaiten gabezia daukala edo, eskolako aholkulariak lehenengo edo kontsultalariak, berdina da, behaketa bat egiten diote ume horri eta ikusten baldin badu eskolak ematen dion laguntza baino gehio behar duela berritzegunera joaten da. Eta hango pertsonala etortzen da ume horri behatzera. Item batzuk pasatzen dizkie ikusteko ze gabezi dauzkan edo. Eta horren arabera eskatzen dute gure pertsona, hau da, hezitzailearen laguntza edo ez.

Beraien esparrua, baremo batzuk dauzkate, eta umeak iada etortzen baldin badira diagnostiko batekin, diagnostiko horrek laguntzen diete, berritzegunekoei, gure ordu kopurua eskeini ahal izateko.

orduan hor ez dago inor diagnostikua itera bideratuta, ezta?

Guk ez dugu diagnostikorik egiten. Eskolak normalean aholkulariak edukitzen ditu, eta baliabideak edukitzen ditu diagnostiko bat egiteko edo gauza konkretu batzuk begiratuta alerta sortzen duen zerbait, ez? orduan, pauso hori ematen da.

Berritzegunera joaten dira, hango aholkulariak etortzen dira, pedagogoak edo izaten dira normalean, psikopedagogia edo egindakoak eta haiek etortzen dira behaketa bat egiten dute eta agian zuzentzen die, pediatarrengana joan behar duela ume horrek eta pediatarren bitartez neurologoarengana bidaltzen zaie. Edo bideak pixkabat markatzen ditu. Eta hortik jasotzen dutenean informazio gehiago, orduan erabakitzen dute, ume horrek behar du hezitzaile bat hainbeste ordu ba hontarako edo hantarako.

Agian, batzuk izaten dira behar fisikoa dutenak. Beste batzuk laguntza akademikoa behar dutenak ba agian lana egiteko garaian zailtasunak ditzute. Arazoak dituzte zentratzeko, orduan, bada umea pixkat zentratu eta lanak aurrera eramateko. Baina hor normalean eta berez behar luke, ez da beti gertatzen, koordinaketa bat egon behar da. Koordinaketa bat egon behar da gu, ume horren tutorearekin, eskolako aholkulariarekin. Guztien artean bidea pixkat bat errazteko.

Eta ez da gertatzen?

Batzuetan bai, eta bestetan ez. Batzutan tutorea iristen da, ez du laguntza onartzen edo ez du etab. Beste batzuetan aholkulariak esaten du: “ume hau ondo dihoa, ez dakit zer, eta beste batzuk: “oso ondo dihoa...”. Bileran gaude. Hau egiten dugu, beste hau egingo dugu. Tutoreak zailtasunak baldin baditu: “ba nik hau lantzeko nola egin dezakegu? Eta aholkulariak pistak ematen dizkio : “ba nik hau egingo nuke, eta hau beharrezkoa ikusten dut nik,...

Zertan datza zehazki zure lana?

Bada pixka bat komentatu dizudana. Orain, adibidez, tokatzen zaidan umearen arabera, tokatzea dauka ume autista bat, tokatzea dauka gurpil-aulki batean dagoen ume bat espina bífida duelako edo garun paralisi bat duelako edo tokatu daiteke jarreran arazoak dituen ume bat.

Normalean jarreran arazoak dituen umeak guri ez dagozkigu, baina azken urteetan, goitik etorrita, eskola moldatu behar da ume horiekin. orduan, niri gertatzen ari zaidalako momentu honetan, ditut atzerapen orokor bateko neska bat, fisikoak ere baditu, baina moldatzen da. Gainera aurrerapen handia egin du, ze lehenago, guk eskolan dugu mendi bat, sortea dugu belardia duela eta aldapan gora igotzeko hankak

eta laguntza behar zuen estabilitaderik ez duelako. Eginean poderioz lortu du estabilitade hori eta konfiantza gehiago du. Hori bat.

Beste bat dut, ipotxa, bere gaixotasunaren izena acondroplasia da. Izena aurten ikasi dut. Horrek behar du desplazatzeko laguntza. Hiru urteko gelan dago, orduan akademikoki ez dakigu oraindik beharrik edukiko duen ala ez. Oraindik ez digu eman, pistarik zailtasunak dituen edo ez ikusteko. Hori gehien bat gelan ondo moldatzen da, baina bai egin izan dizkiogula egokitzapenak. Iturrira eskuk garbitzera joateko ez zen iristen. Orduan kaja txiki bat zuen horrera igo eta iristeko. Gero konturatu nintzen baita ere iturria oso urruti zegoela eta nahiz eta kaja jarri eskuak ez zitzaizkiola iristen. Orduan iturri berezi bat jarri zitzaion. Nahiz eta tutoreak ikusi, nik eman dut pausoa. Gehiago zaudelako ume horrekin momento guztietan. Eskailerak igo, jaitsi, etab. hortan laguntza behar du, ze eskailerak ez zaizkio ematen jaisteko, nahiz eta berak egin zu hor egon behar zara alerta edozein momentutan erortzeko arriskua dauka.

Eta esaten ari nintzena, beharrak dituzten ume horiei lehen komentatu dizuten balorazioarekin ikusten da hezitzaile bat behar duela laguntza emateko, etortzen dira beste ume batzuk ez dutenak inungo behar fisiko edo mentala,...

Jokabide arazoak?

Hori da, jokabide arazoak eramaten dituzte gelalara. Orduan, hauei orduak kentzen dizkiete eta bertara sartzen gaituzte. Nahiz eta ikuskariarengana joan hezkuntzan eta esan: "ikusi, aizu, arazo hau dugu, ez dakigu nola moldatu,..", beraien zera da...."eskolak moldatu behar du". Eskolak moldatu behar du, denen inbolukrazioa behar du. Libre dauden tutoreak laguntza ematera sartzen dira, baino hor galtzen ateratzen dena, eta nik hori gaizki ikusten dut, benetan diagnostiko bat dutenak, eta benetan baliabidea duenak laguntzarik gabe geratzen dira. Eta zertarako? Ba jokabide arazoak dituzten ume horiei... nola horiek gela dena hankaz gora jartzen duten, gai dira gela hankaz gora jartzeko, eta berdin da ze adin eduki ze oraintxe dakat bost urteko ume bat, ba jotzen hasten baldin bada edo ... botatzen hasten baldin bada, prioritatea hark duela eskolan.

Ulertu dudanagatikan, horietako pertsonak zuena bidaltzen dituzte, baino zuek ez zarete ikasgelan sartzen edo zuek sartzen zarete ikasgelan?

Bai, bai. Gu gelan gaude beti, momentuero gelan. Umeekin gaudenez, gela barruan gaude. Kasu hauetan gelatikan atera egiten dugu, zeren ari da gela hankaz gora jartzen. Eta beste umeen aurrean ikusita, ez da egokia ere beste umeek jokabide hori

ikustea. Orduan, gelatik ateratzen dugu, lasaitzen saiatzen zara beste gela txiki batean bereziki berari jarritako gela batean, agresibitate hori botatzeko. Gure lana pixka bat hori da. Eta umea tokatzea dauka genero guztietakoa. Autistak tokatzen baldin bazaizkizu, ba berdin. Horiek daude deskonektatuta bizitza errealetik esango genuke. Eta pixkat bera ekarri arazi, besteekin jolastu arazi.

Eta lana hori egiterakoan topatu dituzun zailtasun handienak eta errestazun handienak zeintzuk izan dira?

Zailtasunak? Esperientzia dexente. Nik hasieran edukitzen ditut zailtasunak, umea ezagutu arte. Behin umea ezagututa, esan dizudan koordinaketa hori badago, ez da zaila egiten. Beste gauza bat da tarte horretan zer den eta gertatu zait niri behin baino gehiagotan bakarrik sentitzea. Bakoitzak egitea, "aiba, ba hori zure umea da, ez? iada zu zaude ume horrekin eta zure umea da. Eta orduan eskuak pixkat garbitzen dituzte eta zuk atera behar dituzu las castañas del fuego esaten dena. Eta gertatzen dira, behin baino gehiagotan. Eta honen aurrean? Ba beno.

Eta ikasketei begira galdetu didazula, bada ni lanean hasi nintzenean honetan, nik ikasketak egin nituenak izan ziren, gaur egun izango litzatekeen orduan zen auxiliar de clínica. Orain enfermeritzako erdi maila edo ez dakit zer den. Hori egin nuen eta baita ere puerikultura.

Zer da hori?

Ba haur eskoletan lana egiteko. Gaurko haur eskoletan lana egiteko. Orduan ziren guarderías. Baina bueno. Nik horiek egin nituen eta ikasteari utzi egin nion, Ikasketak utzi nituen eta ume zaintzen jarri nintzen. Ume zaintzen jarri nintzen aurrena ume batzuekin, gero beste batzuekin,... Eta horrelako batean deitu zidaten hezkuntzatik lan hau eskaintzeko. Eta nik noski, titulazio horiek atera nituenean, izeba batekin, erizaina zela, joan nintzen Donostiara, titulu horiek aurkeztera. Gero konturatu nintzen hezkuntzara joan ginela eta aurkeztu genituela tituloak eta osakidetzan ere bai. Auxiliar nola egin nuen, klinikan lana egiteko ere aukera banuelako. Orduan horiek zeatu genituen eta ni iada ahaztu egin nintzen. Ni iada lanean hasi nintzen umeak zaintzen eta horrela.

Orduan, bada deitu zidaten hezkuntzatik. Baina izan zen egun batetik bestera lan egiteko. Eta nik orduan ez nekien zer egin. Orduan izebari deitu nion. Ba orduan egun baten etxe hortatik atera eta segi Donostira ze Donostin tokatu zitzaidan. Donostira joan nintzen geltokian trenez eta nik hitz egin nuen neskek esan zidan: "Yo te esperaré

en la estación”. Eta nik ez nuen ezagutzen inor. Nik azaldu nion nolakoa nintzan. Berak azaldu zidan nolakoa zen, eta iritsi ginenean: “tu X? Si. Yo Y”. Eta horrela.

Bueno ba, hasi nintzen lanean espina bifida (espina bifida da bizkar hezurra osatu gabe duten umeak) eta, ez dakit hiru edo lau urteko gelan zegoen ikastolan. Lehen esan dizudana, ez? Orduan eskolara joaten ginen, bada ikastolan. Eta gero, Alde Zaharrearneukan itxu bat. Jangelako orduan egon behar nintzen berarekin laguntza ematen, bada mozten eta horrela behar baldin bazuen eta gero jan ondoren patioko eskolara joan bitarteko zaintza hori egiteko. Horrela hasi nintzen. Gerora lan horri etorri zitzaizkidan ordezkapen bat, bestea, bestea, aurreraka. Zenbat eta puntu gehiagorekin zoazen, ordezkapenak denbora luzeragokoak hartzen dituzu eta orduan umeak, lenuo esan dizudan bezela, klase guztietakoak tokatu zaizkit. Eta eskola desberdin askotan egon nintzen ordezkari bezela. Gero oposaketak egin nituen, oposaketak atera ziren bada aurrengoan ez nituen atera, bigarrengoan ez nituen atera eta hirugarrengoan iada atera nituen.

Egia esan behar dut aurreneko oposaketetan gehien bat jarri ziguten temarioa el curriculum del colegio. Eta hori guk egiten genuen lanakin ez zuen zer ikusirik. Berdin zait burokrasia nolakoa den ze nik jakin nahi dut umea espina bifida daukanarekin nola lana egin behar dudan. Eta bueno, ba hirugarren oposaketa hortan bai ziren gaiak gurekin lotutakoak. Orduan horiek prestatu nituen eta atera nuen plaza. Eta orduz gero nago Lasarteko berritzegunean.

Esan dizudan bezela, lehen berritzeguneak zeuden Ordizian bat, Tolosan zegoen beste bat, Lasarten zegoen beste bat, Errenterian, Irunen, osea, multzoka zihoan, ilaraka bezala. Baina orain Lasarteko hortan daude ia denak, Goierri osoa, osea Ordizikoa eta Tolosakoa ere horrela daude denak, zentralizatuta. Orduan jende pila bat jartzen gara, bilerak egiten ditugunean jende pila bat, hezitzaile pila bat. Eta hor atera nuen plaza eta etxetik gertu, pozik. Eta 40 urtekin berriz ikasten hasi nintzen.

Zer ikasi zenuen?

Orduan egin nuen haur hezkuntzaren goi maila. Oraingo goi maila. Orduan izango zen ba FP2 garai hartan. Eta utzi nuen. Eta beti neukan hori. Nik ikasi nahi nuen eta bueno. Gaur egunean egoten naiz batzuetan beste zerbait egiteko, baina iada..

Eta hori, nik 40 urterekin egin nuen gainera egin nuen lanean nembilela, gehiago kostatzen da, bi urteko ikasturte bat edo bi urteko kurtso bat lautuan egin nuen, a distancia egin nuelako. Urtean zehar hartu nituen asignatura batzuk eta azterketak nituenean aukera dakat hezkuntzan azterketa dudanean jai hartzeko. Ordezko bat

bidaltzen dute eta ni joaten naiz egun osoa arratsaldean badaukat goiza ere azkenengo errebasoak emateko. Eta horrela lau urtetan atera nuen eta gustora. Eta orduan, haur hezkuntza egin nuen pues umean etapa guztiak ikasten dituzu pixkat. iada badakizkizu ze ama zara eta horrela.

Erakutsi dizutena uste duzu egokia dela zuek prestatzeko, zuk egiten duzun lanposturako?

Gure lana egiteko eskatzen dituzte, gaur egun, orduan auxiliar de clinica eskatzen zuten bezela, gaur egun eskatzen dute edo haur hezkuntza goi maila edo integración social, goi maila. Nik uste dut integrazio sozialen, nik ez dut eman, baina asignatura desberdinak dira haur hezkuntzatik, eta nik pentsatzen dut haiek prestatu gehiago ote dauden, ezin dizut seguru esan, baino gero lanean hazten zara eta teoriak sirve muy poco. Bai eduki ditut, ikastaro pila bat egin ditut. Urtero urtero eskaintzen digute kurtso bukaeran ikastaroak egiteko aukera. Eta nik pila bat egin ditut. Gero, gainera, komentatzen nizuna, nik egin nituen ikasketagatikan oraingo ikasketetara pasa ahal izateko, nola finkoak ginen, niri derrigortu egin zidaten ikastaro batzuk egitera. Ekiparatzeko, esango genuke. Oraingo goi maila hori ekiparatzeko. Eta orduan bai eman nituen ikastaro horietan bai jartzen zaiue horrela, realidad. Porque ikastaroak ziren itsuei buruz, gorrei buruz, braileko kontuak erakutsi dizkigute, hau da, más funcional.

Eta formakuntza bera? hasieran egin zenuena ikastarorik gabe?

Aurrena klinikan egin nituen praktikak, de auxiliar. Osea, nada que ver. Eta puerikultura egin nuenean ere guarderia batean egin nituen, Fraisoron egin nituen. Eta hori ere izan zen tela marinera. Ume guztiak ziren utzitakoak. Eran niños abandonados. Orduan monjak zeuden. Orduan esan nahi dut, oraingo errealitatearekin ez dauka zerikusirik.

Eta gero zure lankideen inguruan baita ere. Zure ustez ondo preparatuta daude? edo gabezik daude?

Nik gauza asko ikusten ditut, eta DBH-n egon nintzenean, bazkaltzen ari ginela, nik behin edo behin horrela esan nien irakasleei. Nik bakarrik naiz hezitzailea, Gehio geunden baina momentu honetan ni bakarrik nengoen. Eta nik behin esan nien: irakasliok aurrean dakazue mahaia, baino eserita egoten zarete. Baina nik uste dut atzera etorri behar duzuela. Zergatik esaten duzu hori, X? Ba ni atzean nagoelako denbora guztian porque normalian, claro, DBH 1an ezin zaituzte jarri aurreneko ilaran ze ni naiz handia, atzekoei obstruitu egiten diezu. Eta orduan normalean jartzen

zaituzte atzean, eta gainera ahal baldin bada ixkin batean eta horrela. Beste ume hori gelako batekin eta zu aldamenean laguntza emateko. Ahal den gutxina estorbua egiteko. Eta nik atzetik ikusten dut denetik. Informatikan daudenean zein dagoen benetan informatika egiten, azterketan dagoenean zein dagoen benetan txuleta ateratzen, eta irakasleak banatzen du eta han atzean dago.

Eta batek esan zidan: "ba agian gelako bileretan zu egon beharko zenuke", eta hori niretzako gratifikantea da. Baina nik esan nion: "nik? ez, ez, ez. Nik ez dakit zer ikusirik zuek egin behar dituzuen ebaluaketetan eta zea, ni nago honekin eta ebaluaketan zuek egin behar dezue. Nik ez dut egin behar". Baina nik gauza asko ikusten ditut atzetikan. De hecho, txuletak atera eta kopiatzen ere bai. Baina ni ez naiz inor tutoriana jun eta esateko: "hori kopiatzen ari da". Hala da. Zure lana da. Eta ez eserita... Ni ez naiz izango txibata de la gela Bale. Eta agian pasa egiten dute. Pues hori. Hori bat.

Eta hor ikusten duzu bakarren bat konturatzen dela han zaudela eta kontuan hartzen zaituela. Eta bestela gertatu daiteke zu gelan sartzen zarela eta ez dute nahi zu han egotia. Porque iada sartzen zara eta ikusi egiten duzu nola ari diren lanean eta beraiei ez zaie gustatzen porque ez dakit zer, ez? Prejuizioak edo, ez dakit.

Eta nik ikusten ditut irakasle batzuk pila bat balio dutela, pila bat inbolukratzen direla umeekin. Eta beste batzuk...ez? Orduan,... Hori batzuk. Beste batzuk guk ume horien gurasoekin bilerak egiten direnean, gu egoten gara eta berez egon behar gara porque gu gaude eguneko ordu pila bat ume haiekin. Ba niri gertatu zait tutoria etortzea eta esatea, zu gurasoen bileran ez zea egongo, eh? Eta nik erantzun: baina barkatu, ume hauen bileretara beti egoten gara gu. Baina ez, ez. Nik erabaki dut ez zarela egongo. Esan nuen, bale ba zuek erabakia da, eh? Bai, bai. Bale. Ni joan nintzen zuzendaritzara eta esan egin nion: aizu, hola eta hola eta esan dit bileratan...Nola ? Nik esan diot bilera horietan gu egoten garela, gu parte garela, eta esan dit ezetz. Nik bakarrik jakin gainean utzi nahi zaitut bere erabakia izan dela. Ez nagoela ni bidea egiten. Gelditu zen flasheauta baina ez zuen nire parte hartu esateko irakasleari "aizu, barkatu. Etorri zait Pili, esan dit hau eta jakin dezazula egon behar duela bileran". Ahí se quedó.

Orduan funtzionatzeko era segun zeinekin tokatzen zaizun. Eta beste batzuk daude hizkuntza arkaika. Hago esta ficha en el año 1999 y hago esta ficha en el año 2014. No he progresado. Eta horri ze, nire ikuspuntua da, hori konfiantza ematen dio, seguridadia ematen dio eta nik zertarako aldatu beharko dut, ez? Eta irakasle berriak datozenak hori aldatu nahi dute eta ez diete usten. Txokea dago beraien artean. Eta

zu zaude hor de observadora. Y dices, joder... esta que lleva 50 años aquí, y la nueva que ha venido la lleva clara. Hor gaude. Harremanak? ni saiatzen naiz inguruko guztiekin ondo moldatzen, porque kurtsoa askoz ere errezago juten da. Baino horrelakoak tokatzen direnean ez da batere erraza. Edo irakasle batek zeloak edukitzea zutaz. Ba umeak zuregana zuzentzen direlako. Eta niri gustatzen zait gelako partaide bat izatea. No una cosa rara que está ahí atrás con tal niño. Gelako partaide izatea eta denak harreman edukitzea eta hori behar luke gainera guk integratzeko baldin bagaude ume horiek gu ere integra tu behar dugu gela hortan. Ba zeloak edukitzea, tutoreak umeak neregana etortzen direlako eta beragana ez. Orduan. Hainbeste urteetan beti tokatu zait baina hori horrela funtzionatzen du.

Eta irakasleen artean arazok daudenerako ez dago inor hori kudeatzen duena?

Beraien artekoa? Oso zaila da. Gainera quién le va a decir a un adulto? Nik esan dizut, zuzendari esan nion, baina ez zen gai izan irakaslearengana joateko eta esateko hau eta hau eta hau. Osea, zuzendaritzan papera ere oso zaila iruditzen zait. Nik beti esaten dut. Ni ez nintzateke izango aunque me paguen 1000 euros más, zuzendari. Porque egin behar duzu udaletxe, hezkuntza, irakasle, guraso, osea, kriston arlo pila hartu behar dituzu eta denekin jakin behar duzu dena ondo kudeatzen gauzak. Nik ezin dut. Nik ezingo nuke. Ezin dut izan baino ezingo nuke. Hau da, nik ez nuke nahi.

Eta helduen arteko erlazioa ez da batere erraza. Eta datozenean bada irakasle bat daramakiela eskola batean 25 urte edo 30 urte eta beste berri bat jun da oposaketak atera eta bertara, eta dator fresko fresko. Metodo berriekin eta gero baita tokatu zaizkit gazteak lanean hasi eta metodo berriak dakizkitez baina, iada plaza lortu dute eta patxadan daudenak ere bai. Denetikan dago.

Denetikan dago. Eta unos son más permisivos, modu batean edukitzen dute eta hala funtzionatzen dute eta beste batzuk dia como muy...estrukturatuta. Eta horrek umeeri lagundu egiten die. Ez dizut esaten a rajatabla. Baina estruktura bat, orden bat. Eta gelan edukitzea, segurtasuna ematen dio umeari. Porque zuk gela uzten baduzu a la virule, umeak ez daki ez ze egin behar duen, ez nola egin behar duen, ez ondo ari den, ez gaizki ari den. Ikusten badituzu, eh deskubritu egin behar dut. Bale baino deskubritu, oso ondo do deskubritzia, baino arauak gizarte honetan nahi badugu edo nahi ez badugu, arauak daude eta orduan...ez dizut esaten lehen bezela, ezin zea altza errekreo ordurarte,... hori ez, pixkabat eta horrek egiten die beraiek hobeto zehatzea. Estrukturatuta pixkat, hau egingo degu, eta gero hau egingo degu...Eta hori jakitea iada está. Esaten dizute 3 urteko gelan...orain txokotara. Bakoitzak nahi duen txokora jun, eta orain egingo degu gaur pintzelakin ibiliko gara. Zeinek ibili nahi du?

Eta iada bota egiten diezu. Nik bai, nik ere bai, nik ere bai... Beste bat ez da joango eraiketa txokora eta agian han pasako dizu goiz osoa. Eta gero joango gara patiora eta gero jango dugu gailleta. Orden horrek egiten die ah bueno. Ba orain egingo dugu hau baina gero... aukeramen bat.

Zer iruditzen zaizu erabiltzen den metodologia? klasek emateko orokorren? hemen iada hiru alorre oso desberdin daude nik uste. HHn, LHn, DBHn?

Nada que ver. Nik ikusten dut bost urteko gela orain, gaiak badituzte lantzeko, agian ihauteriak direnean ez dakit zer, gaia jartzen duenean. Ihauterietako baita horri buruz euskal kultura egiteko bueno ba lantxo batzuk egiten dituzte. Metodologia. Bost urte, gaude goiz osoa gelan, bakoitzak nahi duena egiten, baina irakasleak deitzen duenean lantxo bat egin behar dela, egiten dute. Bale. Oso ondo iruditzen zait. Es que hurrengo urtean lehenengo mailara joango dira eta denbora guztian hasita daude. Aldaketa hori drastikoa iruditzen zait.

Agian bakarren batek gelaren batean egingo du liburutegi txokoa eta han utziko die momenturen bat, ordu erdi bat edo ordubete bat libre, aurrengo mailan adibidez esaten dut nik. Baina aurrengo mailan eta matematika, hizkuntzak, ingelesa, musika, tal. Eta orain arte egon da jolastu, jolastu, jolastu, fitxa bat, jolastu, jolastu, jolastu fitxa bat. orduan aldaketa hori, nik ez dakit nola autzi dian hola. Ez dakit trantsizio hori nola egin behar den.

Eta gure umeei gehiago oraindik. Zeren bost urteko hori, jarrera arazok dauzkana, gaur egun ezin da egon, bere ezinak dazkalako, bere agresibitate barruko hori daukalako, eta ni ari naiz iada esaten hau enbajada. Eta datorren urtean nola egiten du ume horrek lehenengo mailan. Ze ezin du errepikatu. Ez dauka diagnostikorik. Ez dauka ezer ere.

Ez dauka ezer ere. Legalki ezin du errepikatu. Osea, HH errepikatzeko eduki behar dituzu diagnostikoak etab. Ze orain dela urte batzuk, Andoainen dago eskola zea batean iada autonomia eta hitz egiten du bere zig batean mutil hori, lau-bost urteko gelan eduki nuen mutikoa eta bost urteko gelan orduan hasi zen jolasten. Ordurarte era kotxekin denbora guztian horrela, nahiz eta zu beti aldamenean egon. Bueno, ba bost urteko gelan hasi zen besteekin pixkat interaktuatzen, ba bat trenakin baldin bazegoen harena joan eta trenarekin jolasten, ba nik esan nun. baina hurrengo urtean mutiko honek lehenengo mailara joan behar du? Eta ni ez naiz inor, baina...

lada bai, es que claro, berez. Berez? Oraintxe hasi da jolasten. Datorren urtean zer egingo dugu? Honekin nik zer egiten dut kurtso osoan? Bueno, arrazoi daukazu, hitz egin beharko dugu amarekin. Eta behin gurasoeri esan nion nola, bilera egin genuenean esan nien gurasoei: Te darás cuenta que X ha empezado ahora a jugar. El año que viene tiene que estar una hora, dos horas, tres horas, cuatro horas, cinco horas, sentado en una silla. Yo creo que en un año X va a evolucionar. Y cuando pasen los años pues estará mejor. Eta berak erantzuten zidan: Pero sus amigos, sus amigas..

Bueno, ba errepikatu zuen. Eta handik urteetara, amak esan zidan: acertamos, acertamos. Esan nahi dut, baina berak diagnostiko bat bazeukan eta nahiko potentea. Baina bestela ezin da HHn errepikatu horrela eta horrela. Oso zaila da. orduan, LH da un cambio drástico. Zeren HH ez da berez beharrezkoa. Eta han ez daude. Item batzuk badaude, bada hau egin behar dute adin honekin, baina bueno, ba flexibilidade gehiago dago. Baina iada lehenengo mailatik hasten zarenean hau ikasi behar duzu lehenengo urtean, hau bigarrenengo urtean, hau hirugarrenengo urtean,.. Eta iada dago como muy escalonado. Ez baduzu lortzen, hor bai dago bueno ba hor gelditzen zara. Eta agian estás inseguro de LH y todavía estás en HH. Orduan hori demostratu ahal izan arte ezin da errepikatu. LH hasten zea eta lehenengo LHn ere ezin da errepikatu. Ze berez bigarrenengo errepikatzen da. orduan ikusten duzunean desberdintasun hori dagoela, ez daukazu non heldua errepikatu ahal izateko.

Eta gero, salto horiez gain, zer iruditzen zaizu ikasgela baten hogeit hamar egitearen kontua?

Dana agiana ezin da. Ume guztiak ez dira berdinak. Eta hor zeinek egokitu behar du? Irakaslea? Zeren ez da egiten normalian. Nik daukat matematikan hau eta hau eta hau eman beharra eta honek ez du jarraitzen. Eta aholkulariari laguntza eskatuko dio. Eta esango dio ba begira, honiri jarri diozu hau eta jarri diozu beste hortara, eta jarri diozu.....

Sistema ez dago ondo. Eta beste gauza bat esango dizut. Eta hori nik askotan eskolan eskatu izandu dut eta ezin da. Nik DBHn egon nintzenean, DBHn edukitzen ditugu umeak maila agian batean ba lehenengo maila LHkoa ez daki sumar y restar ni escribir su nombre. Osea, hor daude. Eta ez dira joango hortikan aurrera. Baina daude hirugarren DBHn. Adinez hor egon behar du. Bale. Errepikatu du eta hor egon behar du. Baina bere jakinduria, hor dago? Bale. Hainbeste ordu pasa behar ditu. Hala pasa behar ditugu. Eta nik egin izandu det: "Honek gaur edo bihar zer egingo du?" Honi autonomia erakutsi behar zaio. Joan dadila dendara, eta eros dezala ogi barra bat eta

zenbat diru eman behar dion jakin dezala. Hori da benetan ikasi behar duena. Bizitza honetan patata tortilla bat egiten.

Hori da benetan ikasi behar duena bizitza honetan: Patata tortilla bat egiten. Bada ni hasi nintzen egiten propagandako rebistak eman eta tomateak eta babarrunak moztuarazten. Eta egun horretan zer prestatuko genukeen galdetzen. Babarrunak txorizoarekin adibidez, Ongi da, goazen ordenagailura, bilatu errezeta, ingredienteak bilatu, ingredienteak idatzi, eta. (...) Eta batuketa egiten ari gara. Ari gara idazten.

(...) Hori da, eta nik hau faltan botatzen dut, sukaldea. Sukaldea balu eskola horrek, bada egiten dugu zuzenean. Eta are gehiago, kalera joan eta erosketak egingo genituzke. (...) DBHn jangelarik ez zegoen, zegoen beste eskolan. Bi eraikuntza ziren eta gure edifikioan ez zegoen jangelarik.

Baina ari zara lantzen gero berak errealidadean erabiliko duena eta eskola ez dago preparatuta hortarako. Zeren hortikan ateratzen direnean bizitzako zip hortan hori egiten dute. Han daukate sukaldea, han daukate mahaia, jartzen dute mahaia, beraiek kentzen dute mahaia. Han kozinatu egiten dute eta eskolak hori ez dauka. DBH bai, han egon behar gara 16 urterarte. Errepikatuz 18 urterarte. Nahi duzuna. Zertan? Idazten: hoy he ido a la iglesia. Mañana voy a comprar patatas. Hori? Ze funtzionalidade dauka? Ez dauka. Es absurdo.

18 urterarte? Ordurarte zergatik mantentzen dute haurra, ezer aurreratzen ari ez bada?

Horregatik. Eta mantendu behar baldin bada, beste era batera. Eduki egin behar da, bale; derrigorrezkoa da. Bale. Baina ez horrela. Eta egin behar da beste metodo bat sartu, beste zerbait egin. Eta horrek eskolan zerikusi handia dauka. Lehen esan dizudana, langileak. Eta segun zein tokatzen zaizun aldamenean, gauza batzuk errezago egiten dituzu, eta beste batzuk ez. Guk bakarrik ezin dugu ume horrekin batera ere. Eta gure ardura ez dira. Orduan pedagogoga bat dator gurekin edo talde hortarako ere porque pedagoga bat dago ume pila batentzako. Orduan ordutegian barruan hor koinziditzea baina gero egin eta ezin baduzu kozinatu, es absurdo también.

Ikusten dituzu baliabide faltareik dagoenik? Izan daitezke baliabide materialak, baina baita ere giza baliabideak.

Nik orain azken bolada honetan, jarrera arazoak direla eta, psikologoak jarriko nituzke eskolan. Bestalde, Osakidetzak dauka zentro bat, eta 15 egunetik behin etortzen dira

gure eskolara. 15 egunetik behin? Oso ondo. 'Y si hoy le da un brote de locura al crio, yo no soy psicólogo para tranquilizarlo'.

Ahal dudan guztia egiten dut haurra lasaitzeko, baina pertsona hori (osasungintzako langile bat) hor egongo balitz. Eta ez dut esaten erizaina uneoro, baina umeak dauzkagu diabetikoak direnak, 'bajones de azúcar, subidones de azúcar' ematen dietenak. Horiek zeinen ardura dira? Tutorearena?

Eta zuk, tutore gisa, ez duzu zertan dena jakin. Eta nik ezta ere. Eta bai bagaude, ni egonda nago bajoia ematen zionean umea gelatik atera, lasai jarri, azukrea eman, batidua eman, etab.

Gero beste batzuk daude, konbultsioak eta ez dakit zer ematen diotenak. Eta inyektatu egin behar dira. Injekzio horiek 'frigorifikoan' eduki behar dira. Eta horien nahiz medikamentuen kadukatze data kontrolatu egin behar da. Eta hori ematen ere, bat-batean eman behar da. Eta ez bazara ausartzen?

Niri gertatu izan zait ume batek bolita bat sudurrean sartu eta irakaslea etortzea korrika, zer egin behar duen galdezka. Sudurrean bolita bat sartu duela eta, hatzarekin ahalegindu dela bolita kanporantz bultzatzen. Baina horrela ez. Goitik behera behera egin behar da, goitik behera bultzatu behar da. Zintza eginez, zintza.

Beste behin berriz, ezkutuan sartu zuen gelan karamelo bat haur batek, andereñoak ez ikusteko eta hemen, eztarrian geratu zitzaion. 'Entre que tú no reaccionas y vienes donde mi a buscar la ayuda, ese niño ya se ha muerto'. Bueno bada, gero ikeragarritzko bajoiak ematen dizkit niri, baina momentuan erreakzionatzen dut. Heldu umea hanketatik, buruz behera jarri eta bizkarrean joka. Eta hala ere ez zitzaion ateratzen. Azkenean tragatu egin zuen. Hala ere, badaezpada eraman egin zuten hospitalera begiratzera. Eztarri guztia ia odoletan zeukan. Esfortzuarengatik.

Bai. Horiek ondo atera zirelako. Horietako bat gaizki irteten zait eta ondoratu egiten naiz. Bai noski, nire eskuetan dago gainera. Eta ez da nire lana. Ulertzen didazu? Horrela gauza pila bat. Dira anekdotak gertatzen direnak, ordu pila bat pasatzen ditudalako eskolan.

Eta material aldetikan? Ez naiz ari aurrekontutaz. Ari naiz esan dezun estilora. Gela berezi batzuk gauzak aurrera eramateko, etab.

Asko falta da hor. Ordenagailu gela, ez dakit zer gela, bestian gela. Y dices, bale, ordenagailua bai. Oso ondo. Aurre egunean behar degulako denok eta bestean zean. Lehen esan dizutena. No tenemos una cocina para cocinar. Ez? Ez dakit, agresibo

jartzen direnean, Lasarteko eskolan, gela txiki bat eogkituzak, egokitu ere ez, jarrita zeuden, jarri genizkion oji batzuk. iada kendu die, ze bera Ecuatorrera joan zen eta inglesekuak behar zuen erreforzua emateko eta ez dakit zer, eta gero. Baina berez behar dute gela bat, dena akoltxonatuta, eta ez dago. Koltxoneta gela. Koltxoneta gela agian libre dago, agian ez. Eta ez da egokia.

Nik ikusi dut egin dutela Orion erreforma, eta kendu dutela eta dagoela HH eta LH dena planta kenduta eta hor ez dago gelarik aparte. Ez dakit zer den zehazki. Eta horrelako kasuetan?

Hori pedagogia berria da. Libre circulación, ezta? Horregatik esan nizun segun eta nola ematen den zirkulazio libre hori, nondik nora ematen da? Oso egokia izan daiteke. Baina jarrera arazoak dituen ume batentzako, eta autista eta zera dituen ume batentzako agian ez da egokia. Zeren jarrera arazoa dituenak, zuk ikusten baduzu purulando ikasgela osotik, horrek orduan etan antsietate gehiago sor diezaioke. Jartzen da gero eta urduriago. Eta hemen dago estimulua, eta hemen dago estimulua. Si, si, circulación libre. Y? Ocho horas sin que nadie le diga nada? no puede ser. Beste toki baten, ikastola pribatua dena ere, baso eskola dute.

Zer dute?

Baso eskola. Ba ez dakit den astero edo hamabost egunetik behin basora joaten dira eta han daukate ikasketa. Eta hori ematen dute beste pertsona batek. Beraiek joaten dira tutore bezela baina pertsonala dago han erakusteko. Apur bat naturakin harremana, ez dakit zer lantzen duten, baino horrelako gauzak ere agian beharrezkoak dira zeren umeak daude, begira.

Haureskolan, azkenean guk ere proiektu bat aurkeztu behar dugu. Ez dakit ginen hiru lau. Eta bata zan masterra egiteko eta bestea ume txikiak zeuzkan eta besteak ez dakit zer eta, noski, badakizu, taldean beti egon behar da bultzatuko duen norbait, otro que arranque, otro que no sé que. Eta nik burun bueltaka banebilkin. Nik hau egingo dut buraeran, nik hau egingo dut bukaeran. Eta nik orduan esan nien: Nahi dezuena, nik idea bat daukat, baina ez daukagu zertan egin nirea. Zeren zuk agian beste bat daukazu, eta zuk beste bat. Edo bestela, nire idea horretan zuek sartzea badaukazute, nahi duzuen. Berdin zait.

Baino nik, nire proiektua izan zan, estraeskolarrak basarri batean montatzia. Eta noski, hemengo egoera ikusita, ume txikientzako zan, 3 urte. 6 asko jota, eta orduan ezin duzu planteamentua egin 8 urteko umeentzako zeren zu ez zaude. Orduan nire

planteamentua izan zan: baserri bat, estraeskolarrak umeekin bertara joateko. Eta udaran baita ere

Hortako. orduan jarri nituen baratzak, eta umeek zertan parte hartzen dute? Ba bueno, porruak jartzen, landatutako letxugak jasotzen, etab. Hori da. Animalik, ezin dituzu behiak jarri. Orduan esan nuen, ba oilategia, animalia txikiak (ponyak, txerriak), haiei jana eman, arrautzak bildu, jakin dezatela nondik datorren bizitza. Hau nola da? Eta Lasarten kokatu nuen. Lasarten badakagu autobus txiki bat ibiltzen dena herrian bueltaka, Zarautzen ibiltzen den bezala. Orduan hori kontratatuko genuela umeak igo eta jeisteko.

Baratzak fruituak ematen dituenen, ba hasieran gutxi izango dela eta umei eman etxera eramateko. Eta oinarritu nintzen haur guztiak gaur egun eskolatik atera eta ingelesera, musikara, partikularra, ez dakit nora eta ikastetxetik ikastetxera joaten direla, eta naturakin ez zuten eta ez daukate harremanik. Eta hori aurkeztu genuen eta gainera ikusita Euskal Herrian euri asko egiten duela, agian baratzan askotan ezin izango dugu lana egin. Orduan negutegiren bat.

Baserritarren bat. Ni agian hortikan natorrelako. Baina niri iruditzen zait gaur egungo umeak hori ari direla galtzen. Eta eskola dago, beno, berri behar da. Semeak askotan esaten du, culturilla general, culturilla general...Eta? Irina nondik datorren ez dakigu. Culturilla general? Qué culturilla? Que Napoleón vino e hizo no sé qué. Aquello será importante pero ingurumena jakiten duzula nondik datorren eta nola ere bai, hemen bizi zara ere bai, ezta?

Oinarrizko gauzak erakutsi egin beharko lizkigute. Kontratuak irakurtzen adibidez.

IRPF zertarako kentzen dizute. Bada ogasunak kentzen duela eta gutxi kentzen badizu ba gero ordaindu egin behar duzu eta ordainetan hortxe gelditzen zara. Zertarako da diru hori? Bada supuestamente bideak egiteko, eta ez dakit zer egiteko eta zentruak egiteko eta ez dakit zer. Baina hori. Para qué te quitan el IRPF, como te quitan la Seguridad Social. Para que luego tengas un médico gratis. Ez, baina lanean hasi arte hori ez dakizu, ez dakizu.

Gainera ume guztiek ez daukate nik daukadan erlazioa nire gurasoekin. Askatasuna daukat gurasoengana joan eta galdetzeko, ama-aita hau ez dut ulertzen. Nola egiten da? Baina haur guztiek ez daukate gaitasuna, ez daukate aukera horretarako.

Eta galdetuta ere agian erantzuteko gai ez. Hori ere bada, eh?

...Horrekin lotuta, eskolan eduki dugu eta dago amak jotzen zuen eta eskolan arrapatu dute markakin. BAI. Lehen esan dezuna, tratu txarrak. Eskolak denuntziatu egin du. Gaur da eguna amak nirekin ez du hitz egiten. Hori gertatu delako. Gurasoak banatuta, aitak ama jotzen zuen. Orden de alejamiento. Orain amak semea jotzen du. eta testifikatzera joan nahi du. Baina amak le coacciona. Eta esaten dio: "como testifiques que te he pegado, iada no vas a poder vivir conmigo. eta umeak bildurratik esaten du ez diela ezer ere egin. Bost urterekin. Orduan, hor zer dago? Hori nola konpontzen duzu?

2.ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA

Zure buruaren aurkezpen bat. nor zara? eta zein da zure erlazioa euskal herriko hezkuntza sistemarekin?

Ni (X) naiz, 21 urte dituen ikasle bat. Euskal Herriko hezkuntza sistemarekin erlazio zuzena dudala esango nuke, orain arte ikasle bezala jardun bait naiz eta orain berriz hezkuntza sistema horretan hezitzaile bezala lanean hasteko prestatzen nabil.

Ibilbide akademikoa. zer ikasi duzu? non? etorkizunean ikasten jarraitzeko asmoa daukazu? zer?

Nik erdi maila bat eta bi goi maila ditut. Orain, bigarren goi maila hori amaitzen ari naiz, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa hain zuzen. Orain arte unibertsitatera joatea guztiz baztertuta neukan, baina nire gustuko lan eremuan sartzea errazagoa izango denez gradua edukita, goi maila hau amaitutakoan unibertsitatera sartzea da nire asmoa, Haur Hezkuntzako gradua.

Irakasleen formakuntzaren inguruan. Zer ikasgai irakasten dizkizute? Zure formakuntzarako egokiak izan direla iruditzen zaizu? Eta ongi irakasten direla? Gabeziarik edo akatsik dagoela esango zenuke? (Adibidez, ikasgaien bat ezabatu edo ordezkatu zenukeen, etab.).

Goi mailako zikloetan ikasgai oso desberdinak izan ditugu, izan ere haurra osotasunean ulertzeko eta onartzeko eremu guztiak landu behar bait ditugu. Haurra jaiotzen denetik zutik jartzen denera arteko prozesua ikasten dugu, baita beraien hizkuntza nola formatzen den ere. Bestetik beraiekin hezitzaile bezala egin ditzazkegun tailerrak egiten ditugu.

Hauek bi modutara egiten ditugu, lehendabizi gu hezitzaileen paperean jartzen gara eta hurrekin nola jardungo ginen simulatzen dugu, eta gero, tailer hauek burutzen ditugu haurrak nola esperimintatzen duten eta guk geuk lehenengo pertsonan bizitzeko. Metodologia desberdinak ere ikasi ditugu, eta autore askok haurren inguruan egin dituzten ekarpenak ere ikaragarri landu ditugu. Haurren autonomia pertsonala eta osasuna, adierazpena eta komunikazioa, garapen kognitiboa eta motorea, garapen sozio-afektiboa, gizarte trebetasunak, jolasa eta bere metodologia, familiekin lankidetzan aritzea izan dira izan ditugun ikasgai zuzenenak.

Gure formakuntzarako egokiak egin zaizkit, baina nire ustez ez ditugu nahiko jarduera praktikoa egin ikasturtean zehar. Esan nahi dudana da praktiketara joan garenean gauza mordo inoiz ere egin gabe ginela. Adibidez, Haur Hezkuntzan ipuinak kontatzea eguneroko bat da, eta egunean askotan egiten den ekintza bat, guk ordea, ikasten ginen bitartean horren inguruko praktikaldi bakarra egin genuen... Ez dut esaten egokiak izan ez direnik, baina gaur egun oraindik ere teoria asko eta praktika gutxi egiten direla iruditzen zait, eta arlo batzuk praktikaldi gehiago behar dutela esango nuke.

Baina ez da dena txarra eh! Gauza asko hobetu direla ere esango dut. Guk ikasi dugun metodologia ez da betikoa izan, ez dugu teoria ikasi eta ikasi dugun edo ez frogatzeko orain arte beti erabili den azterketa bidezko metodoa erabili. Guk erronken bidez funtzionatu dugu, erronka hauek egiteko teoria landu behar izan dugu, azterketekin egingo genuen bezala, baina amaierako produktua oso desberdina da, izan ere aurkezpenen bidez aurkezten dugu ikasi dugun guztia, eta aurkezpenak ere lan bakoitzarekin desberdinak izan dira, adibidez, erronka batean gurasoentzako karpeta bat sortu behar izan genuen, eskuz egindako karpeta eta bertan haurren inguruko informazioa agertzen zen; loa, elikadura eta higienaren inguruko azalpenak adibidez. Beste erronka batean berriz gure Haur Eskola propioa sortu behar izan genuen 2 urte horietan ikasi eta ikusi genuen guztia kontuan izanda. Azken adibide bezala jarriko dut gure Haur Eskolaren kanpo espazioak diseinatu eta azaldu behar genituen erronka. Erronka honetan maketa bat sortu behar izan genuen, kanpo espazioan jarri nahi genituen material, estruktura, landare, lur eremu... guztiak ongi arazoituz.

Azkenean lan hauek egitean teoria guztia errazago ikasi dugula ikusi dugu, eta 2 urte guztietan ez dugu izan azterketarik, ezta bat ere, eta inoiz baino gehiago ikasi dudala iruditzen zait.

Ikasgaien inguruan. Zuen formakuntzan zehar lantzen dituzue ondorengo gaiak? Nola? Denbora nahiko eskaintzen diozuela deritzozu? (Haurrenganako tratu txarrak, Gurasoenganako tratu txarrak, arreta berezia behar duten haurrak, enpatia, elkar lana, diskriminazioa, etab.)

Bai, guk bi urte hauetan guzti hauek landu ditugu, agian ez denbora nahikoz baina bai, landu ditugu. Gai batzuk erronka propio bat izan dute, haurrenganako tratu txarrak adibidez, baita arreta berezia behar duten haurren ingurukoa ere. Gainera, tratu txarrekin lotutako hitzaldi bat ere izan genuen, lanean ari ginela horrelako kasuren bat izango bagenu nola jokatu behar genuen azaldu ziguten, zein protokolo jarraitu behar dugun, norekin kontaktatu.. dena.

Beste gai orokorragoak, enpatia nola landu, elkarlana, diskriminazioa... gizarte trebetasunak izeneko ikasgaien landu ditugu asko. Bideoak, elkarriketak, Ur Handitan programako kapitulu batzuk ere ikusi genituen, debateak... eta guzti hauek talde lanean landu ondoren, norberak bere hausnarketak egin behar izaten zituen, gaiaren inguruan guztiok erreflexionatzeko eta guk kasu horien aurrean nola jardungo genuen azaltzeko. Hausnarketa asko egin ditugu ikasturtean zehar.

Lan mundura begira. Lan mundura begira, irakatsi dizutena egokia dela deritzozu/Ondo prestatzen zaituztela esango zenuke hurrekin lan egiteko? Zergatik? Hobetu daiteke? Burutu dituzun ikasketekin zer lanpostu eskuratu dezakezu? Lanpostu horretarako ongi preparatuta zaudela esango zenuke (ez naiz gaitasun pertsonalez ari, baizik eta formakuntza aldetik nahikoa dakizula deritzozu)?

Hasiera batean esan dudan bezala, irakasten digutena egokia da baina ekintza praktikoei dagokienez hobeto prestatu gaitzazketela uste dut.

Nire ikasketekin, hau da, goi mailako zikloarekin 0-6 adin tartea lantzen dugu, baina lanean, Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-hezitzailea izan gaitzke, hau da, 0-3 adineko haurren hezitzaileak. Gero, 0-6 bitarteko hurrekin aisia eta denbora libreko hezitzaile eta hezkuntza-laguntzeko espezialista bezala jardun gaitzke lanean. Arrisku sozialean dauden adingabeen hezitzailea izan gaitzke, eta azkenik, hezkuntza premia bereziak dituzten hurrekin beraien eskolatze etapa guztiekin egon gaitzke, laguntzen noski.

Bai, ongi preparatuta nagoela esatera hausartzen naiz. Orain praktikak burutzen nago, eta ikasi dugunarekin bertan lanean egoteko prestatuta nagoela ikusten dut. Egia da

esperientzia falta dudala, baina hori denborak eskaini beharreko zerbait da eta ez ikasitako formazioak, beraz bai, formazio egokia jaso dudala esango dut.

Proposamenak. Aldaketarik egingo zenuke jaso duzun formakuntzan? Zeintzuk?

Bai, orain arte azaldu ditudanak. Ekintza praktiko gehiago jarriko nituzke, biberoiak prestatu, pardelak aldatu, ipuinak kontatu... Adierazpen plastikoa da gehien landu dugun ekintza praktikoa, eta jolasak, baina besteei gaur egun ematen zaien garrantzia gutxiegi dela iruditzen zait, nire ustez esparru hori gehiago landu beharko genuke.

3.ELKARRIZKETAREN TRANSKRIPZIOA

Aurkezpena

Ni (X) naiz. EHUko irakaslea naiz eta hau 3.urtea dut magisteritzan eta aurretik egon nitzan psikologian eta kriminologian. Berez ni bokazioz eta formazioz irakaslea naiz. Lehen hezkuntzako mentzioa, gorputz hezkuntza eta gero psikopedagogia egin nuen. Eta ostera, eskoletan aritu nintzen aholkulari gisa HH, LH eta DBHn.

Beti izan da nire asmoa gauzak ondo egiten ahalegintzea, hurrekin. Eta haurra erdian kokatuz, aztertu haurra eta aber zer behar duen, bere ongizaterako eta gizartearen ongizaterako.

Gero masterra egin nuen, integramiento socioeducativo hemen, EHUUn. Nik gabeziak somatzen nituen eskoletan baina ez nekien zer zen, nondik hasi. Masterra egin nuen baino ez nuen asetu atal hori. Eta nire alabaren jaiotzarekin utzi nuen lana urtebetez eta hasi nitzen baldoj (Warldorf) pedagogia formakuntza. Eta 3 urteko formakuntza da, asteburu 1 hilabetean, eta zoragarri. Lagundu dit kokatzen pertsona eta irakasle bezala, haurra begiratzeko garaian asko lagundu dit.

Eta zer desberdintasun dauka, beste metodologiekiko?

Nik uste oinarrian dago eta magisteritzan entzuten ez den zerbait, bada, pertsona artean gabiltzanean, irakasle ikasle harremanetan, irakasten duzu zu zaren hori. Orduan hasi behar zara, nor zaren hori aztertzen eta auto ezagutzaren eta auto heziketaren bitartez, ba aldaketak eragiten zuzan eta horrek eragina izango du haurraren. Eta orduan, barne begirada hori, eta horregatik saiatzen naiz magisteritzara eramaten ere bai.

Ez dut esan nahi Warldorf zoragarria dela. Nire ustez bai bada baina beste gauza asko ere badira. Eta bertatik ateratzen diren gauza asko, beste tokietara aplikatu daitezke eta aplikatzen dira eta aplikatzen ditugu naiz eta ez jakin bertatik ateratzen ditugula.

Formakuntza egokia dela deritzozu?

Asko da ere ebolutiboa, 18 urterekin sartzan zarenean karreran, edo 16rekin batxilergoan, bizitza eta mundua modu batera ikusten duzu ez. Orduan ni saiatzen naizena ikasleekin eta nirekin ez zutena egin, agian zaia da, agian 18-20 urterekin ezinezkoa da, da salto hori ematea. Ematen du ikasle-irakasle hori bat batekoa dela. Eta nire ustez ez da horrela. Ikaslea zarenean ematen du ardura irakasle ona dela zuri hezkuntza egoki bat emateko eta zuk modu pasibo batean bizitzen duzu hori. Eta horri ematen diozu buelta eta zu ia zara pertsona aktibo hori, eman behar duzuna hezkuntza egoki bat ikasleei.

Eta ni saiatzen naizena da ikasleei transmititzen, izan behar direla objektu aktiboak hasieratik. Hau da, ezin zara itxaroten egon. Eta ez baduzu zerbait gustoko esaiozu hasieratik. Eta nik uste, hori dela hezkuntzaren erronka handi bat. Pertsona aktiboak sortzea. Eta hezkuntza aztertzen baduzu, beti diote, ikasle aktiboak sortu behar ditugu edo ikasleen kritikotasuna garatu. Baina kritikotasuna alde horretatik, beraiek izan daitezela pertsona aktiboak beraien ikasketan. Bestela, ez zara bapatean tituluarekin batera pertsona aktiboa bilakatuko.

Hori da prozesu bat eta nik uste interesgarria izango zela, iada 18 urterekin magisteritza ikasten ari zarela, edo berdin dit zer ikasten ari zarela, modu aktibo batean jokatu bazenu eta irakasleari zalantzak botaz eta irakaslearen esanak zalantzan jarriz ere bai. Eta bai, zeren gero bihurtzen gara, ikaslea modu pasibo horretan gero irakasle bihurtzen zara eta oraindik beldur eta inseguridade pila batekin. Orduan, egunen batean ikasleren batek zerbait galdetzen badizu lekuz kanpo, orduan modu desegoki batean erreakzionatzen duzu eta azkenean da bola bat.

Geroz eta pertsona inseguroagoak ari gara sortzen. Eta hori elikatu egiten dugu berriro pertsona inseguruak sortzean. Eta nola gelditu bola hori? Pertsona aktiboak eta kritikoak hasieratik izaten eragiten.

Eta hori nola egin daiteke? zuk nola egiten duzu?

Hitza ikasleei emanez. Oso tresna garrantzitsua da galdera. Ez dakit ezagutzen duzun, badago, jakintzaren piramidea. Eta oso polita/interesgarria da. Ikasten dugu, irakurtzen dugunaren %10, ikasten dugu entzuten dugunaren %20, ikasten dugu ikusten

dugunaren %30. Eta gero iada, beraka zoazen heinean, gakoa da ikasle aktiboa egitea. Eta azkena da ikasten dugu irakasten dugunaren %90.

Klaseetan saiatu behar zara, zure dinamikaren bitartez ikaslea murgiltzea piramide horren hasiera horretara. Modu aktibo batean izan daitezten beraien ikasketaren jabe. Askok da hori, alde batetik.

Eta bestetik, ikasleekin harremana ere bada. Eta ni hori saiatzen naiz ikusten, zer garrantzitsua den. Erderaz errazagoa da, egin saltoa “de mirar a ver la otra persona y de oír a escuchar a esa otra persona”. Eta orduan, hori egiten bada eta hori lortzen baduzu, pues, pertsona hori norbait da eta zu ere norbait zara. Bestela, ez gara inor.

Harremanaren garrantzia, ikaslea bere ikasketaren jabe izatea. Horrek ez du esan nahi, “el poder de la situación” asko da gizarte psikologiaren inguruan, lidergo mota asko daude (badaugo autokritikoa, liberala eta demokratikoa) eta orduan, hau egiteak ez du suposatzen lidergo liberal batean erortzea. Hau da ikasleak guztiaren ez. Zuk ardura daukazu egoera horiek sortzeko eta egoera horiek modu desegokian badoaz zuk eskua sartu behar duzu. Zuk irakasle bezala, sortu behar dituzu bide egokiak ikasleak bere bidea topatu dezan.

Jakin behar duzu ere norekin ari zaren lanean. Irakasle bezala, zure ikasleek 18 urte badituzte nerabezaroan daude eta normala da hori gertatzea hasiera batean (galderen aurrean ikasleak ixilik geratzea. Eta inork ez hitz egitea). Nik uste irakasle bezala, jakin behar duzu haurra edo nerabea zer adinetan dagoen eta zeintzuk diren ebolutiboki bere ezaugarri horiek. Eta insistitu eta konstantea izan eta helduko dira emaitzak. Emaitzak ez dira egun batean etortzen. Etortzen dira denborarekin.

Ze erraztasun edo zailtasunekin egiten duzu topo lanean?

Berrito goaz, horrelako hezkuntza ikusteko modu honetara salto egitea eta ez dugu hitz egin zer garrantzitsua den begirada. Ikasleak ikusteko begirada hori. Erabaki bat da, eta erabaki hori hartzearekin gauza asko albo batera utzi behar dituzu. Zeren, horrela izan behar du. Dena arautua dago, arautu behar delako eta egokia delako.

Baina adibidez hezkuntzan ezin da dena araututa egon. Zeren, hezkuntza bizia da. Nire ikasleak gaur etortzen badira eta triste baldin badaude, ezin dut egin ikasturte hasieran programaturako hori. Edo nire ikasleekin ez badut lortzen harreman egoki bat eraikitzea, agian nik programatuta neukan gaurko klase bat baina agian ezin dut egin.

Orduan adibidez unibertsitatearen ikuspegitik, legera joz, egokiena da edo irakasle ideala zara baldin eta kurtso hasieran daukazun ikasturte osoan egingo dituzun saioak idatzita azalduz helburua, zer lortu nahi duzun, zer kompetentzia lortu nahi dituzun eta orri bat izatea saio bakoitzeko eta eskaintzea ikasleari, ikasleak jakin dezan zer egin behar dugun. Baina, nire ustez hori ez da hezkuntza.

Egokia da, izan ere, unibertsitateak eskatu behar du, bai zeren hau egitea ondo dago. Baina, hezkuntza bizia da eta orduan, lehenengo oztopoa askotan da adibidez burokrazia. Edo esatea, bai, edo lehen hezkuntza batean adibidez, nik eduki hauek lortu behar ditut garatzea nire ikasleekin. Baina agian nire ikasleak ez daude eduki horiek lortzeko moduan.

Orduan, esatea edo ausardia hori izatea. Beti goaz pertsona aktiboak sortzera gero irakasle aktiboak sortzeko eta konturatzeko zer garrantzitsua den ezetz esatea. Eta esatea hau ezin dut egin nire ikasleekin aurren baina agian hurrengo urtean bai. Esatea legedia dago hemen, oso ondo dago, beharrezkoa eta laguntzen dit baina ez dut jarraitu behar “al pie de la letra” esaten duen bezala. Eta honekin jolastuko dut zeren nire ikasleagoa hau da, nire klaseagoa hau da eta ez dago klase bat berdina inoiz.

Orientatzailearen inguruan, garatu dezakezu zein zen zure funtzioa?

Aholkulari gisa aritu nintzen Nafarroako Ikastoletan (pribatuak dira). Zertan datzan, bada, oso lan zaila da. Zaila baina interesgarria. Erdian zaude, zuk egiten duzu lana familiarekin, ikasleekin baina irakasleekin ere bai. Orduan, edozeinek behar badu zerbaite, zu hor zaude laguntzeko. Bada, laguntzen duen pertsona bat da. Laguntzen duen pertsona batek baita ere, legez betebeharrak batzuk dituen pertsona bat da ere bai.

Orduan, lanera etorri daiteke familia bat adibidez, esanez: “Banatuko gara! Hau nola kudeatuko dugu?” Nola kudeatuko dugu semearekin, nola kudeatuko dugu eskolarekin edo edozeinekin. Edo Nafarroan horrela zen. Heltzen zen apirila eta apirilera egin behar zenuen mapa. Hau da, behar berezi guztien mapa. Pasa behar zituen frogak, eskatzen zen mailara iristen ez zirenekin frogak pasa behar zenituen, diagnostikoak egin eta informeak egin. Informeak osatu eta informe horiek hezkuntzara bidali data konkretu batean eta hezkuntzak horren arabera, ematen zizkigun baliabideak. Laguntza irakasle hauek, etab.

Gero irakasleekin ere, “Nik klase honekin ezin dut aurrera egin, zer egin dezaket?”. Gelan sartu, behatu edo edozein jarrera arazo. Adibidez, ikasle bat telefonoarekin sartu argazki bat atera atera behar diogun edozerri eta Whatsapp talde bat sortu eta

bola handi bat egin. Edo hori, aztertu zeintzuk diren gizarteko beharrak adibidez, teknologia berrien erabilera eta orduan hitzaldiak sortu familia, ikasle eta irakasleontzat, eta orduan, ikasleak bizi garen egoera honetan modu arduratsuago batean jokatu dezagun.

Lan horren gakoa nire ustez bada harremanak. Eta hori zaila da. Ondo ez, baina zu erdian zaude eta modu orekatu batean izan behar zara guztien laguntzailea eta ez laguna. Gizarte talde batean beti taldetxoak daude eta nik bazkaltzeko/hamaiketako hartzeko ezin nintzen beti berdinekin eseri. Esertzen banai zuzendaritza taldearekin, agian beste batzuen "etsaia" da. Orduan beti ibili behar zara guztiekin modu orekatu batean.

Eta irakasleei ere laguntzen diozue orientatzen?

Bai eta askotan entzuten. Hezkuntza lana da askotan besterik gabe presente egoeta. Orduan, antolatzea presente egoteko tartekak. Tutoreek jakin dezaten astean orduerdiz zu egongo zarela beraiek entzuteko. Eta bakarrik entzutearekin asko da.

Orientatzaile bezala rol pasiboa daukazu (jendeak zuregan jotzen du). orientatzaileen lanaren parte da ikaslearengana jotzea ikasle ororena (behar berezirik eduki gabe)?

Orientatzaile bezala egin dezakezu lan prebentiboa eta arazoak konpontzekoa. Frogak pasatzeko, zuk frogak pasa behar baduzu 4 urteko haur batekin, 10 urteko batekin, eskatu behar duzu zure bulegoan eta gero frogak bat pasa. Haur batek ez bazaitu ezagutzen, emaitza txarrak eskuratuko dituzu. Aholkulari gisa, ni behintzat, atsedendietara joaten nintzen ni beti. Eta hamaiketakoak jaten nuen nik ikasleekin beti. Eta beti zaude hor. DBH lehenengo mailan, beste eskola batetik etortitako ikasleen ondoan zaude beti. Galdetuz zer moduz zoazte, zerbait behar duzue,.. Nire bulegoko atea beti irekita zegoen, edonor nahi zuenean etortzeko. Nik, ikasturte hasierako lehenengo astean joaten nintzen beti gelaz gela eta azaltzen nuen nor nintzen eta azaltzen nuen laguntzeko prest nengoela eta behar bazuten niregana etortzeko. Hau da, lan prebentibo hori egiten duzu.

Etengabe, bestela ezingo duzu beste lan hori egin. Eta gainera, lan prebentibo horrekin aztertu behar duzu non bizi zaren eta gizartean zer behar dauden. Edozein gai (teknologia berrien erabilera, mobilitatea..), adi egon behar zara, non bizi zaren eta zer behar dauden. Gakoa beti izango da harremanak, harreman egokiak eraikitzea. Eta hor zailagoa da pertsona aktiboak izan daitezen bermatzea.

Ni aholkulari gisa ibili nintzen bi eskoletan: (1) HH/LHn nituen 500 ikasle eta (2) HH/DBHn nituen 300 ikasle edo. Baina noski, askotan orientatzailea beharrezkoa ez bada, ez dakizu zein den bere lana. Oso zaila da, baina bai, keindu batzuk izan behar dituzu. Oso gauza gutxi dira, baina atea irekita baldin badaukazu, atsedenaldietara bazoaz, zure burua aurkezten baduzu, denek gutxi gora behera badakite nor zaren.

Ikasgaien aldetikan, erakusten dena egokia dela deritzozu?

Nik behintzat, hezkuntza ikusten dudan moduan eta gaurko gizarte batean, gaur bizi garen moduan ere, edukiak bigarren mailako zerbait direla pentsatzen du nik. Asuntua da, hezitu behar ditugula pertsonak konpetenteak izateko. Ez edukiak bereganatzeko. Orduan, gaur egun, tontakeria bat da. Klik batekin nahi dituzun eduki guztiak dituzu eskura. Baina jakin behar duzu klik hori egiten. Pertsona bat, kurioa izan behar zara horrelako gauzak egiteko. Edo izan behar zara pertsona bat langilea. Eta horrelako konpetentziak bai hezkuntzak landu behar dituela. Eta jakintza eta datuaren gizarte batean bizi gara gaur egun.

Eta horregatik da garrantzitsua ere bai, zu gauza baten 12 bertsio topatu ditzakezu momentu batean. Orduan jakin behar duzu kudeatzen eta zu bizi zaren gizarte horretan ere, zein den egiago zuretzat. Zeren egi osoa ere ez dago gauzetan. Edo, ez dakit zenbat tramitazio administratibo burutu behar ditugun gure bizitzan, bada, jakin behar duzu hori burutzen eta hori egin behar duzula.

Eta edukiak, nik uste garrantzitsua dela edukietan agian aspektu kulturala edo ezagutzea non bizi zaren. Asko da ere bai, geroz eta gizaki mugimendu handiagoa dagoen gizarte batean, besteen kulturak ezagutzeak ere bai eta bestiek errespetatzearen garrantzia ere. Gizarte inklusibo horiek eratzea ere bai.

Gero ere bai, inklusioa, berez, hezkuntza inklusiboa izan behar da. Inklusioan hezi behar gara eta inklusioan hezitu behar ditugu pertsonak. Eta klaro, tesia nik justu horretan ari naiz, hortan hasi dut aurten nire tesia Zaraguetan.

Zer interesgarria den inklusio hitza. Errealitate bat denon artean sortzearena. Baina errealitate bat denon artean sortzea, roletan ere bai. Hau da, eskola inklusibo batean ezin dira hierarkiak egon. Egon behar dira eta ardura batzuk egon behar dira. Baina boterearen bidez ezin dira gauzak lortu. Eskola inklusibo batean ikasleak aktiboak izan behar dira, bestela ez da inklusiboa. Modu pasibo batean ez zara gizartea eraikitzen. Eskola batean baldin bagaude 25 irakasle eta ikasle bat, denon artean sortu behar dugu zerbait. Eta denon artean sortzeko zerbait, ikasleek aktibatu behar ditugu.

Orain badago kontzeptu bat “escuela incluida en el territorio”. Eta ni hori ai naiz lantzen nire tesian. “Inclusión educativa”, “interculturalidad”, “democratización de los procesos” eta “territorialización”. Hau da, eskola inklusiboa izan behar dela, kultura anitza (geroz eta gizarte anitzago batean), boterea eta erabakiak denon artean hartzen hasi behar gara (bestela ez da inklusiboa) eta eskola ateratzea bere hormetatik herrira. Zeren erkolak sekulako indarra izan dezake herri batean eta herri horren eraldaketarako. Eta bat etortzeak asko lagundu diezaioke pertsoneri.

Gainera, momentu honetan pil-pilean gaude Euskadin. Euskadin 2018an egindako informe batean dio, Espainian gehien segregatzen duen komunitatea Madrid eta gero. Zergatik, Euskadin ia %50 eskola kontzertatu eta publiko ditugu. Eta justu orain, legea berritzen ari da, eta hori aldatu nahi da. Zer gertatzen da, herrietan eta hirietan tendentzia dago kultura desberdinekoak edo kanpotik datozen pertsona horiek eskola konkretu batera joaten eta bertakoak beste batera.

Eta hasi berri ez da egin eta hau gertatu den beste herrialdeetan (Frantzia, Ingalaterran) bigarren belaunaldietan arazoak izaten ditugu, getifikazioa. Orduan, momentu garrantzitsu batean gaude. Eta hezkuntza legeak ematen du pixkat eskua sartuko duela horretan. Kanpotarrak eskola batera joateak eta bertakoak beste batetara, horrek getifikazioa ekarriko du eta hurrengo belaunaldian arazoak ekarriko ditu.

Hezkuntza lege berriak zer dakar?

Euskadin desagertzen da eskola publiko eta eskola kontzertatuen kontzeptuak eta eskola bakarra sortzen da. Gaur egun, eskola kontzertatuek jasotzen zuten, eskola publikoen subentzioen %80a. Diru gutxiagorekin zer egiten zuten, kuotak eskatu eta orduan diru gehiago izan. Gero ere bai, konbenioak gutxiago kobratzen dira kontzertatuan. Orduan orain oreka bat bilatuko da. Doakoak izango dira guztiak eta denok soldata berdina kobratuko dute.

Hau berez zer da? Kontzertatuak poz-pezik daude. Askoz diru gehiago irabaziko dute. Eta horregatik publikoa oso kritikoa izan da. Baina nik, modu interno batean, jakin dut ere eskua sartuko dela beste horretan.

Esan dizut, orientatzaileak egiten du eskolako mapa, behar berezien mapa. Behar bereziekin hezkuntzak ematen dizkizu baliabideak. Baina behar berezi horiek estipulatua dago. Ba, TDH ikaslea, 2 urteko atzerapenarekin, 4 ordu laguntza. Baina ez dago estipulatua, eta hori ikertua dago, maila sozioekonomiko baxua duten familiak.

Hori ez da mapan sartzen. Eta baditugu eskolak, adibidez Donostian, %90 dagoela atzerritarrak edo kanpotarrak eskola batean. Eta hor selulako beharra dago.

Ez da errealitatea. Eta orduan egin behar dena da oreka bat bilatu. Hau da, herri batean, eskola batean oreka egon behar da. Oreka baina ez, ez ditudalako nahi. Baizik eta nahi dugulako gizarte inklusibo bat sortu. Eta ari bagara sortzen eskolak non banaketa hori ematen den, marginalizazioa eragiten ari zara. Orduan, hor eskua sartuko dela jakin dut modu interno batean, eta aber egiten den, zeren beharrezkoa den.

Publikatu denak, hitz potoloetan hori adierazten du. Beti egiten den bezala. Hezkuntza inklusiboa, baina hezkuntza inklusiboa zer da? Guazen definitzera. Eta, gero ere sartzen zara, hasten zara aztertzen herri batean, Orion bertan adibidez, nor joaten da toki batera eta zergatik joaten da? Agian, hemen horrenbeste kanpotar ez dira egongo edo agian estatusa. Ni estatus batekin enaiz joango eskola batera, agian bestera. Herri bezala ere sortzen dira dinamika deserosoak, desegokiak. Horregatik, berriro horretara, eskolaren garrantzia guzti honetan.

Zer ari zara lantzen zure tesian?

Helburua da, eremu honetako eskola publikoak, nahi ditut pausoak eman ikastetxe inkluitua, lurraldera inkluitutako ikastetxea izateko. Esan dizudana, lau kontzeptu horiek. Orduan da, ikerketa ekintza parte hartzailearen bitartez, ni parte naiz prozesuan (bai ikerketa prozesuaren diseinuan eta bai martxan jartzea), bada helburu horretan, pausoak emateko horren bidean. Eta lehenengo saioa egin genuen, Karkaran argitaratu zen martxoak 9an. Eta poliki-poliki, ikasten ni ere, ikerkuntzan hasi berria naiz, orduan ni ere ikasten ari naiz.

Zure lana ongi burutu ahal izateko baliabide nahikoa ematen dizkizutela esango zenuke?

Hori asko da, irakaslearen erabaki hartzea. Nik pentsatzen dut, duela 30 urte hemen, gu gauden tokian pribilegiatuak gara. Ditugu toki askotan ez dauden eta izango ez dituzten baliabideak. Orduan, nik uste hezkuntza ez dela baliabiea. Hezkuntza da erabaki bat. Erabakia zer hezkuntza nahi dudana eman. Eta hezkuntza eman daiteke ezerekin. Ez da ezer gutxi behar. Orduan, eta askok esaten dute, jo formakuntza behar dugu. Bada, hartu zuk erabakia eta formatu zaitez zu ere. Ez dakit e, askotan formakuntzak jasotzen ditugunean “como churros”, ez zara zu, ez dago erabaki bat hartuta.

Orduan, baliabideetan baino, nik gabezia ikusten dut hori, kontziente izatea, nahiz eta legeak gauza bat esan, sekulako margena daukagula eta gauza asko egin daitezkeela. Eta, egin behar ditugula. Eta baliabideetan adibidez, eskoletan egokia izango zen, beste tokietan badago, erizaintza edo mediku zerbitzua egoten da ere bai.

Gero ere bai, baina, eskola batek sukaldea nahi badu adibidez (1.elkarrizketatuari erreferentzia. Lehenago horren inguruan hitz egiten egon garelako), eskatzen da eta egiten da. Ez dakit, esan nahi dut, ez gara kontziente zenbaterainoko indarra daukan eskola batek. Zaraguetan adibidez uste du 200 familia daudela. 200 familia, zenbat indar dauka horrek. Eskola batek sukaldea behar duela? Bada egin zazu hor, jarri zazu, botearekin, imagina 200 euro balio baditu, familia bakoitzak euro 1.

Erraza izan daiteke, baldin eta modu aktibo batean jokatzeko badugu. Eskatzen dut eta ez didate ematen. 5 urte nijoan eskatzen. Joe horren garrantzitsua bada, goazen egitera. Edo goazen transmititzera familiei zeinen garrantzitsua den hau egitea eta zenbaterainoko indarra duten. Azkenean sukaldea baino askoz, pedagogikoki, eragin askoz handiagoa izango du egindako ibilbide hori. Aktibatzea, familiei transmititzea, denon artean egitea eta emaitza bat eskuratzea. Emaitza bat daukagu eta agian ez dugu erabiliko baina, ze garrantzitsua izan den prozesu hori egitea.

Nik uste dut, hezkuntzako listen sistemak (hezkuntza publikoan, zu listetan zaude. Eta Zaraguetan adibidez, finkotasuna %40ean dago. %60a urtero aldatu daitezkeen irakasleak dira) ez duela ezertarako balio. Nola sortzen duzu hezkuntza proiektu propio bat? Nola lortzen duzu sinistea proiektu horretan? Edo binkulatzea proiektuarekin?

Nik adibidez koinata daukat Berlinen lanean, eta hor eskola guztiek sekulako autonomia dute. Ez dago listarik. Eskola guztiek egiten dituzte elkarrizketan eta zu kontratatzen zaitugu. Nahi duzu hezkuntza sistema propioa sortu Orion, bada, lehenengo gauza, nahi ditut hemen Orion lan egingo duten irakasleak eta hemen geratuko direnak. Eta goazen hemendik ikastera. Imagina dezagun, nahi dudala nire hezkuntza izatea Baldojena, orduan, nire baldintza izango da hemen irakasle izateko formakuntza hori izatea. Eta ez baldin badaukazu egin zure bidea.

Baina gaur egun listen sistema oso pasiboa da. Ni listan nago, iristen da uztaila ea noa joango naizen eta joango naiz hara. Joaten naizenean ere ez naiz binkulatuko gehiegi. Zeren total, ez naiz egongo hurrengo urtean.

Laburbilduz, nire aldetik hori, listen sistema ez dela egokia proiektu propioak garatzeko eta kontziente izatea zelako indarra izan dezakeen.

Zerbait gehitu nahiko zenuke hezkuntza sistemaren inguruan?

Oso garrantzitsua dela haurra ez dela heldu bat. Haurra haurra da, nerabe bat da. Eta haur baten beharrak, nerabe baten beharrak eta heldu baten beharrak ezin dira berdinak eta beraz, ezin dugu berdin jokatu. Eta eskaintzea haurrak behar duen hori eta babestea haurra. Babestea gaur egungo gizarteataz.

Baldorren asko egiten da hori, 0-7 urte bitartean “el mundo es bueno”, hori da haurrak bizi behar duena, gero modu indartsu batean bizitzari aurre egiteko. Zuk jartzen duzu telebsita bazkaltzerako garaian eta “el mundo no es bueno”. Eta horrekin, bizipen horiekin “el mundo no va a ser bueno”, pertsonak beldurrez biziko dira, helduko dira helduarorua eta beldurrez biziko dira eta ez diete aurre egingo aurre egin behar dieten gauzei.

7-14 da adibidez, “el mundo es bonito”. Edertasunaren garrantzia. eta gero 14-21 bada “el mundo es verdadero”, eskaintzea egia nerabeari eta nerabeak erabakitzea zein den bere egia. Ez zuk inposatzea bere egia. Eta orduan ere bai, asko hori, babestea. Berez, pelikulei jartzen diegu adina, baina gero albisteak entzuten dituzu eta. Eta herrialde hoentan gero eta gehiago.

Orduan ere bai, konpetibitatea. Ez du inongo zentzurik. Hor badago Montesoriren zita oso interesgarri bat: “Competitividad y guerra”. Bada, nola konpetitibitateak gerrara eramaten gaituen. Eta konpetentzian hezitzen baditugu haurrak gerrak sortuko ditugu. Konpetitibitateak ez dakar ezer onik.

Eta garrantzitsua ere, eta aurten lortu da lehenengo aldiz magisteritzan eta oso pozik nago, ze garrantzitsua den irakasle bezala ere bai, bakoitzak bere bidea topatzea. Eta nola jaiotzen garen momentuan errepikaezinak garen pertsonak garen. Eta orduan ze garrantzitsua den pertsona hori loratzen laguntzea errepikaezina izango den pertsona bat izan dezan ez. Denok desberdinak gara, baina hezkuntzak egiten gaitu denok berdinak.

Hori interesgarria da, zeren hezkuntzan ari bazara, “educere y educare”. Hori da hezkuntzaren oinarri etimologikoa. Eta “educere”-ren irudia da putzu bat, esentzia dago azpian eta botatzen dugu ura poliki-poliki eta esentzia hori ateratzen da. Eta “educare” da justu kontrakoa. Esentzia dago azpian, botatzen dugu horrenbeste ur ito egiten dela esentzia hori. Hezkuntzak bi oinarri mota horiek ditu, baina ze hezkuntza eman nahi duzu? “Educere” edo “Educare”?

Eta hor berdi ditu baliabideak, berdin du danak, da zure erabakia. Zer nahi duzun egin. Erabaki indibiduala eta kolektiboa eskola batean.

Elkarrizketaren 2.zatia

Zer garrantzitsua den gauzak bizitzea. Bizitzea, baina benetan bizitzea. Eta orduan askotan ikasten ditugun prozesuak eskolan naturako prozesu naturalak dira. Eta orduan bizi behar ditugu. Esan duzuna, nola da posible batxilergoan nerabe batek ez jakitea nondik datorren ogia adibidez. Ez da ez zaiolako azaldu, da ez delako egin. Zeren gauzak egiten badira ez dira ahazten.

Eta hori egiten da Baldorfen DBH oinarritzen da fenomenoetan. Eta fenomenoak egitea. Eta haurrak, nerabe horiek. Eta lehen hezkuntzan berdina. Baratza bat ematea denon artean eta ikustea nola jaiotzen diren gauzak, nondik datozen.

Eta gero ere, beste gauza bat ni asko kezkatu nauena azkenean pertsonak, gu hezitzen ari gara pertsonak. Orduan lehenengo gauza jakin-erantzun behar duguna da: zer da pertsona. Pertsona bat da, pentsatzen duen zerbait, konexio espirituala izan daitekeena ere bai, pentsaera kognitiboa-espirituala-emozionala-soziala eta gero pertsona. 3 dimentsio gara, kognitiboa (intelektuala), emozionala eta fisikoa. Orduan, hezitzen ari bagara haurrak/nerabeak hiru maila horiek hezitu behar ditugu. Eta hirurak garatzea garrantzitsua da. Nola konpaginatzeak bata bestearekin, elkarri laguntzen dien.

Adibidez, ikertua dago, 20 minutuz ezin gara kontzentratu modu intelektual batean. 20 minutu baino gehiago. Nola berreskuratu orduan kontzentrazioa? Dimentsio fisikora edo dimentsio emozionalera joanez. Bada, goazen jolastera, goazen salto egitera. Eta gero itzuliko gara.

Edo goazen abesti bat kantatzera. Kantaren edo arteak sekulako indarra dauka guzti honetan. Artea, emozioetan zaude, eta orduan, nahi baduzu berriro intelektualki kargatu jo dezakezu artera. Eta arteak ere hezituko zaitu intelektualki. Orduan, 3 horiek egon behar dira etengabe presente eskolan. Tokia egin behar diegu. Eta orduan pertsona integralak sortu.

Eta gero ere bai, desberdinak garen heinean, denok jakintzara modu desberdin batean helduko gara. Eta orduan, heltzeko bide ezberdinak daude. Bide bat bada emozionala, bestea fisikoa eta bestea intelektuala besteak beste. Orduan eskaintzen badiozu haurrari 3 bide horiek askoz hobeto. Bakoitzak topatuko du bere bidea.

Nik lagunak ditut adibidez, esaten duzuna, jo tipo hau zenbat balio duen baita ere intelektualki. Zeren beste modu batera jokatzeko du baina batxilergoa ez da beretzat. Eta zenbat pertsona balido, praktiko, bizitzarako sekulako errekursoekin ez dute bere tokia topatzen edo galtzen dira honetan. Eta hori hezkuntzaren akatsa da, zeren hezkuntzak egin beharko luke aukera eman eta hori da inklusioa pertsona guztiei. Ditzuten ezaugarriak dituztelarik.

ELKARRIZKETATUEN BAIMENAK - 1.Elkarrizketatua

ELKARRIZKETA EGIN AURREKO AZALPENA

ELKARRIZKETAREN ZERGATIA

Elkarrizketa hau Gradu Amaierako Lana (GAL) burutu ahal izateko diseinatua izan da. Izan ere, kriminologiako graduaren azken ikasturtean GAL proiektua egitea eta gainditzea eskatzen da.

Unibertsitateak eskatzen duen baldintzetako bat da GALak bi zati izan behar dituela: bata teorikoa eta bestea praktikoa. Eta elkarrizketa da lehen aipatutako bigarren zatia egin ahal izateko eskaintzen zaizkigun baliabideetako bat.

ELKARRIZKETAREN PROPOSAMENA

Elkarrizketa honen bidez, elkarrizketatutako subjektuak lanean garatzen ari den galarekin duen harremana ezagutu nahi da. Era berean, GALEan aurkeztutako gaiari buruz duten iritzia jakin nahi da. Hori guztia, ikuspegi kritiko batetik lantzea espero da, proiektuaren amaieran kritika errealista eta egoki bat egin ahal izateko.

ELKARRIZKETATIK LORTUTAKO INFORMAZIOA

Elkarrizketatik lortutako informazioa GALEan txertatzeko erabiliko da, errealitatea hobeto ulertu ahal izateko, eta amaieran kritika bat burutzeko. Uneoro, elkarrizketatuengandik ateratako ideiak egilearenak ez direla adieraziko da, hots, elkarrizketatuen ideiak direla.

Hein berean, elkarrizketatuek horrela nahi izanez gero, beren identitatea anonimotasunean mantenduko da.

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA

Elkarrizketak ez dauka denbora epe finkorik. Elkarrizketatuaren erantzunen baitan, luzeagoa nahiz laburragoa izan daitekeela ulertzen da. Hala ere, elkarrizketak 30 minututatik, ordu bat eta erdi bitartean iraun dezakeela espero da.

ELKARRIZKETATUAREN BAIMENA

Elkarrizketatuak bere sinaduraren bitartez adierazten du bere baimena ematen duela elkarrizketa hau burutu eta Olatz Genova Zubiaren GAL proiektuan argitaratzeko.

Elkarrizketatuaren sinadura:



ELKARRIZKETATUEN BAIMENAK - 2.Elkarrizketatua

Elkarrizketaren zergatia

Elkarrizketa hau Gradu Amaierako Lana (GrAL) burutu ahal izateko diseinatua izan da. Izan ere, kriminologiako graduaren azken ikasturtean GrAL proiektua egitea eta gainditzea eskatzen da.

Unibertsitateak eskatzen duen baldintzetako bat da GrALak bi zati izan behar dituela: bata teorikoa eta bestea praktikoa. Eta elkarrizketa da lehen aipatutako bigarren zatia egin ahal izateko eskaintzen zaizkigun baliabideetako bat.

Elkarrizketaren proposamena

Elkarrizketa honen bidez, elkarrizketatutako subjektuak lanean garatzen ari den gaiarekin duen harremana ezagutu nahi da. Era berean, GrALean aurkeztutako gaiari buruz duten iritzia jakin nahi da. Hori guztia, ikuspegi kritiko batetik lantzea espero da, proiektuaren amaieran kritika errealista eta egoki bat egin ahal izateko.

Elkarrizketatik lortutako informazioa

Elkarrizketatik lortutako informazioa GrALean txertatzeko erabiliko da, errealitatea hobeto ulertu ahal izateko, eta amaieran kritika bat burutzeko. Uneoro, elkarrizketatuengandik ateratako ideiak egilearenak ez direla adieraziko da, hots, elkarrizketatuen ideiak direla.

Hein berean, elkarrizketatuek horrela nahi izanez gero, beren identitatea anonimotasunean mantenduko da.


Elkarrizketaren iraupena

Elkarrizketak ez dauka denbora epe finkorik. Elkarrizketatuaren emaitzen baitan, luzeagoa nahiz laburragoa izan daitekeela ulertzen da. Hala ere, elkarrizketak 30 minututatik, ordu bat eta erdi bitartean iraun dezakeela espero da.

Elkarrizketatuaren baimena

Elkarrizketatuak bere sinaduraren bitartez adierazten du bere baimena ematen duela elkarrizketa hau burutu eta Olatz Genova Zubiaren GrAL proiektuan argitaratzeko.

Elkarrizketatuaren sinadura:



ELKARRIZKETATUEN BAIMENAK - 3.Elkarrizketatua

ELKARRIZKETA EGIN AURREKO AZALPENA

ELKARRIZKETAREN ZERGATIA

Elkarrizketa hau Gradu Amaierako Lana (GAL) burutu ahal izateko diseinaturik izan da. Izan ere, kriminologiako graduaren azken ikasturtean GAL proiektua egitea eta gainditzea eskatzen da.

Unibertsitateak eskatzen duen baldintzetako bat da GALak bi zati izan behar dituela: bata teorikoa eta bestea praktikoa. Eta elkarrizketa da lehen aipatutako bigarren zatia egin ahal izateko eskaintzen zaizkigun baliabideetako bat.

ELKARRIZKETAREN PROPOSAMENA

Elkarrizketa honen bidez, elkarrizketatutako subjektuak lanean garatzen ari den gaiarekin duen harremana ezagutu nahi da. Era berean, GALEan aurkeztutako gaiari buruz duten iritzia jakin nahi da. Hori guztia, ikuspegi kritiko batetik lantzea espero da, proiektuaren amaieran kritika errealista eta egoki bat egin ahal izateko.

ELKARRIZKETATIK LORTUTAKO INFORMAZIOA

Elkarrizketatik lortutako informazioa GALEan txertatzeko erabiliko da, errealitatea hobeto ulertu ahal izateko, eta amaieran kritika bat burutzeko. Uneoro, elkarrizketatuengandik ateratako ideiak egilearenak ez direla adieraziko da, hots, elkarrizketatuen ideiak direla.

Hein berean, elkarrizketatuek horrela nahi izanez gero, beren identitatea anonimotasunean mantenduko da.

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA

Elkarrizketak ez dauka denbora epe finkorik. Elkarrizketatuaren erantzunen baitan, luzeagoa nahiz laburragoa izan daitekeela ulertzen da. Hala ere, elkarrizketak 30 minututatik, ordu bat eta erdi bitartean iraun dezakeela espero da.

ELKARRIZKETATUAREN BAIMENA

Elkarrizketatuak bere sinaduraren bitartez adierazten du bere baimena ematen duela elkarrizketa hau burutu eta Olatz Genova Zubiaren GAL proiektuan argitaratzeko.

Elkarrizketatuaren sinadura:



TXOSTEN EXEKUTIBOA

Ikuspegi teoriko batetik, hezkuntza eta kriminalitatea lotuta dauden bi faktore dira. Kausalitatea, normalean, hezkuntzatik portaera kriminalera doa, hau da, hezkuntzarik ez duen edo hezkuntza gutxi duen pertsona batek joera handiagoa du delituak egiteko, hezkuntzarik ez duen edo, besterik gabe, hezkuntza-maila handiagoa duen pertsona batekin alderatuta. Hein berean, kausalitate hori alderantzizkoa ere izan daiteke. Hau da, delituak egiteko joera handiagoa duen pertsona batek eskolan jarraitzeko probabilitate txikiagoa du delitu horiek egiteko joera ez duen pertsona batekin alderatuta.

Eta datu horiek babesten dituzten hainbat ikerketa dauden arren, oro har, praktikan kausalitate horrek zenbait traba ditu. Izan ere, ikertzaileek ez dute kontuan hartzen ondorengo hau: hezkuntzak kriminalitatea inhibitzeko duen gaitasuna gorabehera, egungo hezkuntzak dituen ezaugarriak direla eta, kausalitate horrek kontrako eragina du. Hau da, indarrean dagoen hezkuntza sistemaren gabeziek eragiten dute, hezkuntzaren bidez kriminalitate tasak gutxitzea ez lortzea. Aitzitik, arrisku-faktoreak areagotzen ditu adingabe bat bere helduaroan kriminal bihurtzea eragin dezaketanak.

Horren arrazoi nagusia da hezkuntzak ez duela balio adingabeak helduaro errealistarako prestatzen laguntzeko. Are gehiago, praktikan, egungo hezkuntzak ikasleak goi mailako ikasketak egiteko prestatzeko baino ez du balio, eta ez eguneroko beharrei aurre egiten erakusteko.

Aurreko akatsaren harira, hezkuntza sistema bat bera ere ez dela perfektua esan daiteke, hots, guztiak hobetu daitezke. Proiektu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hezkuntza sistema aztertuko dut, ezinezkoa baitzait munduko hezkuntza guztiak aztertzea. Konkretuki, gizarte gisa aurre egin behar diegun heziketako hutsune horiek nabarmentzeaz gain, hainbat proposamen egingo ditut horiei aurre egiteko.

Azaldu berri dudan guztia jorratu ahal izateko, lehenik, ezinbestekoa da euskal gazteek jasotzen duten heziketa nolakoa den ulertzea. Horregatik, gai hori arautzen duten legeria aurkeztu dut, eta ostean, lege horien aplikaziotik eratortzen diren hezkuntzaren ezaugarriak zeintzuk diren azaldu ditut.

Behin funtzionamendua ulertuta, herrialde nordikoek aplikatzen duten hezkuntza eredua deskribatu dut, bereziki, Finlandiakoa. Bada, Europako herrialdeentzat jarraitu beharreko eredua da honakoa heziketaren alorrean. Hala ere, haren

funtzionamenduaren inguruko goraiamenak benetan merezitakoak ez direla erakutsi dut. Zehazki, gure hezkuntza ereduarengandik oso bestelakoa ez dela frogatuz.

Finlandiako hezkuntzaren benetako irudia erakutsitakoan, gure hezkuntza sistemaren akats eta gabeziez hitz egiten hasi naiz. Halere, hori egin ahal izateko, 3 pertsoneri elkarrizketak burutu dizkiet. Elkarrizketetan zehar, subjektuek lanean garatzen ari naizen gaiarekin duten harremana landu da. Era berean, beren iritziaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko heziketaren kritika errealista bat burutu dut.

Aztertuko ditudan hezkuntza esparruak 4 izan dira: Ikasleek duten irakasgai eskaintza, ikastetxeetan erabiltzen den irakasteko metodologia, hezkuntzari modu batera edo bestera eragiten dioten helduak (irakasleei arreta berezia eskainiz) eta azkenik, giza baliabideak nahiz baliabide materialak.

Arlo horien analisisian, kritikak egiteaz gain, hezkuntza sistemako akatsek kriminalitatean izan dezaken eragina deskribatzeaz ere arduratu naiz. Gutxi balitz, identifikatuko ditudan oztopo horien desagertzea, irtenbide edo gutxienez hobetze posible bat dela aldarrikatu dut. Horien desagertzearekin, efektu inhibitzailea bermatzea espero delarik.

Amaiera emateko, proiektu honetako zati garrantzitsuenak azpimarratu ditut ondorioen bitartez. Eta bertan, gizartearen lankidetzaren garrantzia azpimarratu dut, aipatu berri ditudan gabezia guzti horiei aurre egiteko unean. Izan ere, EAeko heziketan hauteman daitezkeen akatsak konpongarriak dira. Eta soilik gizarteko kide guztien lankidetzarekin, horiei aurre egitea posible da.